



HERRIZ HERRI AUTOBUSEAN

Dirulaguntza bati esker, Bertan Baztango merkatarien elkarteak Bertan Bus zerbitzua paratu zuen martxan maiatzean. Geroztik asteen bi aldiz autobusa ibiltzen da Baztango herrietan: asteartetan Baztangoiza eta Elizondo lotzen ditu eta asteazkenetan Basaburua eta Erberea Elizondorekin. / 10

BERTAN BAZTAN

Baztandarren Biltzarra ate joka

Uztailaren 21ean ospatuko dute baztandarren besta handia Elizondon. 11:00etan hasiko da orga apainduen desfilea. / 49

SINADURAK



ZOZKETA / 64

«Nafarroako produktu ekologikoak bildu, banatu eta logistika kudeatzen du Ekoalde»

Hasier Iratzoki etxalartarra Ekoaldeko koordinatzailea da eta produktu ekologikoen eskaera gero eta handiagoa dela dio. / 8



Emakumearen Memoriaren Baratzeko urteurren besta hilaren 20an. / 17

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
probextu
aukerak!



Arduro

5 DESKONTUA
arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

boxkikak
KIROL ETA MODAKO
ETIKETA DENDA

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30etik gorako
dekorazio gailetan

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

GAELA
Tatu, inbeldia, tatuak...

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50etik gora.
Promozioetan ezik

Pio Baroja, 11 beheko | Bera
T. 666 42 61 96

ALZURI
ELEKTRIZITATEA

%5 DESKONTUA
etxetresnetan
promozioetan ezik

Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
DISEÑO Y OROZKO

%10 DESKONTUA
hamar saloko
bonoan

Itzea, 20 beheko | BERA
T. 607 85 32 08

bortzirudi

DESKONTUA
%15 Kamioietan
%10 Inprimatu
lanean
%5 Kopia, enbelduekiko eta
plastifikazioetan 3400k gailu
* Aurrekontutik kanpo

Ezlegara, 26 esk. beheko | BERA
T. 948 63 15 21

LESAKAKO
UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

Urdu Bera
Dietetikako eta elikadurako

%20 DESKONTUA
urteko abonuaren
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARRA
KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan
%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

ZK zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kortagoria

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

ZU lorendenda
dekorazioa
osagarriak

%5 DESKONTUA
lore motuan
30etik gorako
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 beheko | BERA
T. 948 63 12 83

oreka
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

INTEZURI
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94



NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

Dantza gaitezen!

«Dantzatzeko duen herria ez da inoiz hilko» aldarrikatu zuen Jon Maya dantzariak Max saria jasotzerakoan. Gure gizartean, dantzarako tradizioa handia izan bada ere, gero eta leku gutiago du. Gero eta dantza gutiago egiten dugu besta giroan. Eskoletan dantzak ez du inolako tokirik. Jarduera fisikoa sustatzeko programetan ere ez. Folkloretzat baino ez da hartzen. Ez da oraingoa Euskal Herriko dantza talde gehienetako arazoa: neska nahikoa badago dantza taldeak mantentzeko, mutilak, aldiz, eskaxko. Egun sei-nalatueta, aldiz, dantzarako espazioa gizonen ematen zaie. Nola bertzela! Tradizioaren izenean, gizonen baino ezin dute dantzari egin. Emakume ausarten borrokari esker, euren lekua hartu dute Euskal Herriko plaza anitzetan. Badira, hala ere, erresistentzia guneak, bazterketa guneak. Tradizioa dute bazterketarako argudio bakarra. Uste duguna baino iraultzaileagoa da dantza, eta horregatik ez diete emakumei leku hegemonikoa utzi nahi. Baztanen, Leitzan, Beran edo Lesakan, emakume eta gizon, dantza gaitezen elkarrekin!

«TRADIZIOA DUTE BAZTERKETARAKO ARGUDIO BAKARRA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zubiazpikoak

Antzinako tradizioak eguneratu eta boto-emaile, boto-hartzaile, zinegotzi, alkate, ministro, presidente, elektrizista, taxilari, meatzari, harakin, futbolari, pilotari, maratoilari, aizkolari, mediku, militar, polizia, su-hiltzaile edo itsasontzi-kapitain izan daitezke, baina herriko plazan edo zubi gainean bestetan dantzari ez? Tradizioaren izenean? Egitan?

NABARMENTZEKOAK


**IÑAKI
MIHURA**
LASTERKARIA

**INAXI
ETXEBERRIA**
HILBERRIA

Ekainaren 23an egin zen Camille Extreme lasterketa Izaban eta 560 korrikalarien artean Iñaki Mihura arraioz-tarra bigarren gelditu zen. 31,6 kilometroak hiru ordu pasatxoan egin zituen.

Urtarrilean 103 urte bete zituen Igantziko Berrizaun auzoko Inaxi Etxeberría ekainaren 29an hil zen. Emakume alaia eta sasoikoa, serora eta jostun lanetan ibilia zen hainbat urtez.

ATZERA BEGIRA



2009-07-09 · TTIPI-TTAPA · 498 zk.

Mikel Irazokiren ibilbidea hizpide

Bortz urte zituela atabala jotzen hasi zen Mikel Irazoki beratarra eta ondotik, akordeoiari eta baxuari heldu zien. Aspaldikoa zuen musikarako afizioa eta hori aitzakiatzat hartuta, duela hamar urte, Miguel Boserren zuzendari musika-la zela, elkarriketa egin zion TTIPI-TTAPAK. Berea «ordu aunitzeko lana» zela onartu zuen: «nire lana ez da estudiokoa bakarrik, batez ere, biran egiten dut lan. Une oro gauza berriak bilatu behar dira eta lan lotua eta intentsoa da». Baina «dudarik gabe, gustuko lana» zuela kontatu zuen. Etorkizuna «ziurtasunik gabea» zela ere adierazi zuen: «mundu honetan proiektu bat bukatuz gero, ez da jakiten zer etorriko den». Halere, «kontent» zegoen: «oraingoz, ez zait deus ere faltatu».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maidor Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberría, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdosain, Maitane
Maritorea, Aranbxa Iturralde,
Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oleiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebrea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbiltzen Mankom.,
Zugarramurdi Aklare elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 38€
eta Malerreka 26€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Ipar Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€



KOLABORAZIOAK

JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Nire aitaren etxea...

... madarikatuko dut. Bai, aldaketa ttiki bat egin diot Gabriel Arestiren olerki famatuaren hasierari, berak defendituko zuela zioen. Ez dakit aitaren etxea zerbaiten metafora zen edo benetako harri eta zurezko etxeaz ari ote zen. Dena dela, gauza bat argi samar dago: arima ere galdurik aitaren etxea defendituko duela badio, zerbait haundia, sakona edo/eta garrantzitsua izan beharko du nonbait. Eta hain gauza potolorik erran gabe ere, segur aski nabarituko du edozeinek «etxea» gauza garrantzitsua izan dela euskaldunontzat, batez ere herri eta baserri inguruan.

Edozeinek ikus dezake azken hamarkadatan nola ari diren etxeak husten, eta herriak tikitzen, nik behinik behin ia egunero erreparatzen diot kontu horri, eta buruari ematen hasiz gero, tristura ere nabaritzen dut. Badakit, gainera, ez naizela pena hori nabaritzen duen bakarra. Ez da gauza berria, noski, nonahi badira aspaldi erabat hustu ziren herriak, eta segur aski hortaz, behehiritan zoko joera hori gauza naturala edo halabeharrezkoa dela irudituko zaigu.

«HAUXE DA ARBASOEK UTZI DIGUTEN HERENTZIA, ONERAKO ETA TXARRERAKO»

Hala ere, afera pixka bat astindu, eta koska edo galdera batzuk ere aurkitu ditut.

Naturala edo normala al da ba hori horrela gertatzea? Bai al genekin guk, edo gure antzinakoek ere ba al zekiten hala

gertatuko zela? Hainbertzerainoko etxe puska egin zituzten haiek pentsatu al zuten norbaitek teiltatu eta gero ondotik gainerako guztiak erortzen utziko zituenik? Edo familiako azken atautxi edo amatxi hil eta gero, etxea hutsik eta isilik geldituko zenik zikinaren eta sasiaren eskutan?

Jakinaren gainean ari naiz, erraten baldin badut etxe franko segur aski, beharzagatik baino indar erakustaldi edo harrokeriagatik egin zirela, beti ere sasoia eta ahalmen nahiko edo sobrantarekin. Erran nahi dut, ez zirela beti halabeharrez eta zentzuz egin hainbat etxe, zuraje, pareta eta hainbat apaingarri ikustea bertzerik ez dago gehiegikeria zenbait ikusteko. Harrotasunez *Esta casa reedifico Juan de...* paratzen duten idazki dotoreak fatxadan...

Kontuan hartu gainera, gaur egun ezagutzen dugun etxe eta baserri molde hau ez dela beti hola izan. 500 bat urte ditu, ez da hagitz aspaldikoa, alegia. Lehenagotik jendea estalpe xumeetan bizi omen zen.

Hauxe da gure arbasoek utzi diguten herentzia, onerako eta txarrerako. Haien aurrerapen eta bizimoduaren hobekuntza izan zena, guretzat berriz maiz samar zama bihurtu dena. Mantentzeko garestia, beharrezko duguna baino gehiago, garai biziago batzuen orogarri, orain isiltasuna eta dekadentzia erakusten diguna.

Beharbada, ez dugu zertan gure burua erruduntzat jo; euren nahia izan zen gauzak modu hartan egitea. Eta gaur egun beharrezkoak ez badira, ez dugu zergatik gure bizkarra eta arima behartu zama hori eutsi nahizik. Edo bai?



IZASKUN IGOA JAIMERENA

Desira?

Irakasle batek azaldu zuenez, desira telefonoz deitzen duzun lagun baten antzekoa omen da arras. Zuk deitzen duzunean, hark ere deitzen du. Deitzetik uzten duzunean, desirak ere poliki-poliki deiak guttitzen ditu. Deitzetik utzi arte.

Aunitzetan aditu dut badela desira gehiago eta desira guttiago sentitzen duen jendea. Batzuek denbora luzez ez dutela sentitu eta haiek desira gutti sentitzen duten horietakoak direla. Ba omen dira urte luzez haren berririk ere izan ez dutenak. Desirarik ez sentitzea, normaltzat hartu dutenak. Edo arazo bat dutela sentitu dutenak.

Hau da, desira sentitzea edo ez, sortzez berezkoa den zerbait bezala ulertzen dugu aunitzetan. Horrez gain, ez badugu «ustez tokatzen zaiguna» desiratzen, pantailetan ageri diren gidak ez baditugu segitzen... desira gabeko ikusten dugu geure burua, edo ikusten gaituzte.

Atzentzen zaigu desira ez dela guk nahi dugun ordenakoa. Ezin dugula antolatu. Beti ez dugu berdina desiratzen, momentu berdinean, eta justu ongi heldu zaigun uneetan.

«NAHI DUENARENTZAT UDARAKO DESIRA ARIKETA BAT PROPOSATUKO DUT»

Desira ez da beti eguneko lanak akitu eta logalea sartu aitzineko momentuan etortzen. Geure buruari solasteko erabiltzen dugun moduek ere eragina dute desiran eta «egin behar» horien eta exijentzien zerrrendek ez

dute gehiegi laguntzen.

Desira desordenatua da.

Galdera aunitz ditut desiraren inguruan, baina badago buelta eta buelta darabilten bat: norberak bere buruarekiko sentitzen duen desirak eragina al du kanpokoarekiko sentitzen duenean?

Udarako desira ariketa ñimiño bat proposatuko dut, probatu nahi duenarentzat: bakarrik egoten ahal zaren toki eta momentu bat bilatu. Momentua, ahalik eta luzeena. Gela edo egonen zaren espazioa zure gustura jarri. Ez duzu dekorazio saio bat egin beharrik, baina erabaki zein argi nahiago dituzun, kandelak bai edo ez, zein usain, zerk sentiarazten zaituen hobe. Aukeratu nolako testuraren gainean jarri, etzan edo zutik egonen zaren eta zuk, zerbait izanene ote duzun soinean edo ez. Nahi baduzu ispilu bat gehitu dezakezu zure aitzinean. Eta nire gomendioa, egoera horretarako gustukoa duzun musika aurikularrekin jartzea da. Desiratze-desiratua izate jokoan hastera... Bota olioia edo krema, esku edo ontzi batera. Pixka bat hartu eta aurpegiko xoko guztietan hedatu hatz bakar batekin. Hasi kopetatik eta kokotzeraino, olioztatu osorik. Kokotza eta sorbalden arteko azalera ere milimetroz milimetro ukitu. Beheranzko noranzko horretan, saiatu normalean kasurik egiten ez diezun azal zati guztiak bilatzen. Emaiezu ukituak izateko aukera eta plazera. Giza gorputzaren larruazalak bi metro koadro ditu gutti goiti-beheiti; gozatu biak, oso-osorik, olio estaltzen.

Uda desordenatu ederra izan!

11 GALDERA LABUR

UNAI GORROTXATEGI ARANON BIZI DEN ORERETARRA

«Poliki-poliki nire helburuak betetzen ari naiz»

Aurkeztu zure burua.

Duela urte eta erdi Aranora etorri nintzen, orduko neska-laguna Aranon bizi zelako. Bizitzak bide bitxiak hartzen ditu eta ikusteko dago beste geltokirik izango dudana.

Erraza izan al da egokitzea?

Okerrena logistika da. Autoa behar da gauza gehienetarako. Autoa erosi nuen eta denbora luzez irautea espero dut...

Herri txikia da Arano...

Txikiegia. Arano bezalako herri asko desagertzeaz daude. 25 urteren buruan Arano nolakoa izango den irudikatzen saiatzen naiz eta kezka dagozkit. Ez litzaidake gustatuko Arano herri bezala galtzea eta hemen bizi naizen artean lanean jardungo naiz...

Biziberritze horretan elkarteak eta kultur taldeak badute zeresana.

Aurreko urtean Jalki kultur elkarte sortu genuen eta aurtan San Roke elkarte sartzu naiz. Jalkin Guifineteko gaia daramat. Herrira ganorazko Interneta ekartzea da gure helburuetako bat. San Roken, aldiz, kontuekin aritzen naiz.

Festa batzordean ere aritzen zara?

Ahal dudanean laguntzen dut.

Aurtan zertan aritu zara?

Ereñozun txanda bategin nuen, haiek Aranon lan egin dezaten; eta aurtan bingo musikatu prestatzen nabil. Ondo ateratzea espero dut!

Arkume jatea kinka larrian ibili da...

Bai. Halere, jai herrikoiak herriarren esku daude eta herriak



antolatzeari uzten badio interesa galdu duelako izanen da. Bestela ez du zentzurik.

Zein da festetako momentu politena?

Azken eguneko afaria. Batzuek lan handia egiten dute eta lanean jo eta fuego ibili direnak gozatzen ikustea polita da.

Zer falta du Aranok?

Plan estrategiko bat osatzea besterik ez du falta: Arano 2044. Gauza onak ere baditu eta horiek egiten dute bizigarri.

Asteburuko plan ederrena?

Aranoz gozatzea edo herritik alde egitea, astearen arabera. Herrian lagun handiak egin ditut eta haiekin gozatzen dut. Aurrera begira, baduzu proiekturen bat buruan?

Teknologia gustatu izan zait beti eta Aranora etorri nintzenetik landareekin eta baratza-rekin nabil... Oilategi bat ere egin nahi nuke. Poliki-poliki nire helburuak betetzen ari naiz.

1951tik
Casa Cambra
 lentzeria-etxea
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Merkealdia



IRAKURLEAK MINTZO

Aitona baten kontu zaharrak

CARMELO ORUBE IPARRAGIRRE

Lerro hauen bitartez, gaur egun Lesakako ikastola den Otxogorrienea etxearen inguruan kontu batzuk aipatu nahiko nituzke. Hantxe bizi zen Cornelia Lekuona Garbiso. 1917an alargun gelditua, 1933an hil zen 81 urte zituela. Hainbat ondasun zituen, tartean, bospasei baserri eta etxearen inguruan lurrak, eta horiek eskola bat egiteko bideratu nahi izan zituen, halaxe jaso zuen testamentuan. Horiez arduratzeko patronatu ere izendatu zuen, erreto-reak, apezak eta herriko alkateak osatua.

1944an Lesakan zegoen Carlos Permisian notarioa izan zen testamentuan bildu zen donazio hori mugiarazi zuena. Oñatitik Pedro Balzategi fraileen burua etorri zen eta hainbat gestio egin ondotik, 1946ko irailean hiru fraile eskolak ematen hasi ziren Lesakan. Hasiera hartan, mutikoen eskola izan zen eta ondoko herrietatik ere etorri ziren ikasleak, batez ere Etxalartik.

Baina eskolaz aparte, Otxogorrienean antzerkia ere egiten zen garai batean. Beti Gazte zinea sortu zenean, obra bat ere egin zuten areto bilakatzeko. Artista lanetan lesakarrak ere ibili ziren: Jose Arakues, Jose Txoperena, Jose M^a Irigoien... Antzerkia eginez, sos batzuk bildu zituzten obrak egiteko.

1947an, berriz, Sonoro Zinea sortu zuten hainbat bazkidek: Vicente Telletxeak, Narciso Irigoienek, Manuel Alzugaraik eta Pedro Agarak. Azken hori izan zen bazkide kapitalista eta berari esker, urte batzuez zinea izan genuen Lesakan.

HEMEROTEKA



«Zientzia eta teknologiaren munduan bada nahi bat: orain arte egin izan den guztia gizarteari kontatzea. Gizakiak jakin behar du zientzialariak ez direla laborategian gauza arraroak egiten ari diren pertsona arraroak. Zientzialariak gizartearen arazoekin arduratzen dira, izan minbiziaz, izan erradiazioaz, edozertaz. Dena dago lotua: espazioan inbertitzen denakitzulera du gure gizartean. Eta hori kontatzeko erronka komunikazioan gabiltzanok dugu. Planetarioa da jakintza hori hedatzeko guneetako bat (...) Iruñeko Planetarioko izar eskola zerua ezagutzeko baliabide motibagarri bat da, eta zeruaren bitartez, hainbat gai azaldu ditzakegu, historia eta mitologiatik hasita. Gure burua aintzinako arbasoen garaian koka dezakegu, haiek zeruan zer ikusi zuten eta zeruak nola inspiratu zituen ulertzeko. Gaur egun ez dugu apenas zerura begiratzen, baina gure inguruan sortu dugun guztia pentsa-mendu horietatik dator, gizakiak gizaki denetik galdetu diolako bere buruari nor den eta zertan ari den mundu honetan. Izar eskola, beraz, oso baliabide transbertsala da, eta bertan sartzen dira filosofia, historia, mitologia, zientzia, fisika, distantziak, eskalak, astronautika...».

MIREN KARMELE GOMEZ ELIZONDO.
IRUÑEKO PLANETARIOKO KIDEA. ARGIA.
2019.06.30



«Ni leitzarra naiz, eta halako herri batean bizitzeak –herri tiki batean, maskulinitate hegemonikoak eta tradizioak indar handia daukan tokian– markatu egiten du neska gaztea. Adibidez, pilotari oso lotutako herria da: 7 urte geneuzkela, hiru neska hasi ginen aurreneko aldiz hango pilota eskolan, eta hor ikusi genuen, gure lekua aldarrikatzen genuen momentuan, zer erresistentzia agertzen ziren bai gazetxoen aldetik bai gurasoen aldetik. Ez genuen ulertzen, baina guk gurean segitu genuen (...) Greba feministei esker, lehen feminismoa arrotz sentitzen zuten emakumeek gaur egun ez dute hain arrotz, eta kalera ateratzeko gogoia izan dute (...) Baina mintzakidetzatza politikora salto handia dago. Gaur egun ez dugu lortu alderdi politiko batek edo sindikatu batek daukan gaitasuna mintzakidetzatza politikorako, eta are gehiago, mugimenduaren egitura ez dago horri erantzuteko prest momentu honetan (...) Euskal Herriko mugimendu feministak erroko aldaketak planteatzen ditu, eta egun instituzioetatik borondate hori ez dago, zeren gure herrian instituzio askoren ikuspegia eskuineko ikuspegia da (...) Ez dago eska-kizun errealki planteatzeko borondaterik.

SAIOA IRAOLA. LEITZA. BILGUNE
FEMINISTAKO KOORDINAZIO-TALDEKO
KIDE OHIA. ARGIA. 2019.06.23

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus

948 63 54 58

BOTA BERTSOA

MANU GOIOGANA BENGOTXEA

BAZTAN-BIDASOKO XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETAN 1. SARIA (18 URTETIK GOITI)

Ispiluko ustezko gizon zis hetero zuri ez-gizen diruaski horri

Doinua: Calle Melancolia



Zalantzak islatzen dira
ispilutik zuganaino
zuk, genero zapalkuntzez
hausnartu gabe oraino,
pribilegio gehiago
dituzu zuk uste baino,
inor eraso al duzun
inoiz ez pentsatzeraino!

Berdin dio bulegoan
zein klean zabiltzala,
ostatuko barran edo
handik itzuli ahala
zure gorputza, ahotsa,
jarrera eta itzala
zenbatetan irakurri
dira mehatxu bezala?

Ez dela zure errua
ez duzun arren gustuko,
erantzuna prest zenuen
galdera egin orduko ...
Beste pribilegio bat
ez al da, lagun bertuko,
egin ahal izatea
norbere ardurei uko?

Bizi garen garaiotan,
zuk ere jakingo duzu,
iritzia ematea
bihur daitekeela luxu.
Gaiaz deus ez jakin arren,
ignorantziatik usu,
zuk hitz egiteagatik
zenbat isildu dituzu?

Hala ikasi baituzu
ia-ia umetatik
genitalei esker duzun
posizio horretatik,
berdin dio silueta
edota arropengatik,
zenbat epaitu dituzu
kanpoko itxuragatik?

Nahiz eta gero ez esan,
ez erabili ahotan,
isiltasunak ekintza
ez du ipintzen kolokan!
Normatiboki epaitzen
duzu edozein arlotan
eta gainera zerorri
ohartu gabe askotan.

Sare sozialetan bai,
eraginkorra bailitzan,
artikulu feministak
partekatzeko langintzan
ikusi dut zein aktibo
eta zein irmo zabiltzan,
gero berdin jarraitzeko
eguneroko bizitzan

Bizi zarenez kultura
patriarkalak blaituta
sortu zinenetik ia
beregana izan zaitu ta
nahiz eta ustez eduki
kontrolpean, garaituta,
zure barruan noraino
egongo da sustraituta?

Jendartean zer ikusten
ote dugu parez pare?
Zenbat eredu toxiko,
zapaltzaile, gaixo, grabe?
Balore mespretxagarritz
inguratuta bazaude,
ez al zenuke alertan
bizi behar etengabe?

Alferrik zenbat lan eta
deseraikitze-prozesu;
bazterreranzko pausua
egiten zaizu konplexu.
Nola ez, sorta honetan
ere zentroan zaude zu,
hortik ondorioren bat
atera al dezakezu?

Ikusten zaitut pentsakor,
gogoetek erasana,
ez dakizula zer egin,
baina goazen pixkana;
hausnartu galderei buruz
mantso eta banan bana,
erantzuna da gutxien
interesatzen zaidana.

GORA ETA BEHERA

Oihal koloretsuak eta mezu ilunak
Harrotasunaren Egunean

Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Harrotasunaren Nazioarteko Eguna gogoan, ekainaren 28an bandera koloretsuak zintzilikatu zituzten eskualdeko hainbat udaletxetan. Tartean, irudian ageri den bezala, Leitzan, «aniztasuna bere zentzu guztietan onartu eta errespetatzen dugulako». Nonbait, ez zen denen gustukoa izan, kontrako mezuak jaso zituelako. Gezurra dirudi oraindik ere Twitter bidez zabaldu ziren mezuen gisakoak irakurri behar izateak... Ea heldu den urtean berriz oihal koloretsua zintzilikatzen duten Leitzako udaletxean, baita eskualdeko bertze Herriko Etxeetan ere.





Hasier Iratzoki etxalartarra eskuinean, Aitor Pinillos lankidearekin. DANIEL CAMPANERO

«Ekoizpen ekologikoari aterabide bat emateko saiakera da Ekoalde»

HASIER IRATZOKI ALTZUGUREN EKOALDEKO KOORDINATZAILEA

Nafarroako produktu ekologikoak bildu, banatu eta logistika guztiak kudeatzeko gunea da Ekoalde. Noainen du egoitza eta 55 ekoizleren produktuak eskaintzen dizkie bezeroei

G. PIKABEA ETXALAR

Nafarroako elikagai ekologikoen eskaintza antolatzeko bidean bertze urrats bat izan da Ekoalde. Joan den martxoaren 15ean aurkeztu zuten Nafarroako ekoizpen ekologikoa bildu, banatu eta logistika guztia kudeatuko duen gunea eta gelditu gabe lanean ari dira geroztik. Noainen dute egoitza eta tartean dabil Hasier Iratzoki Altzuguren etxalartarra. Ekoaldeko koordinatzaileetako bat da.

Nolatan sortu zen Ekoalde?

2018ko urte hasieran, Nafarroako Nekazaritzako Produktzio Ekologikoaren Kontseiluak (NNPEK), Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutuak (INTIA) eta

Nafarroako Nekazaritza Ekologikoko Enpresen Elkartek (AEN) lehenbiziko sektorean zein behar eta lehentasun zeuden aztertu ondotik, merkaturatzeko arazoak zituztela ikusi zuten eta horren inguruan proiektu bat sortzea erabaki zuten. Proiektu pilotuak aitzinera eramateko Landa Garapenerako Programatik (LGP) dirulaguntza lortu eta martxan paratzea erabaki zuten. Hasiera hartan, biltegiatze-zentroa sortzea zen asmoa, baina gerora forma hartu eta Ekoalde izena hartu zuen. Nafarroako ekoizle ekologikoak biltzen dituen irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Oraingoz 55

ekoizle daude, eta pixkanaka jendea hurbiltzen ari da.

Zein dira Ekoalderen helburuak?

Alde batetik, egunerokoan lana erraztea da helburua eta bertetik, orain arte sartu ahal izan ez diren tokietan sartzea. Batez ere tikiak direnak nahi-ko baldintza prekarioetan ari dira eta produktu ekologikoak eta kalitatekoak eskaintzeaz gain, eskaerak kudeatu, garraio-lanak egin eta fakturazioa egitea ere tokatzen zaie. Ekoalderekin hori guztia erraztu nahi dugu. Eta bertetik, kolektibitateetara ailegatu nahi dugu. Hala, bezeroak ekoizleengana banaka joan beharrean edo alderantziz, ekoizleak bezeroengana banaka joan

beharrean, Ekoalderekin errazagoa izanen da bertako produktuak bertakoei eskaintzea.

Zer da eskaintzen duzuen?

Bezeroei Nafarroako produktu ekologikoen gama bat eskaintzen diegu, dena kontaktu bakarrarekin eskura dezakete eta ekoizleen prezioan. Gure bezeroak kontsumo elkartek, jatetxeak, ostatuak, hotelak, eskolak, jangelak... izanen dira. Hasiera batean bederen, azken bezeroari ez diogu zuzeneko salmentarik egiten, zirkuitu laburreko denden egoerakontuan hartu behar dela uste dugulako eta horiek ere zaindu nahi ditugulako. Oraingoz, asmoa hori da. Eta bertalde, ekoizleei lana arintzeko aukera eskaintzen diegu. Banaketa lanaz, eskarien kudeaketaz eta fakturazioaz arduratzen gara. Horrez gain, salmenta bide berriak irekitzeko aukera eskaintzen diegu, baita biltegiatze zerbitzua ere. Interesa duen edozein ekoizle egin daiteke bazkide.

Bazkide egitea ezinbertzekoa da?

Ekoizleen kasuan bai. Bezeroak bazkide egin edo ez eztabaia datu beharra dugu, baina momentuko helburua martxa hartzea denez, 2019an ez dugu halakorik egingen. Aurtengo emaitzen arabera ikusiko dugu 2020an bezeroei bazkide egiteko eskatuko diegun edo ez.

Ekoaldeko bazkide izateko baldintzak ekologikoa eta Nafarroakoa izatea dira?

Bai. Bete beharreko bi baldintzak produktuek NNPEKeko zigilua izatea eta Nafarroan ekoiztu edo lantzen dena izatea dira. Dirulaguntza publiko bat jarri den heinean, orain INTIA, NNPEK eta AENekin elkarlanean ari gara. 2020etik aitzinera harremana mantenduko badugu ere, egitasmo independentea izatea aurreikusi dugu, hau da, ekoizleek osatutako mugimendu autosufizientea izatea.

Zein da Ekoalderen antolaketa?

Otsailaz geroztik, bi langile gara, Iruñeko Aitor eta biok, eta hasiera honetan denetarik

egitea tokatzen ari zaigu: komunikabideekin egon, eskariak kudeatu, banaketa egin, ekoizleekin tratua egin, bezeroak bilatu... Dirulaguntza lortu genuenez, 2019a galerarik gabeko urtea izateko aukera izanen dugu. Pausoz pauso ari gara eta oraingoz, martxa hartu nahi dugu eta horrek eskulan gehiago eskatzen badu, gehiago hartuko dira. Ikusiko dugu. Horrez gain, junta bat ere badago. Produktu-familia bakoitzetik ordezkari bana hartuta, borts lagunek eta bi langileok osatzen dugu junta. Gisa horretara, bakoitzaren kezkak eta partikularitasunak biltzeko aukera dugu. Juntak hori transmititzen du. Guk egiten dugun lana juntaren oniritziarekin eginga da, adostutako urratsak dira. Borts familia horiek produktu landuak, barazkiak, haragia, kontserbak eta esnekiak dira.

Nolako balorazioa egingen zenuke orain arte egin duzuen ibilbideaz?

Ona. Gure helburua 30 ekoizlerekin hastea zen eta ekoizleak erakartzeko eginahal berezirik egin gabe 55 direla ikustea seinale ona da. Horrek gure proposamena indartu egiten du. Maiatz erdialdera hasi ginen banaketak egiten eta web orria ere martxan paratu dugu bezeroek eskaerak online egiteko aukera izan dezaten. Telefonoz eta e-postaz ere egin daitezke. Baina eskaera handia izanez gero, mugak ditugu, aipatu ditugun bi argumentu garrantzitsu ditugulako proposamenean: ekologikoa eta Nafarroakoa izatea. Horrek produktu mugatuak direla erran nahi du. Baina eskaria baldin bada eta jendeak estimatzen badu, ekoizle berriak sartzeko aukera handiagoa izanen da eta akaso, ekologikoan ari ez direnak ere ekologikoan hastera animatuko dira. Klik garrantzitsua izaten ahal da.

Zein da ekologikoan ari diren Nafarroako ekoizleen egoera?

Orokorrean, lehenbiziko sektorearen egoera prekariora da

eta Nafarroan lehenbiziko sektorean ari direnen adinaren bana bertzekoa 55 urtekoa da. Horrek hemendik hamar urtera ez dela hamarretik bat izanen erran nahi du. Arriskua sekulakoa da, zaila baita zerbait desagertu ondotik berriz berreskuratzea. Sektorea ekonomikoki ez da bideragarria, ez da baldintza duinetan bizitzeko bidea. Ekologikoaren kasuan, produktuaren kalitatea bermatzeko eta nolabait balio erantsi bat erakusteko bidea izan daiteke. Lanbidea duindu eta bideragarria izateko balio lezake. Eta argi dago lehenbiziko sektoretik bizimodu duin bat ateratzeko aukera izanez gero, aunitzek afizio bezala dutena zerbait gehiago bihurtuko liratekeela eta jende gaztea edo jende gehiago hurbilduko litzatekeela. Baina, orain, egoera txarra da, beheiti doa eta funtzionatu dezan piezak mugitu behar dira. Ekoalde Nafarroa-

«EKOIZLEEI EGUNEROKOA ERRAZTU NAHI DIEGU»

ko lehenbiziko sektorean ekologikoan ari diren ekoizleei aterabide bat emateko saiatu bat da. Ea laguntzen dien.

**Kontsumo aldetik zein da egoe-
ra?**

Duela 20 urte ekologikoan aritzeak ez du deus ikustekorik gaur egun aritzearekin. Jendea kontzientziazten ari da; erdi engainatuak bizi garelako ohartzen ari da eta saltzen dutena ez dela erraten dutena. Horren seinale, eskaera gero eta handiagoa da. Jendeak hurbileko produktuak eta ekologikoak eskuratzeko hautua egiten du eta administrazio publikoaren aldetik ere jarra aldaketa ikusten da. Udalek, guraso elkarteak... eskoletan bertako produktuak sartzeko interesa dute eta alde horretatik, kezka edo kontzientziazio puntu bat sumatzen da. Horregatik, guk, azpitik, gure bidea egitea eta administrazio publikoak portzentaje tiki bat bertako produktuetan inber-

«PRODUKTU EKOLOGIKOEN ESKAERA GERO ETA HANDIAGO DA»

tituz goitik berea egitea gakoa izan daiteke. Arazoa moldatuko litzateke. Azken batean, prezio duinetan salmenta bermatuko luke eta horrek sektorea egonkortuko luke. Orain arte, irizpide bakarra prezioa izan da, baina kalitate faltak bere ondorioak ditu, eritasunak, bertzeak bertze. Jendea horretaz konturatzen ari da.

Eskualdearekin zein harreman duzue?

Bidazirekin harreman estua dugu, eta horrez gain, eskualdeko eskoletara eta dendetara joateko asmoa dugu; bertako produktu ekologikoekin lan egin nahi duten eskainiz. Horrez gain, Ekoalderen barranean dauden ekoizleetako batzuk eskualdekoak dira.

Etorkizunera begira zein dira erronkak?

Hasteko, hutsetik hasitako proiektua denez, guttieneko oreka lehenbailehen aurkitzea da erronka. Horrez gain, eskaerak eta eskaintzak kudeatzeko gai izatea nahi dugu, kalitateko zerbitzua eskainiz. Pixkanaka-pixkanaka ari gara eta hala izan dadin saiatuko gara. Anbizio handiko proiektua denez, poliki-poliki egin nahi dugu aitzinera.

Sinesten duen zerbaiten alde lanean

Hurbileko produktu ekologikoaren mundua ez da arrotza Iratzokirentzat. Urte saila eman ditu Bidazi Bidasoaldeko Kontsumo Elkartearen lanean. Kontatu digunez, «lehenagotik ohiko enpresa batean» aritu zen lanean, baina «hori ez zela niretzat ikusi nuen». Lehenbiziko sektoreak «betitik» erakarri izan omen du; horixe omen da «gustuko» duena: «modu jasangarrian egitea, ekologikoan, kopuru proportzionalan, tokian tokikoak kontsumitzea...». Bere irudiko «logikoa» hori omen da,



nahiz eta «gaur egungo egoeratik urruti» dagoen. Bidazin sartu zenetik «pixkanaka-pixkanaka jendea ezagutu» du eta Ekoalden parte hartzeko aukera sortu zaio: «gazteak garenez eta gogo pixka bat

dugunez, aukera sortu zitzaidanean sartzeari erabaki nuen». Ez da damutu hartutako erabakiaz, «kontent» dagoela aitortu baitigu.

«Beti egiteko mila gauza» izaten badira ere, «jende interesgarria ezagutzen» ari dela dio, eta «erronka pertsonal» moduan hartua du. «Ez dut sekula pentsatzen lan batean zenbat denboraz egonena naizen. Kasu honetan, sartu naizenean baino pixka bat hobeki uzten ahal badut eta sinesten dudana zerbaiten alde nire ekarpena egiten badut, kontent geldituko naiz».



Zerbitzuak mugikortasuna bermatzea du helburu. BERTAN BAZTAN

Baztan alderik alde autobusez

Maiatzean abiatu zuten Bertan Bus zerbitzua eta urrira bitarte, behintzat, martxan izanen da. Ondotik, erabileraren arabera, zerbitzuarekin segitu edo eten erabaki beharko dute. Erabiltzaileak «arront kontent» daude eta «pixkanaka herritarrek animatzea» espero dute

N. BAZTERRIKA BAZTAN

Herritik eta herritarrendako sortutako garraio-zerbitzua da Bertan Bus. Ez da gauetik egunera abiatutakoa, ezta besoak gurutzatuta lortutakoa ere. Bertan Baztango kideek, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz eta gogotik lan eginez, garatutako proiektua da. Maiatzaren 7an jarri zuten martxan eta, orduz geroztik, astean bitan Baztango lurretan barrena ibiltzen da: «asteartetan Baztangoiz aldera eta asteazkenetan Basaburua eta Erberean barrena eskaintzen du zerbitzua. Alde bakoitzera bina bidaiak egiten ditu: bata goizean eta bertzea eguerdian. Hala, joateko eta bueltatzeko aukera bermatu nahi izan dugu». Gutenez urrira bitarte, «proba-fasea» izanen dute eta hilabeteotako «erabileraren

arabera» erabakiko dute etorkizunean «segitu edo eten».

Dirulaguntza, zerbitzuaren funtsa

Hitzetik egitera, bide luzea egin dute Bertan Baztan merkataria eta zerbitzu elkarteak lagunek. Angel Arraztoak adierazi digunez, «orain dela hamar urte halako garraio-zerbitzu bat jartzeaz» mintzatu ziren: «jendea barrideekin etortzen zela sumatuta, bakarrik etortzeko modurik ez zutela pentsatu genuen». Behar hori asetzeko eta askatasuna eskaintzeko lanean hasi ziren: «Udalarekin hartu-emanen ibili ginen». Dena dela, ez zuten aitzinera egiterik izan: «dirulaguntzarik ez zegoenez, uztea erabaki genuen».

Joan den udaberrian berrartu zuten gaia «Europatik ema-

ten dituzten dirulaguntza batzuk lortzen saiatzeko». Laguntza horiek lortu eta «autobus elektriko bat paratzea» pentsatu zuten, baina asmo hutsean gelditu zen: «azkenean bertan beheiti utzi genuen kontua. Autobus horiek handiegia ziren; tikiak, berriz, urbanoak, zutik ibiltzekoak izaki, ez ziren herriz herri ibiltzeko modukoak».

Urrian, berriz ere, hautsak harrotzen hasi ziren. «Nafarroako Gobernuak merkataritza alorrerako dirulaguntza bat atera zuela ikusi genuen eta horri heldu genion». Berezioendako zerbitzuei bideraturiko laguntza zenez, «haiek Elizondon, Erratzun, Iruritan... dauden Bertan elkarteak denetara» bertaratzeke helburua gehitu zieten bueltara zera-biltzen zerbitzuari. Itsu-itsuan,

«memoria bete eta aurkeztu genuen».

Helburu komertzial eta soziala

Dirulaguntza onartu bezain agudo hasiziren lanean: «baiezkoa 2018ko hondarreko egunetan eman ziguten eta orduan hasi ginen zehazten, proba egin eta emaitzak aztertzeko herritarren jarrera ikustea bezalakorik ez dagoelako». Maiatzaren 7an inauguratu zuten eta lehendabiziko hilabetean 30 erabiltzaile inguru izan zituen: «eguneko, bana bertze, hiruzpalau lagun». Aurreikuspen «apalak» zituztenez, ez zuten ezustean jaso datua: «hasierako hilabeteak, jendeak zerbitzua ezagutu eta bertzeek erabili dutela jakin arte, zailak izanen zirela bagenekien».

Pasa dute hasmentako trantzea eta urrira bitarte astean bitan harat-honatean ibiliko da autobusa: «asteartetan Baztangoiz aldera (Lekaroz-Amairu-Azpilkueta-Erratzun-Arizkun) eta asteazkenetan Basaburua eta Erberearantz (Irurita-Ziga-Aniz-Berroeta-Almandoz-Mugairi-Arraioz-Gartzain)». Ibilbide bakoitzean bi bidaiak, hau da, joan-etorria, egiten du: «goizean herrietatik Elizondora eta eguerdian Elizondotik herrietara». Horrela, «mugikortasunik ez dutenei elkarteko denetan erosketak egiteko aukera eskaintzearekin batera, herritarrek udaletxera, banketxera, barridea bisitatzea



«ETORKIZUNA HERRITARREN ESKU DAGO»

ANGEL ARRAZTOA (BERTAN BAZTAN MERKATARI ELKARTEKO KIDEA)

edo bertze edozertara joateko garraioa izaten dute». Horrekin batera, «auto pribatuaren erabilera murriztea» ere lortu nahi lukete, baina hori «zailagoa» dela diote: «Bertan Busak ordutegi eta ibilbide mugatua du eta anitzetan ez dugu horretara egokitzeko aukerarik». Kontuak kontu, momentuz «gazteak edo adinekoak, gidabaimenik gabeak» dira itxaropenaren giltza: «gazteek udan lagunartean biltzeko edota igerilekura joateko garraio-zerbitzua baliatu ahal dute».

Herri ttikiendako «erreminta»

Ageriko helburu eta erronka horien guztien gainetik, Arraztoak halako zerbitzuek herri ttikiei egiten dieten ekarpena nabarmendu nahi izan du: «bereziki haien zat erreminta bat da. Seme-alaba gaztetxoak dituzten gurasoek, erraterako, eskolaz kanpoko jarduerak direla eta, goiti eta beheiti bueltara ibili behar izaten dute». Are gehiago, «zerbitzua zabalagoa balitz, herrian bizi eta herrian kontsumitzeko erraztasunak aise gehiago izanen lirake» bere ustez. Mugak muga, «abiatutakoa halako zerbitzuak beharrezkoak diren edo ez ikusteko proba bat baino ez da».

Sei hilabeteren buruan, zirt edo zart

Bertan Baztaneko kideek, proba-faseko datuak esku artean dituztelarik, segitzeak merezi duen edo ez aztertuko dute: «erabiltzaileen esku daude emaitzak eta emaitzen arabera erabakiko dugu zerbitzuaren etorkizuna». Hitzak baino ekintzak behar dituzte: «herriar guztiek ideia ona dela diote baina ados egoteak ez du balio erabiltzen ez bada». Horren arabera, aukerak bi dira: «sei hilabeteotako datuak onak badira, egun eta ibilbide gehiagotara zabaltzeko aukerari helduko diogu. Martxarrik ez badu, eten egin beharko dugu».

Beraien aldetik eta «hilabeteen 1.000 euro inguru» kostatzen zaiela kontuan hartuz, argi dute: «laguntzarik gabe ezin dugu mantendu». Laguntzak jasotzeko, berriz, «erabileraren beharrezkoa» dela erakutsi behar da. Hori ikusiko balitz, eskua luzatu eta laguntza eskainiko diete: «emaitzak itxaropentsuak badira, Udalak zerbitzua urte hondarrera arte mantentzeko asmoa adierazi du». Norberaren esku dago erabakia: autobusera goititu edo pasatzen utzi.

Bertan BUS 1 Asteartea				Bertan BUS 2 Asteazkena			
09:25	ELIZONDO	14:00		09:30	ELIZONDO	14:05	
09:30	LEKAROS	13:50		09:35	IRURITA	14:00	
09:40	AMAIUR	13:40		09:40	Zigaurre	13:55	
09:50	AZPILKUETA	13:30		09:45	ZIGA	13:50	
09:55	Ordoki	13:25		09:50	ANIZ	13:45	
10:00	ERRATZU	13:20		09:55	BERROETA	13:40	
10:05	Bozate	13:15		10:05	ALMANDOZ	13:30	
10:10	ARIZKUN	13:10		10:15	MUGAIRI	13:20	
10:15	Bergara	13:05		10:20	ARRAIOZ	13:15	
10:20	ELIZONDO	13:00		10:25	IRURITA	13:10	
				10:30	GARTZAIN	13:05	
				10:35	ELIZONDO	13:00	



Bertan Busaren ibilbidea eta ordutegia.

«Gazteok askatasuna eta gurasoek lasaitasuna dugu Bertan Busari esker»

KATIXA OSPITAL, UXUE REKARTE, HARITZ ETA IKER ITURBURUA ERRATZUARRAK



Ikasturtea akitu berritan, «egunerokoarekin hausteko eta lagun artean goiza Elizondon pasatzeko» erabili zuten lehen-dabizikoz zerbitzua Erratzuko Katixa Ospital, Uxue RekarTE eta Haritz eta Iker Iturburuak. Orain arteko joan-etorriak ez bezalakoa izan zen hasmentako hura beraiendako, «gurasoak ekarri eta eraman beharrik gabe» moldatu zirelako.

Zerbitzua, egiten dien ekarpenarengatik, begi onez jo dute: «horrela nahi dugularik denbora-pasa joateko edo lagunekin gelditzeko erabili ahal dugu». Inguruko herritarrekin eta lagunekin «harremanak mantentzeko edota jendea ezagutzeko» aukera ere argi ikusten dute.

Gurasoei eskaka ibili gabe joateko modua izatea «izugarrizko abantaila» delakoan daude. Izan ere, horrela, «egun bat fiteago plana egitea aski zaigu». Garraiobidea izateak «askatasuna» ematen die: «ez dugu inoren menpe egon behar eta gurasoak ere lasai egon daitezke». Alde horretatik, beraientzat ere «onuragarria eta erosoa» dela diote: «ez dute gure ordutegiei begira aritzeko beharrik».

«EZ DUGU DEUS GALTZEKO ETA, ZERBITZUA ERABILIZ GERO, MANTENTZEA LORTU AHAL DUGU»

Herritarrei deia

Beraiek argi dute: «Elizondora edo inguruko herriren batera joan nahi dugunean erabiltzen segituko dugu». Badakite, zerbitzua mantentzeko erabili beharra dagoela eta gonbidapena luzatu nahi izan dute: «ez dugu deus galtzeko eta anitz dugu irabazteko».

Mugak gaindituz

Gidabaimena dutenen kasuan, «zerbitzuaren mugak» nabarmendu nahi izan dituzte: «gu ordutegi horretara moldatzea errazagoa da, beharra dugu-lako». Beraien pareko ikusten dituzte gidabaimenik ez dutenak ere: «guri bezala, haiei ere zerbitzuak mugikortasuna eta askatasuna eskaintzen die». Gainerako helduen kasua bertzelakoa dela uste dute: «haiendako denbora tarte ttikian egin beharreko mandatuertarako edo halako kasu jakinetarako bakarrik da baliagarria».

Dena dela, aukera dagoen kasu horietan, erabiltzera animatuko lituzkete. Izan ere, «gasoliorik ez gastatzeaz gainera, guttiago kutsatu eta ingurumena zainduko dute».



Jon Abril izendatu dute Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusi. ELHUYAR

Jon Abril da Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia

2012az geroztik Elhuyar Aholkularitzako kidea da, euskararen eta partaidetzaren alorretan, eta gogotsu heldu dio erronkari

TTIPI-TTAPA

Jon Abril Olaetxea Elhuyar Fundazioaren zuzendari nagusi izendatu dute. Azken zazpi urteotan ardura hori izan duen Leire Cancioren lekukoa hartu du beratarrek. Erronka berriei heltzeko beharra azpimarratu du: «klima-aldaketaren aitzinean, erakunde berdeagoa izateko konpromisoa» hartu behar dutela adierazi du, eta «emakume eta gizonen arteko berdintasunean erakunde gisa ematen diren urratsetan sakontzen segitu» behar dela. Elhuyarrek «euskal gizarteak

aitzinean dituen erronkei adi» jarraitu behar diela azaldu du, «horiei etengabe erantzuteko gaitasuna erakutsiz, dela euskararen alorrean, dela hizkuntza-teknologietan edota zientziaren dibulgazioan». Elhuyarrek gizarteak dituen erronkei heltzeko dituen «balio sendoak» ere azpimarratu ditu.

KAZETARITZAN, KULTURGINTZAN ETA POLITIKAN ARITUTAKOA DA

Ibilbide Ilaburra

Jon Abril Olaetxea Beran sortu zen 1975ean. Komunikazio Zientzietan lizentziaduna da eta Euskal Ikasketak eta kultura zientifikoaren pizgarria eta Gizarte Hezkuntza eta Gizarte eta Kultur Animazioa graduondokoak ditu, eta Hizkuntza aniztasunaren kudeaketa enpresa eta integrazio-rako politikan eta Kultur eta Arte Erakundearen Zuzendaritza eta Kudeaketa aditu-ikasketak eginak ditu.

2012az geroztik, Elhuyarren aritu da lanean, euskara- eta partaidetza-alorretako aholkularitzako teknikari-lanetan. Azken lau urteotan, Partaidetza eta Berrikuntza Sozialeko lantaldearen koordinatzailea izan da. Aitzinetik bertze hainbat lanetan aritutakoa da: kazetari gisa hainbat hedabidetan, tartean, TTIPI-TTAPA TELEBISTAN, Xorroxin Irratian edota Euskaldunon Egunkarian. Gaur egun, TTIPI-TTAPA aldizkari kolaboratzailea da; Berako Udaleko kultura-teknikaria izan zen; eta politikan ere aritutakoa da, Berako alkateorde eta Aralar alderdiko koordinatzaileorde. Horrez gain, euskararen eta kulturaren esparruetako herri-mugimendu ugarietan dabil. Euskal Herriko eta Nafarroako bertsolari-txapelketetako epailea da, idatzizko hainbat lan argitaratu ditu, eta, ikus-entzunezkoetan, *Neskatoak* dokumentala zuzendu du, bertzeak bertze.

Babes ofizialeko zortzi etxebizitza eginen dituzte Kaxernagainan

TTIPI-TTAPA

Kaxernagaina-Suspelttiki inguruan, errentan emateko babes ofizialeko zortzi etxebizitza egiteko lehiaketan, *Haika* izeneko proposamena izan da irabazlea eta egileak, Jokin Lizasoain eta Mikel Sagarminaga arkitektoak izan dira. Uztailean, udaletxean gauzatze-proiektua aurkeztuko dute, obra-baimena eskatuz. Urtebetean eraikuntza-lanak bukatzea da asmoa.

Kaxernagaina Suspelttiki inguruan Berako herriaren 918,33 metro koadroko lur-saila doan utzi zion iaz Nabusinsa enpresa publikoari Udalak. Josu Iratzoki alkateak eta Nafarroako Gobernuko Giza Eskubideetako presidentordea zen Miguel Laparrak martxoaren 28an sinatutako hitzarmenaren arabera, babes ofizialeko zortzi etxebizitza eraikiko dira eremu horretan, errentan emateko.



Proiektuko etxebizitza baten irudia.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

MARTIKO
Dasta ezazu!
DENDA ORDUTEGIA Asteleheneretik-ortziralerara 08:00-17:00
Martiko. Zalaín Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

Gavarnie eta Taillonera irteera uztailaren 13an

Agerra Mendi Taldeak eta Manttaiek antolatuta dute bi urtero bezala, Pikabea, Zubieta eta Saralegiren omenez

TTIPI-TTAPA

Bi urtero bezala, Agerra Mendi Taldeak eta Manttaiek mendira irteera bat antolatuta dute Gavarnie-Bujaruelo eta Taillonera, Pirinioetan. Txango hau uztailaren 13an egingen da etanahi duten guztiek parte hartzen ahal dute.

Agerra Mendi Taldeak eta Manttaiek bi mailako bi irteera prestatu dituzte. Bietatik eramangarriena Gavarnie herritik aterako da Bujaruelo lepora igotzeko, lau ordu inguruko ibilbidea eta 600 metroko desnibelarekin.

Bertze aukera, gogorragoa, Tentesko lepotik aterako da, Bujaruelotik pasa eta Saradetsako aterpetxera joateko. Bertatik Errolanen Arraila edo Bretxa igoko dute eta hortik Taillonera. Itzulera bide beretik izanen dute eta sei ordu inguruko iraupena eta 1.200 metroko desnibela egingen dutela kalkulatu dute. Ondotik, bi martxetako partaideak



Taillonera bidean, duela bi urte.

Bujaruelon elkartuko dira, Taillonon zendutako Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi mendizaleen omenezko oroitarrian. Omenaldiaren ondotik, Gavarnie herriaren ondoan bazkaria egingen dute.

Txangoa larunbatean 05:30ean aterako da Iamoteneko aparkalekutik eta 21:00-22:00etarako iritsiko da berriz Berara bueltan. Prezioa 15 eurokoa da (autobus, bidaia eta bazkaria barne).

Izen-ematea Pikabea harategian eta Agara prentsa-dendan egin behar da.

Danborradarako izena emateko epea uztailaren 19an bukatuko da

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan bestetan berreskuraturako danborradak izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere danborrada egingen dute. Abuztuaren 4an, igandearekin izanen da, 12:30ean hasita. Lixioia, Errekalde, Xuga eta Katakua ostatuetan eman daiteke izena, uztailaren 19a bitarte (ortziralea).

Erran bezala, abuztuaren 4an, ortziralean, 12:30etik

abiatuko da danborrada Herriko Etxeko Plazatik eta Alzateko plazara joan dena. Izena ematerakoan sei euro ordaindu behar dira, gosaria eta danborraren truke. Ensaioak, berriz, uztailaren 26an (ortziralea) eta 29an (astelehena) egingen dituzte Herriko Etxeko Plazan, 20:00etan.

Gutierrez 40 lagunek izena eman beharko dute danborrada atera dadin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bestaberri eguna indarra hartzen

Bestaberri Eguna poliki-poliki berreskuratzen ari dira herrian. Ekainaren 23an, Alzate karrika eta etxe aitzinaldeak ederki apaindu zituzten bizilagunek eta musika bandarekin karrikaz karrika ibili ondotik, txistularien doinupean herriko bandera dantzatu zuen Andoni Andueza.



UTZITAKO ARGAZKIA

Izaki Gardenak kontzertuan

Kultur 2019 egitarauaren baitan, kontzertua eskaini zuen Izaki Gardenak taldeak ekainaren 27an Herriko Etxeko Plazan. Ortzegun buruzuria eta bero sargoria izan arren, adin guztietako jende aunitz bildu zen. Musikarien artean, Joseba Baleztena (Joseba B. Lenoir) gitarra-jolea zegoen.



Sanferminen ondotik uda-pasako jokoetan hasiko dira ttikienak

Dindaiaren udalekueetan, Eskol-Ttiki ludotekan eta Erriberako Futbol Eskolaren kanpusean izena eman dute neska-mutikoek

AITOR AROTZENA

Lerro hauek idazterakoan oraindik hasi gabe, baina al-dizkaria eskuetan hartu orduko sanferminak bukatuak izanen dira. Egun batzuetako atsedenaldiaren ondotik, uda-pasako jokoetan murgilduko dira herriko neska-mutikoak eta herrira datozenak.

Bortzirietako Euskara Man-komunitateak Dindaia Fundazioarekin batera antolatu dituen udalekueetan 20 neska-mutiko ariko dira uztailaren 15etik abuztuaren 9ra, bi begiralerekin.

Udalak antolatutako Eskol-Ttiki ludotekan ere 2 eta 12 urte arteko hainbat haur ariko dira uztailaren 15etik abuztuaren 30era.

Erriberako Futbol Eskolak ere azken hemezortzi urteotako ohiturari eutsiko dio eta



Beti Gaztekoak Futbol kanpusean iaz.

bi txandatan kanpusa egingen du herrian. Hilaren 15etik 21era hamaika-hamabi urteko 85 neska-mutiko espero dituzte, tartean Beti Gazteko hamar bat. Hurrengo astean, hilaren 22tik 28ra 62 neska-mutiko izanen dira, tartean Beti Gazteko dozena bat. Kultur Etxean hartuko dute ostatu eta goizetan Mastegin futbolarekin lotutako jokoak eta ariketak egin ondotik, arratsaldetan bertze zereginetan ariko dira.



MAITANE IBARRA

Sua, euskara eta dantza uztartuak

San Juan bezperan Euskara Batzordeak *Euskara mingain dantza* goiburupen antolatutako jaialdi jendetsuan sua pizteko ardura Garbiñe Sarasolak izan zuen, Tantirumairu euskal folklore taldearen izenean. Aitzinetik, trikitilariak eta bertsolariak aritu ziren eta manifestua irakurri zuten.



JON MARTINEZ

IV. Argazki Rallyko sariak eman dituzte

Beti Gazteko rallyko bildumarik onena Orioko Txomin Riverak aurkeztu zuen eta Bortzirietako bildumarik onena, Fred Ramos herritarrak. Gaika, Mitxel Aizpurua (Lesakako karrikak), Arantza Rodriguez (bihurguneak), Raul Lopez (mugimendua) eta Fernando Anza (leihoak) dira sarituak.



ARANTXA AGIRRE

Hildako mendizaleen omenez Agiñan

Ekainaren 30ean, urtero bezala Agiñara hildako mendizaleen oroimenez mendi irteera berezia egin zuen Beti Gaztek. Aita Donostian gosalduta ekitaldia egin zuten. Apezaren solasen ondotik, Aurreksua ere dantzatu zuten bi dantzarik. Ekitaldia bukatuta, herrira bueltatu ziren mendizaleak.

BOXXONTA
JATETXEA
Egunero irekia
 + Egunko menua
 + Menu berezia
 + Karta
 + Banketeak
 Otsango, 1 - Lesaka - 948627519 / 948627503

Hemen erabili
kattagorria
 LESAKA
 948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
 OSTATU • JATETXEA
 Arratzubi Kalea 3
 31770 LESAKA
 T. 948 63 71 27

744 484 361
ttipi-ttapa

Herriko bestek badute kartela eta programaren azala

Zazpi lanen artean Martxel Larrazarena kartelerako eta Aimar Iparragirrerena azalerako aukeratu dituzte

IRUNE ELIZAGOIEN

Lehiaketara aurkeztu diren zazpi lanen artean, herriko talde ezberdinetako jendeaz osatutako epai mahaia Martxel Larrazaren kartela eta Aimar Iparragirreraren azala

aukeratu ditu 2019ko Andre-mari bestak iragartzeko. Kartel irabazlearen saria 50 euro eta Herriko Ostatuan bi laguntzako otordua izan dira; azal irabazlearena berriz, 100 euro.

Turismo Bulegoa zabalik uztailen eta abuztuan

Azken urteetan bezala, aurren ere Etxalarko turismo bulegoak ateak zabalduko ditu udan. Astelehenetik ortziralerara zabalik egonen da 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara (astelehen arratsaldetan itxita). Asteburuetan berriz, goizez, 10:00etatik 13:00etara. Bisita gidatuak ere eskainiko dituzte: aste tartez 19:00etan eta asteburuetan 13:00etan (3 euro pertsona bakoitzeko). Abuztuaren 14tik 18ra itxita egonen da.

Igeriketa ikastaroa egiten ari dira udal igerilekuan

Uztailaren 2tik 26ra, astearte eta ortzirale arratsaldetan, igeriketa ikastaroa egiten ari dira igerilekuan. 12 hurrek eman dute ikastarorako izena.

Ttapa Ttapa elkarrekin egitasmoa eskolan

Maiatz hasieran, haurrak *Ttapa Ttapa elkarrekin* egitasmoarekin eskolara lagunartean oinez joaten hasi ziren. Guraso batzuen laguntzari esker, herri sarrerako parkineta eta Antsolokuetatik bi kuadrilla elkartzen ziren goizero eta bidean lagun gehiago batuz 09:00etarako eskolara joaten ziren. Batez ere haurrek ohitura osasungarriak hartzea eta goizero eskola inguruan sortzen diren kotxe eta arriskuak ekiditea da egitasmo honen helburua. Irailtik aitzinera proiektuarekin segitu nahi dute.



Eskolara oinez. LEIRE OLAGARAI

Suaz gain, joareak, musika eta afaria San Juan bezperan

Suaren berotasunera, jende aunitz gerturatu zen plazara. Altxatak antolatuta, ilunabarrean herrian barna itzulia egin zuten joareak joz. Merienda-afaria egin zen frontoian. Ondotik, trikitilari eta txistularien musikaz alaiturik, su gainetik saltoka aritu ziren.



Su gainetik saltoka. AIMAR IPARRAGIRRE



MADDI ERREÇARET

Herriko dantzariak Toulousen

Ekainaren 22ko asteburua Toulousen pasa zuten Etxalarko zortzi dantzari eta musikarik. Bertako euskal jaietan parte hartu zuten larunbat eguerdian, dantza saioa eskainiz. Ilunabarrean kontzertuak izan ziren eta hiria bisitatzeko ere aprobetxatu zuten egonaldia.



PEDRO L. MERINO

Itsaso Elizagoien The Chieftans-ekin

Ekainaren 25ean Madrilgo *Noches del Botánico* festibalean kontzertu berezia eskaini zuen Carlos Nuñezen taldeak The Chieftains Irlandako musika bandarekin batera. Itsaso Elizagoienek ere aukera izan zuen beraiekin jotzeko. Uztailaren 4an Bartzelonako Pedralbes parkean ere jo zuten.



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Canabal eta Aldabek bolada onean segitzen dute

Bergaran irabazi ondotik, Oberena elkarteak ordezkatzuz Berria txapelketaren finala irabazi diote Tolosako Aurrerari

TTIPI-TTAPA

Lehengoa aipatutako Bergarako garaipen ederraren ondotik bertze bat lortu zuten ekainaren 22an Oian Canabal eta Joseba Aldabe herriko pilotariak.

Dakizuen bezala badira urte batzuk Euskal Herri mailan elkarteen arteko txapelketa jokatzeko delako, Berria egunkariaren izena daramana. Bada, aurten, Oberena elkarteak ordezkatzuz garaipena lortu dute

igantziarrek, Tolosako Aurrera taldearen aurka Hernanin jokaturako finalean. Bi elkar-teek partida bana irabazi zuten hasieran eta euren bizkarretan hartu behar izan zuten herriko pilotariak berdinketa hausteko erantzunkizuna. Partida ederra jokatu ondotik, irabazi egin zieten Elola eta Telletxeari 22-15eko emaitzarekin eta astegutiren barrenean bigarren txapela ekarri zuten etxera.

Zakarrak Bidasoa inguruan

Simonbaitako organikoen zaborte-giarekin dauden arazoak lehenetik kezkatua zeukan Herriko Etxea baina etengabeak dira gai honek sortzen dituen buruko minak. Trenbidearen bazterrean, Minetako parean, zakar mukuru handiak agertu dira, erreka-aren bi aldeetan. Arbazta zama handia bide-ondoan botatzeaz gain, artilea ere bota dute eta hau dena kezka-garria dela uste du Udalak.

Indartsu hasi da igerilekuen sasoia


Ekainaren hondarraldera egin duen beroak igerilekuetan sartzeko hartu behar diren txartelen salmenta hauspotu du. Uztailaren hasierarako 350 lagun baziren txartel horietaz jabetuak, hagitik kopuru polita. Bertzalde, 35 lagun dira uztailaren 8tik 26ra bitarte igerian ikasten ariko direnak, haurrak gehienak. 16:00etatik 17:30 arte hartuko dituzte klaseak, hiru taldetan banatuak.



OSKAR TXOPERENA

Sanjuanak giro ederrean joan dira

Aurten ekitaldiz beterik joan dira ekainaren 22, 23 eta 24ko egunak. Eguraldiak lagunduta giro ederra izan zen hiru egunez, Biltokik larunbatean antolatutako ekitaldietatik hasi eta astelehenean San Juan Xarren izan zen bestarekin akautu arte. Aipamen berezia merezi du San Juan bezpera arratseko antolaketa hartu duen indarrak. Zoragarria izan zen herriko gazteek eta antzerki taldeak suaren inguruan eskaini zuten ikuskizuna.



F. LANCHAS


Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN

 Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

 T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
 j.mihura@hotmail.com

Emakumearen Baratzeko urteurren besta hilaren 20an

Antzerkia, musika, bertsoak eta dantza nahastuko dituen emanaldia prestatu dute

NEREA ALTZURI

Uztailaren 20an, larunbata, Emakumearen Memoriaren Baratzearen urtemugako besta ospatuko dute. Emanaldian emakumeen historiak izanen dira abiapuntu eta ardatz eta herrian barna ibilbide bat egingen dute. Arantzako, inguruko eta kanpoko aktoreak, musikariak, bertsolariak, dantzariak... izanen dira partaide eta ibilbideari baratzeari emanen diote akabaila, dantza adierazpen baten bitartez.

Besta behar bezala atera dadin, auzolanean dabilta azken

egunotan. Joan den astean baratzeari garbitu zuten; aste honetan garbiketarekin segitu eta neguko baratzak landatzen ariko dira; eta uztailaren 17an, urteurren bestarako prest jarriko dute baratzeari. Horretarako 09:30ean bilduko dira, baratzeari bertan. Parte hartu nahi duenak 600 39 31 93ra deitzen dezake. Uztailaren 20an, berriz, 12:00etan Herriko Plazan egingo dute hitzordua. Egun horretan hazi, landare edota emakume baten historia baratzeari eramateko aukera izanen da aipatu telefonora deituta.

Egundaino baino haur gehiago udalekuetan

Arrakasta handiarekin, joan den astean 40 haur hasi ziren udalekuetan. Uztailaren 26a arte 10:00etatik 13:00etara bilduko dira eta hainbat jarduerari egingen dituzte. Nerea Perez del Notario, Arantxa eta Maialen Larrañaga eta Xabier Bengotxea dituzte begirale.

Idazkaria hartzeko prozesuak aitzinera segitzen du

Azken 21 urteotan Arantzako eta Igantziko idazkari eta kontuhartzailea izan den Mari Jose Larraiozek idazkari izateari utzi ondotik, bi udalak lanpostu hori betetzeko prozesuarekin ari dira. Interesatuak uztailaren 8a arteko epea zuten eskaerak aurkezteko.



I. UGALDE

San Juan sua

Hainbat xokotan bezala, herrian ere, San Juan suak biztu zituzten ekainaren 23an. Batetik, haur, gaztetxo eta guraso andana elkartu ziren Guraso Elkartek antolatuta parkean egin ziren afarian eta suan. Bertzetik, Martixenean ere kuadrilla ederra bildu zen afaldu eta ondotik suan saltoka ibiltzeko.



IRUNE TABERNA

Sei neskek jaunartzea egin dute


Argazkian beheko lerroan ageri diren Karmele Oiartzabal Iturria, Olaia Mindegia Taberna, Oihane Ariztegi Taberna, Alaitz Ibarra Bereau, Ainere Iguzkiagirre Irigoien eta Jenifer Burgete Veintimillak jaunartzea egin zuten ekainaren 23an. Eguraldi ederra lagun, aski ongi pasatu omen zuten eguna.



T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantz.net



aterpe
albergea jatetxea ostatua



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak


Exetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es





Guraso eta seme-alaben arteko jokoak izan zituzten parkean. MAIDER PETRIRENA

Ikasturtea agurtzeko jaialdia egin dute ekainaren 21ean

Datorren ikasturtean DBH Donezteben egingen duten hamahiru neska-mutikoei despedida berezia egin zieten

MAIDER PETRIRENA

2018-2019 ikasturteari bukara eman zioten eskolako haurrek ekainaren 21ean. Goiza ederki pasatu zuten jokoez gozatzen, gosaria eta nola ez urteroko emozioz betetako agurrak. Hamahiru neska-mutikok jada, 9 ikasturte herrian pasatu ondotik, datorrenean Doneztebeko Mendaurren ikastetxean hasiera emanen diete DBHko ikasketei. Horrez gain, bertze taldekoek ere beraien agur bereziak egin zituzten.

Arratsaldean, berriz, Guraso Elkartek antolatuta guraso eta seme-alaben arteko jokoez gozatzeko aukera izan zuten parkean, goitiko argazkian ikus daitekeen bezala. Ondotik bokata-jatea egin zen eta akitzeko bingoa eta zareen zozketak Fondan. A zer nolako giroa izan zen! Lehenik hiru zare eta 10 euroko bonoen zozketak egin ziren. Zareak Jone Iribarren, Ines Obregozo eta Mari Kruz Gorosterrazuri tokatu zitzaizkien. 10 euroko Bustitz Ostatua eta Ariztigain Kanpinekoa Rakel Urtzegiri, 10 euroko Fondako bonoa Txus Rekarteri, Ostizeko 10 euroko



Zareen irabazleak. MAIDER PETRIRENA

bi bonoak Maider Petrirena eta Jose Luis Iriarteri eta Lizuneko gazta Silbia Ezkurrari. Horrez gain Lizuneko gazta baten pisua gehien hurbiltzen zenak gazta zuen saria eta hau Alaitz Etxebestek eraman zuen. Bingoaren txanda ere ailegatu zen. Lehen txandako lerroa Mikel Bertizeri tokatu zitzaion eta saria Marisol dendako 10 euroko bonoa eraman zuen. Bingoa, berriz, Alba Arretxeak eraman zuen eta Amaia Ilea-paindegiko saria egokitu zitzaion. Bigarren txandako lerroa Hegoa Irazokik eraman zuen (M.Jesus Harategiko 10 euroko bonoa saritzat). Bingoa, berriz, Azu Carrorentzat izan zen eta Elgorriagako bainuetxe zirkuitua suertatu zitzaion.

Bestaberri eguneko prozesioa egin zuten ekainaren 23an

Ekainaren 23an eta denbora ederra lagun, urteroko Bestaberri-eguneko prozesioa egin zen. Urtero bezala, karrika nagusia lorez eta belarrez apaindua zegoen. Banderaren dantza ere dantzatu zuten bertze urte batez Florentino Gelbentzu Almandozek.



Prozesioa. NIEBES BIURRARENA



MIREN HERNANDORENA

Gaztetxoek bizikleta topaketetan gogotsu

Herriarteko bizikleta topaketek ere aitzinera egiten ari dira. Ekainaren 30ean Donezteben parte hartzeko aukera izan zuten herriko txirrindulari gaztetxoek. A zer nolako talde ederra aurkeztu zen. Pare bat aste lehenago Beran egindako topaketan eta lehenago Lesakan eta Iruritan ere izan ziren.



AINHOA ETXEBESTE

Illarregitarrekin bertso-afaria Bustitzen

Aitzinekoan, aipatu gabe utzi genuen, baina aipatzekoa da 45 lagun elkartu zirela joan den ekainaren 15ean Bustitz ostatuan egin zuten bertso-afarian. Leitzako Joanes eta Xabat Illarregi Marzol anaien bertsoez gozatzeko aukera izan zuten bildutakoek.

Elkarlana eta giro ona nagusi herriko bestetan

Ainhoa Sanzen familiari omenaldia egin zioten San Pedro Eguneko Trapatan dantzan

MARGA ERDOZAIN

Aurtengo bestek *momentiko* anitz utzi dizkigute. Norberak altxatuko ditu, norberak aukeratuko duen unerik hobereena, argazkitan zertzelada batzuk ikus daitezke. Balorazio orokorra eginda aipatu behar da egitaraua bere osotasunean bete dela auzolan erraldoiari esker. Dena da azpimarragarria, bezperako suzuria bota zenetik azkeneko *Gaixoa ni* burutu arte besten lekukoa goizez, arratsalde eta gauz pasatuta. Bortz eguneko ospakizun horiek txistu, gaita eta musikaren erritmoak izan ditu, norberak dantzatu du gustuko melodiararen arabera. Gure herrian dantzari harrobi bikaina dugula ere garbi gelditu da, kolore, erritmo eta koreografia bikainak aurtengoak ere. Bertze

une hunkigarria bezain txalogarria gure bertso saioa: bikain aritu ziren Julio, Onintza eta Xabat Maialenek jarritako gaiak jarraituz: Soto San Pedro zeruko zaindaria eta Illarregi eta Enbeita merituak egiten zeruan sartzeko...

Ainhoa Sanz gogoan

Bertze une hunkigarria San Pedro egunean bizitu zutena izan zen. Herri osoak, Mendi Abesbatzak eta trapatan dantzariak sentimenduz betetako dantzaldia eta omenaldia egin zioten Ainhoa Sanzen familiari.

Gazteak, aurorak, adinekoak, txikiak, guraso... den-denak elkarlanean ekitaldietan. Aurtengo ere lila gunea izan dugu eta *Desberdintasunek aberas-ten gaituzte, errespetuak elkartzen gaitu* leloa besten



Momentu ederrak utzi dituzte herriko bestek. UTZITAKOAX ETA ALICIA DEL CASTILLO

ikurra izan da. Mila esker guztioi eta mila esker bestaren bertze aldean egon zareten guztiei: karrikak garbitzen, luntzak prestatzen, oholtzak atontzen, arropa zuriak gar-

bitzen, otorduak prestatzen... Ikusten ez den lana egiten duzuenak zarete besten protagonistak. Dagoeneko hasi al zarete 2020 egitaraua prestatzen?

Igeriketa ikastaroa uztailaren 15etik 26ra bitarte

Bertze urte batez, aurtengo ere, igeriketa ikastaroa eskainiko dute Doneztebeko igerilekuan. Heldu den astelehenean, hileren 15ean, hasiko dituzte saioak eta hondarreko ostira-lean, 26an, bukatuko dituzte. Izen-ematea uztailaren 10ean ixtekoa zuten.



Abuztuan EGA eta C1 titulua eskuratzeko ikastaroa

IKA euskaltegiak, aurtengo ere, abuztuan EGA edo C1 titulua prestatzeko ikastaroa antolatu du. Era presentzialean edo autoikaskuntzaren bidez eskainiko da abuztuaren 5etik 30era. Interesatuak 948 45 15 55 telefonora deitu edo/eta *malerreka@ika-euskaltegiak.eus* helbidera deitu behar dute. Mankomunitateak bultzatutako doakotasuna programaren barruan dago ikastaro hau, beraz, Malerrekako biztanleek aukera dute debalde ikasteko. Ez galdu aukera, belarriak prest eta ahoak bizi!



DONEZTEBEKO ZERBITZU ETA MERKATARIEN ELKARTEA

Erakusleihen lehiaketan sarituak

Doneztebeko merkataria eta zerbitzu elkarteak erakusleihen lehiaketako sariak banatu zituen. Alde batetik, 5. mailako ikasleek idatzitako esaldien artean Naya Sarratearena saritu zuten. Bertzalde, erakusleihen lehiaketa Kukuka arropa dendak irabazi zuen; albaitari zentroa izan zen bigarren.



Hainbat ekintza eta bazkaria izan zituzten ikasturteari adio errateko. UTZITAKOA

Ikasturte bukaerako besta egin dute Pulunpa eskolan

Udaz gozatu ondotik, ikasle eta irakasleak irailean indarberrituta bueltatuko dira

ARKAITZ MINDEGIA

Ikasturtea borobiltzeko, kristoren besta antolatu zuten aurtengoan ere Pulunpa eskolan.

Goizetik arratsaldera bitarte ekitaldi andana prestatu zituzten. Goizeko lehendabiziko orduan, ttikienak DYAKo bost mediku eta erizainekin, taldetan banaturik, lehen sorospenak ikasi eta anbulantziaren funtzionamentua bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten. 3.mailatik 6.mailara bitarte Juan Karlos Pikabea margolariarekin aritu ziren koadroak pintatzen. 3.

mailakoek meta bat margotu zuten; koxkorragoek, berriz, zubi bat.

Besta giroan seigarren mailakoei agurra ere egin zieten. Hauek ipuin eta kamishibaiak eskaini zituzten eta ikusleen partetik txalo zaparrada galanta jaso zuten trukean. Bazkaria, aurpegi margoketak, jokoak... ere izan zituzten elkarrekin adio errateko aurtengo ikasturteari. Ikasle eta irakasleak, oporrez gozatu, irailean indarberrituta bueltatuko dira. Ea heldu den ikasturtearekin batera ikastetxeko lanak hasten diren...

Eguraldi ona aprobetxatzen ari dira

Herritarrak udaberri bukaerako eta uda hasierako eguraldi bikaina aprobetxatzen ari dira. Bertze lekuetan bezala, belarretan eta baratzetan fuerte ari dira lanean, neguan animalientzat bazka izateko eta etxeko produktuez gozatu ahal izateko.

Sanjuanetan suaren bueltan ibili dira

Sanjuan bezperan aurtiztar eta iturendarrak suaren bueltan saltoka aritzeko aukera izan zuten. Aitzinetik, indarrak hartzeko, afari autogestionatua egin zuten. Giro ederra izan zuten.

Igandean Beasaingo Marimurumendi maratoian parte hartuko du Ibai Berregik

ARKAITZ MINDEGIA

Ez da atzoko Ibai Berregi aurtiztarraren zaletasuna. Badira urte batzuk kirolean ari dela. Azken aldian, alde batetik bertera dabil mendi lasterketetan.

Aurten, dagoeneko bortz lasterketetan parte hartu du: Berako maratoi erdian, Iruriko duatloian (kasu honetan Aritz Perurenarekin osatu zuen bikote), Atarrabian Hirumendi Trailen, Lesakako mendi lasterketan eta Etxarri Aranazko Triku Trailen. Heldu den igandean, uztailaren 14an



Ibai Berregi. ARTXIBOKOA

bertze hitzordu bat izanen du: Beasaingo Marimurumendi maratoian parte hartuko du. Segur aski ez da parte hartuko duen azken lasterketa izanen. Eutsi gogor!



MARIA LARRETxea

Bestaberri-egunean prozesioa eta dantza

Ekainaren 23an ospatu zen Bestaberri-eguna. Goizeko mezan prozesioa ospatu zen; jaunartzea edota aingeru egin zutenak bertan parte hartuz. Eguerdian, zazpi dantzari bikotek dantza luzea dantzatu zuten. Galdutako ohitura berrartuta, ea datozen urteetan dantzatu eta errotzea lortzen den.



AINARA MINDEGIA

Hamar urtetan 80.000 lagun hartu ditu Balnearioak

Ekainaren 29an egin zuten urteurrena ospatzeko lehen elkarretaratzea, baina ekitaldi nagusia urrian izanen dute

TTIPI-TTAPA

Hamargarren urteurrena ospatzen ari da Elgorriagako Balnearioa. 2009ko urrian ireki zuten eta lehen ospakizuna ekainaren 29an egin zuten, langileak bilduz. Proiektua bultzatu eta sustatu zuen Jose Migel Galarregi, garai hartako alkatearen omenez oroigarria ere paratu zuten. Urte osoan egin nahi dituzte ospakizunak, baina ekitaldi nagusia urrian egingen dute.

Hamar urteotan 80.000 bat erabiltzaile pasatu dira Elgorriagako bainuetzetik. Horie-

tatik erditsuak gaua eman du instalazioetan, eta bertze erdiak, bainurako putzuak eta jatetxea erabili dituzte.

Bere garaian 10,2 milioi euroko inbertsioa egin zen garai bateko balnearioa zegoen lekuan berria egiteko. 6.000 metro koadroko eremuan, denara 75 logela dituzten hiru eraikin egin zituzten, jatetxea eta putzu-eremua. Handienak 400 metro koadro hartzen ditu. Uraren ezaugarriei dagokienez, litro bakoitzeko 310 gramo gatz ditu, «Itsaso Hilean baino gehiago».



Langileak eta bezeroak elkartu ziren ekainaren 29ko ospakizunean. FOTO ZALDUA



Ohorezko aureskua bainuetxearen sustatzaileari. FOTO ZALDUA

**AMETS BAT,
ILUSIO AUNITZ
10 urte**

**Mila esker zure bisitagatik
egunetik egunera hobetzen**

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)
T. 948 45 60 45 | www.balnearioelgorriaga.com

Billy & Bloomfish taldea eta Pottoka ostiralean herrian

Aurretik, 21:00 aldera, afaria egingen dute Errandonea ostatuko atarian

FERMIN ETXEKOLONEA

Heldu den ostiralean, uztailaren 12an, Billy & Bloomfish talde belgikarrak eta Pottoka musikari amaiurtarraren doinuak bateratuko dira herrian. Izan ere, biak uztartuz, kontzertua eskainiko dute Errandonea ostatuko atarian. 23:00etan dute hitzordua. Joan ezin dutenek biharamunean, uztailaren 14an, Elizondoko Itzalargiko bordan ere izanen dute aukera. Iluntzeko 19:00etan hasiko dira.

Zubietarrek, emanaldi hori aitzakiatzat hartuz, kontzer-



Errandonea ostatuko ataria.

tuaren aurretik, 21:00 aldera, Errandonea ostatuko atarian afaria egingen dute. Izena eman nahi dutenek bertara joz edo telefonoz deituz eman deza-kete izena.

Udako ludoteka zerbitzua martxan da herrian

FERMIN ETXEKOLONEA

Uztailaren ludoteka zerbitzua izanen dute herrian. Hilaren 1ean, lehendabiziko astelehe-nean, abiatu zuten zerbitzua Naroa eta Garazi Santesteban ahizpek eta abuztuaren 2ra bitarte bilduko dira. Astelehe-netik ostiralera, goizero,

10:00etatik 13:00etara (09:30-10:00 harrera, haurrak ailegatu arte) eskaintzen dute zerbitzua, eskolan. Guztira hamar haur inguruk eman dute izena eta jolasak, tailerrak, eskulanak eta bestelako ekintzak eginez, giro ederrean, pasatzen dute denbora.

Herriko festak antolatzen hasiak dira

Udalak joan den ostegunean, uztailaren 4an, herriko festak «denon artean» antolatu ahal izateko herritarrei bilera deia eginga zien. Guraso eta gazteekin biltzekoak ziren. Herriko estalpean zehaztua zuten hitzordua, 18:00etan eta 19:00etan hurrenez hurren.



IZASKUN ZUBIALDE

Salto eta dantza, San Juanen aitzakian

Bestaberri eguneko eta San Juan bezperako ospakizunak uztartu zituzten ekainaren 23an. Aurkeztutako 7 gaztetatik Martuzeneko Florita Loiarterena izan zen irabazlea eta Idirteko Migel Santestebanena bigarrena. Udari ongietorria arratsaldean dantzan eta gauean saltoka eman zioten.

Cristaleria BIDASOA
Tel. 943 61 30 63
Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN info@cristaleriabidasoa.com

Artisau azoka Erratzun eta Leurtzan uztailean

Uztailaren 13an Baztango herrian eta hilaren 20an Urroz eta Beintza-Labaien arteko urtegi inguruan bilduko dira

TTIPI-TTAPA

Baztan Bidasoko Argitsu artisau-elkarteak antolatuta, azokak izanen dira Urrozen eta Erratzun uztailean.

Bisitariak eskualdeko artisate egindako makrame-lanak, grabatuak, bitxiak, egur-lanak, postalak, xaboi eta ukenduak... ikusteko eta erosteko aukera izanen dute. Erratzun uztailaren 13an, heldu den larunbatean, zehaztu dute hitzordua. 11:00etatik 15:00 arte jarriko dituzte postuak, Leurtzan. Bien bitartean, tailerrak egingen dituzte eta giroa goxatzeko,

musika ere izanen dute. Erosleen artean saski bat zozketa-tuko dute.

Erratzun hilaren 20an

Hurrengo larunbatean, uztailaren 20an, Erratzun bilduko dira. Goiz osoz, 10:30etik 15:00etara, azoka ederra jarriko dute. Taloak dastatu bitartean, herritarrek postuz postu ibiltzeko aukera izanen dute. Batean zein bertzean, interesgune izan daitezken Leurtzako urtegia (Uroz) eta Xorroxin ur-jauzia (Erratzu) bisitatzeko aukera bikaina izanen dute.

Koltxoia lurrean bota dituzte Elgorriagan

Berrero ere herrian basura uzten hasia da jendea. Oraingo honetan koltxoia bota dituzte. Lerro hauen bidez, herritarrek «euren etxean nahi ez dutena herrian ez botatzea» eskatu nahi izan dute. Eskerrak neurri handiko hondakinen bilketa doakoa den...



Koltxoia lurrean. MATTIN LARRALDE

Elgorriagako bestetarako prest daude

Bestak ate joka dituzten honetan, Arretxeko Luisek hiru buruhandi, beraien arropa eta guzti, oparitu dizkio herriari. Udalean utzi dituzte. Herritarrek esker ona adierazi dute. Era berean, aurren herritarrek erabaki dute beste hasiera nork emanen dion.



Buruhandiak. MATTIN LARRALDE



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

DONEZTEBEN
neurritan egindako
etxebizitzak



Eskaintza Berezia

AUKERA BIKAINA!
3. pisu bat eta estudioa



Ikusi pisu pilotoa!

✓ Zure beharren arabera finantziatzea, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak





1.400 metro koadroko solairu bakarrean prestatu dute Doneztebeko Osasun Zentro berria. UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebeko Osasun Zentro berrirako aldaketa hilaren 17an

2,9 milioi euroko inbertsioa egin dute eta 5.338 bizilagun artatuko ditu, erradiologia zerbitzua ere eskainiz

TTIPI-TTAPA

Osasunbideak akitu ditu Doneztebeko Osasun Zentro berriko lanak eta laster zabalduko ditu ateak. Uztailaren

17an egingen dute oraingo osasun zentrotik berrirako aldaketa. Hortaz, egun horretan, larrialdi kasuak baino ez dituzte artatuko. Eta hori 948

45 60 01 telefonora deituta egingen dute. Hasieran osasun zentro zaharrean pasatuko dituzte kontsultak, eta aldeketa akitutakoan, berrian hasiko dira.

2,9 milioi euroko inbertsioa

1.400 metro koadroko solairu bakarreko eraikinean 2,9 milioi euroko inbertsioa egin dute eta 5.338 bizilagun artatuko ditu. Zentro honetan, lehen arreta, erretinografia, erradiologia eta errehabilitazio zerbitzuak eskainiko dituzte, azken hauek eskualde

osorako. Erabilera anitzeko aretoaz, erradiologia-aretoaz eta errehabilitaziorako gimnasioaz gain, 16 kontsulta ere izanen dira: hiru familia-medikuentzat, lau erizaintzat, bat pediatriarentzat, bat gizarte-langilearentzat, bi espezialdutako asistentziarako, gela bat kirurgia ttikirako, gela bat larrialdietarako, erauzketetarako eta proba osagarrietarako gela, estimulazio goiztiarreko kontsulta eta albaitariarendako bulegoa.

Erradiologia zerbitzua

X izpien ekipa moderno bat ere izanen dute Doneztebeko Osasun Zentroan, 200.000 euro inguru gosta dena. Honela, hemendik aitzinera erradiologia zerbitzua zuzenean bertan eskaintzeko aukera ematen dute, Iruñera joan beharrik gabe. Zerbitzu hau eskaintzen uda akabailan hasiko dira, ekipa guztia instalatu eta langileek formakuntza egiten dutenean.

Osasunbideak Nafarroako bortz Osasun Zentrotan paratu du erradiologia zerbitzua aitzineko legealdian, lehen arretako profesionalen ahalmena handitzea helburu duen programaren baitan.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

Jubilotekek ikasturte bukaera Ezkurran

Ikasturte honetan hemeretzi lagun ibili dira Ezkurran jubilotekean. Hainbat astetako atsedenaldiaren ondotik, abuztuaren 1ean paratuko dute martxan jubiloteka zerbitzua eta berriz gimnasia, memoria eta logika lantzeko ariketak egiten hasiko dira.



MIREN IRURTZUN

Beintza-Labaiengo eskolari agurra

Beintza-Labaiengo eskolari agur moduan besta ttiki bat egin zioten azken hamar urteotan eskolatik pasatu diren irakasle, ikasle, guraso eta udal ordezkariak ekainaren 27an. Eskolako ordezkariak orain arte ikastetxea izan den tokian ludoteka egitea proposatu dute.

Iturengo bestak 2019

egitaraua

Uztailak 18, ortzeguna

20:00etan txupinazoa. **Segidan**, kalejira herriko buruhaundi eta trikitilariekin.

21:00etan zopak Herriko Ostatuan eta afariak Altxunea erretegia. **00:00etan** dantzaldia Beñat Mitxelenaren eskutik.



Uztailak 19, ortziralea

10:00etan diana. **11:00etatik**

16:30era umeentzat kartsak eta puzgarriak. **13:30ean** haurren bazkaria (izen-imatea Herriko Ostatuan). **17:00etan**

haurren frontenis finala; ondotik, neskena. **19:00etan** herriko dantzariak.

21:00etan herri-afaria (paella jatea eta sagardo kupela). **Arratsaldez eta gauez**, dantzaldia Gabenarekin.



Uztailak 20, larunbata

08:30ean diana. **12:30ean** aizkora apustua: Iker Vicente eta Mikel Larrañaga.

Bitartean, urdaiazpiko eta gazta baten pisua asmatzeko lehiaketa. **14:30ean**

herri-bazkaria. **17:00etan** Burrunba elektrotxaranga. **Ilunabarrean** zingar jatea.

Arratsaldez eta gauez, dantzaldia Oharkabe taldearekin.




Uztailak 21, igandea

10:00etan diana eta mus txapelketa.

12:30ean haurrentzako piñata eta aurpegi margotzea. **13:00etan** toka txapelketa. **18:00etan** trial desafioa. **Ilunabarrean**,

zingar jatea eta sagardo kupela. **20:00etan** Txamukos taldearen eskutik, mexikar kantak.



Ileapaindegia
EIDEA
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445



ITURENGO UDALAK
besta zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

ITURENGO HERRIKO OSTATUA

Entsalada hotz eta epelak
Bildots errea
Arrain aukera zabala
Etxean egindako postreak
ITUREN 948 38 79 80

ALTXUEA ERRETEGIA
Kontsejo, 27 - ITUREN
T. 948 450 410

Castrol eguerditik igande eguerdira
Besta egunetan eta besta bazperetan
Uztailaren 1. Satik abuztuaren 30era,
egunero, astelehenak ezik



ONGI PASA
BESTAK

ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA




PVC
LEIHOAK

Merkatuko leihorik hoberenak
egiten ditugu!

6 kamara eta 82 mm-ko perfilak

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



Leitza errep. - 31745 ITUREN
M. 676 393 996 - T. 948 388 455 - F. 948 456 164
carpinteria@echeverria@yahoo.es

Elgorriagako bestak 2019



egitaraua



Uztailak 25, ortzeguna

11:00etan txupinazoa. **Ondotik**, txistulariak eta buruhandiak herrian barna. **11:30ean** meza. **12:30ean** Doneztebe dantza eskolako dantzariak. **13:30ean** luntxa. **17:00etan** haur eta gaztetxoendako jokoak herriko plazan. **Ondotik**, Oihana eta Oihana trikitilariak alaituko dute giroa. **20:00etan** tortilla lehiaketa (aitzinetik osagaiak banatuko dira). **21:00etan** tortilla jatea.




Uztailak 27, larunbata

11:00etan partxis txapelketa. **13:00etan** paella jatea herriko plazan. **16:30ean** mus txapelketa herrikoia. **17:00etan** tribal jokoak haurrendako eta ondotik buruhandiak. **Arratsaldean eta gauetan** musika Gabenara taldearekin.



Uztailak 26, ortziralea

10:00etatik 13:00etara haurrendako puzgarriak. **13:30ean** haurren bazkaria elkartearen edo plazan. **16:00etan** espuma festa haur eta gazteendako. **18:00etan** Ameli ipuin-kontalaria. **21:30ean** Zopak Herriko Ostatuan. **Gauetan**, kontzertuak Zakill, Mugaldekoak, Sofokaos eta Elektropatxaranga.



Uztailak 28, igandea

12:00etan toka lehiaketa. **14:00etan** zikiro jatea, Beñat eta Fernandok giroturik. **18:00etan** boneta lehiaketa. **21:00etan** afaria plazan. **00:00etan** besten amaiera.



balneario
elgorriaga
hotel-balneario



BESTA HAUTAN ZATOK ELGORRIAGAKO BAINUETXERA:
buffeta libre, plater konbinatuak, ogitartekoak, errazioak, hanburgesak...

Errotalde z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)
T. 948 45 60 45 | www.balnearioelgorriaga.com



Ongi pasa bestak!!!

Gauetan:

- Mokadutxoak
- Pizzak
- Bokatak
- Razioak...

Sukalde zerbitzua
ortziraletik igandera



T. 629 127 081
San Pedro, 1 - ELGORRIAGA

«Bestak aitzinera eramateko, herriaren batasuna behar da»

Sara OLAZAR
Elgorriagako gaztea



Ikasturtean zehar «enpresen administrazioa eta zuzendaritza gradua ikasten» ari da Sara Olazar. Iruñean pasatzen ditu astegunak; asteburuak eta uda, berriz, herrian. Oporrak «lanerako eta, ahal dudanean, lagunekin planak egiteko» baliatzen ditu.

«Zaletasun berezirik ez» duenez, egunaren arabera antolatzen ditu momentuak. Lasaitasuna behar duenean «mendira joan, eguzkitan etzan eta egotea» gustatzen zaio. Baina, lagunekin afaldu eta parrandara joateko ere «beti prest» izaten da.

Gazteak lanean

Orokorrean «euskal giroa, ostatuak, egunez izaten diren bestak» ditu gustuko, eta horien artean kokatuko lituzke Elgorriagakoak. Herrikoak izaki, «bereziak eta hutsik egin gabe gozatu beharrekoak» dira berarendako: «haur, gazte eta helduak biltzeko egunak dira». Hortaz, lanean egutegia eman bezain agudo, lana eta besta uztartzeko, «ordutegiak aldatzen» saiatzen da. Lantegira joan behar ez izateak ez du egun horietan lan egiten ez duenik erran nahi. Izan ere, «ortziraleko kontzertuak» gazteen artean antolatzen dituzte eta «inguruko taldeak ekartzen saiatzen gara, jendea erakartzeko». Ordaindu ahal izateko, Udalaren laguntzaz gain, diru gehiago ere behar dutenez, «txosna irekitzen dugu». Halere, «bestaren bueltan, dena errazago egiten da».

teak ez du egun horietan lan egiten ez duenik erran nahi. Izan ere, «ortziraleko kontzertuak» gazteen artean antolatzen dituzte eta «inguruko taldeak ekartzen saiatzen gara, jendea erakartzeko». Ordaindu ahal izateko, Udalaren laguntzaz gain, diru gehiago ere behar dutenez, «txosna irekitzen dugu». Halere, «bestaren bueltan, dena errazago egiten da».

Inguruko herrietara

Bestak aitzinera eramateko, herriaren batasuna «garrantzitsua eta ezinbertzekoa» da Olazarren ustez: «batetik, lanak banatu eta egitaraua antolatzeko; eta bertetik, besta egunetan elkartzeko, dantzatzeko eta momentu ederrak pasatzeko».

Elgorriagako gazteak argi du herritarrek direla besten oinarria: «besta-giroa bermatzeko etxetik plazara jotzean dago gakoa». Horrek arriskuak izan ditzakeen arren, badute biharamuna pasatzeko sekretutxo bat: «tragoak amaren edo amatxiren salda beroarekin ordezkatzaren ditugu». Hurrupaz hurrupa berpizten zaie herriz herriko bestetara joateko gogoak.



tinkaenergiak

Pellet eta egurrezko estufa eta galdarak | Lurreko suak
 Eguzki plakak | Haize errotak | Tximini garbiketak
 Iturgintza lanak | Gasezko galdarak eta zerbitzu teknikoak
 Komuneko altzairuen salmenta eta instalazioak

Abartan 16B ELIZONDO
 948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032
 www.tinkaenergiak.com
 tinka@tinkaenergiak.com

**INDAUTO
TAILERRAK /ELITE/**

Mekanika
 Elektrizitatea
 Pneumatikoak
 Ibilgailuen salerosketa

ongi pasa bestak

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
 T. 948 453 488 · M. 675 324 960
 info@indauto.es

ONGI
 PASA
 BESTAK!

948 580 230 | Santiago, 62 A - behea 3 | ELIZONDO

Elizondoko bestak 2019

«Heldu direnei zerbait
uzteko arduraz jokatzeari
ezinbertzekoa zaigu»

Miren MEOKI

Baztango Hondakinen Zerbitzuko teknikaria

Ingurumenari lotua bizi da Miren Meoki (Lekaroz, 1977). Kirola eta natura uztartzen duen guztia du afizio; eta Baztango hondakinen kudeaketa ofizio. Maite du bere lana eta ondorengoei «bizitzeko moduko ingurune bat» utzi ahal izateko «beharrezkoa» dela uste du.

Azken urteetan Baztango Udalarendako ari da lanean eta, bertzeak bertze, «hondakinen kudeaketa koordinatzeaz, hondakinak biltzeaz, kontrolaz, diru-laguntza eskaerez, Nafarroako Hondakinen Planaz, Hondakinen Foru legea betetzeko bali-

bideak lortzeaz...» arduratzen da, baita herritarrak sentsibilizatzeaz ere.

Sentsibilizazioaren garrantzia

Azken eginkizun hori «bereiziki garrantzitsua» da bere ustez: «sistema linealak porrot egin duelako, munduaren suntsiketa muga garrantzitsuan dagoelako eta egoera larrian gaudelako». Horren aitzinean sistema linealetik (lehengaiak lurretik aterara, erabili eta bota) prebentziora (hondakinak murriztera) eta sistema zirkularrera (erabili eta birziklatu berriz erabili ahal

ongi pasa bestak!

**Dendako artikuluen
likidazioa**

**deskontu
handiak**

H. LOPEZ

Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Aire girotua · Tximiniak · Igerilekuen salmenta
 Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak
 Zeramika eta bainugelakoaltzarien salmenta

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
 info@honestolopez.com
 www.honestolopez.com



izateko) jotzea «beharrezkoa» dela nabarmendu du: «munduko biztanleriaren hazkundera eta baliabideen gainbeheraren aitzinean, zentzuz jokatu behar genuke».

Baikor eta itxaropentsu antzematen zaio, eta azken urteetan jendea «arazoaz ohartzen» ari dela uste du. «Bereziki organikoaren bilketan» jendearen «presutasuna, ongi egiteko gogo» sumatu du eta horretarako gakoa «erraztasunak jartzea» da bere ustez.

GIIS birziklapen sistema

Erraztasunak bermatu nahirik, berriki, Baztanen GIIS birziklapen sistema martxan jarri dute. Orokorrean, sistema horrek «bererabilpena» sustatzen duen arren, «Nafarroako Gobernuak Erratzun eta Elizondon paratutako makinek ez dute horretarako bide ematen». Aitzitik, «jendeari ontziak biltzeagatik horien baliua bueltatzen zaio». Sistema horren bidez, ontziak «baliabideak» direla adierazi nahi dute: «ongi kudeatzeak ekonomia zirkularra bulkatzen duen heinean, gaizki egiteak ingurumen kalteez gain, galera ekonomikoak ere badakartza». Ikusiak ikusi, Baztango teknikariak «dirua partikularki bueltatuz, jendeak hobe erantzuten duela» erranen luke.

Momentuz erantzun «ona» izan dute makinek: «lau hilabetez izanen dugu gurean eta ondotik emaitzak baloratu eta ondorioak atera beharko dira». Helburua,

azken batean, «sistemaren eraginkortasuna eta jasagarritasuna» ikustea da. Meokik, bere aldetik, «jendeak erabiltzen dituela eta herria garbiago mantentzen laguntzen dutela» nabarmendu du.

Informazioa, kontzientziazioaren oinarria

Halako baliabideak sustatzeko bidean, «informazioa» erreminta garrantzitsua delakoan dago: «informatuta daudenak kontzientziatuta daude eta badakite nola funtzionatzen duen». Arazoa, beraz, «informaziorik ez dutenengan» dagoela uste du. Areago, haiengana «sakelak ukitu edo trabak jarri ezean» ailegatzea «arras zaila» delakoan dago.

Begiak irekitzea aski da zaborrak ingurunean duen eragina ikusteko eta horrelakoek «amorrua, pena eta lotsa» sentiarazten diote Meokiri. Bereziki herriko bestetan hondakinen kopuruak goiti egiten duenez gero, «arduraz» jokatzeko deia luzatu du. Beraien aldetik, aurtan ere «baxera berrerabilgarria eta koloretako edukiontziak jartzeaz gain, antolakuntza-koei aholkuak emateko prest» daude.

Laguntza horren truk, «herritarrei kanpainetan izan duten jarrera horri eustea eta kontzienteki kontsumitzea» eskatu die, «ondorengoek ere mundu honetan bizitzeko eskubidea bermatzea gure erantzukizunetako bat delako».

«Sistema linealetik zirkularrera eta prebentziora jo behar dugu, zentzuz jokatuz»

Kris Origi pasa bestak!
ileapaindegia
Giltxaurdi, 14 · ELIZONDO · 948 580 025

JUANJO MIHURA
IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE
ERAIKUNTZA OROKORREAN
ongi pasa bestak!
Urbide Etxea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa
T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
j.mihura@hotmail.com

ELEKBERRI INSTALADORE BAIMENDUAK
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INST.
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA
Santiago 118, Elizondo (Na)
elekberri@gmail.com · 646854825 // 616898065

CITROËN
SANSIÑENA garajea
TAILER MEKANIKOA
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ENGRASEAK
ERABILITAKO NEKAZAL TRESNERIA
AGRIA, NEW HOLLAND TRAKTOREAK
ZERBITZU OFIZIALA:

Santiago, 37 | ELIZONDO | 948 580 406

AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak,
aldizkariak, prentsa, tabakoa eta
testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Ongi pasu herriko bestakll
eskermile urte guzian
bezero izateagatik

Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507

INTZA TABERNA

Ongi
pasa
bestak!

T. 948 580 417



BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK

Mendi ostatua



Enkarguak hartzen ditugu
bazkari eta afariak


Giro ederra!

T. 948 580 313

lino

linoplazaarkitektura

Besta zorientsuak
opa dizkizuegu!



lino plaza y asociados, s.l.p. | jaimie urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | telf. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

ALMACO BAZTAN GRUP GATTIA



besta zorientsuak pasa!

Errepide nagusia, Elizondo

Tel: 948 580 104

www.almacobaztan.com



<https://es-la.facebook.com/AlmacoBaztanElizondo>

egitaraua

Elizondoko bestak 2019



Uztailak 24, asteazkena Bezpera

12:00etan txupinazoa eta Baztan-zopak plazan. **Ondotik**, Konpartsarekin itzulia (Udaletxetik abiatu eta Jaime Urrutia, Ziga Plaza, Txokoto, Braulio Iriarte, Opoka, Santiago Karrika eta Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza). **18:00etan** Sideral magoa Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza. **19:30ean** Karrikadantza: konpartsak, txistulariek, gaiteroek, txarangak, bandak... lagunduta (Herriko Etxea, Jaime Urrutia, Ziga Plaza, Eliza, Santiago Karrika, Herriko Plaza, Jaime Urrutia, Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza). **20:00etan** salbea elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, Eslavaren Salbea eta Santiagoren Ereserkia kantatuko ditu, organoan Felix Txoperena, eta Recreo de Elizondo musika bandaren laguntza izanen duelarik. **Ondotik**, karrika-dantza eta erraldoien dantza plazan. **20:30ean** arratsaldeko txupinazoa eta txistorrada. **22:30ean** Pleura, Joseba Irazoki, Voltaia eta DJ Piek taldeak plazan.



Uztailak 25, ortzeguna Santio eguna

09:30ean diana. **10:30ean** karrika-dantza (Herriko Etxea, Jaime Urrutia, Herriko Plaza eta Eliza). **11:00etan** meza elizan. Elizondoko Abesbatzak, Isabel Lacarren zuzendaritzapean, organoan Felix Txoperena eta Elizondoko Recreo Musika Bandaren laguntza Misa de Eslava eskainiko du. **12:00etan** karrika-dantza, (eliza, Santiago Karrika, Herriko Plaza, Jaime Urrutia eta Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza). **12:30ean** plazako ekitaldia: soka-dantza, mutil-dantzak eta erraldoien dantza Elizondoko Bandaren laguntzarekin. **Ondotik**, luntx herrikoia. **17:30ean** Xomorro zirko tailerra Merkaturako plazan. **18:00ean** herri-kirolak Iriarte pilotalekuan: harri-jasotze erakustaldia, aizkora erakustaldia eta Nafarroako emakumezkoen lokotx-biltze txapelketa. **19:30ean** bertso-saioa plazan: Ez da kasualitatea. Aurkezlea: Maialen Belarra. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Miren Artetxe, Eli Pagola eta Alazne Untxalo. Musikiariak: Gari Otamendi eta Aritz Bizkai. **Ondotik**, mutil-dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **23:30ean** Txamukos mariatxiak plazan. **01:00ean** dantzaldia Trikidantz taldearekin plazan.

elicetxe
suministros electricos

material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 581 261 Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 Ind. - ELIZONDO
elicetxe@elicetxe.es

www.elicetxe.es

hiru
ostalarua

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin
zure eskaera



... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA BESTAK

Kaxulak,
plater konbinatuak,
bokatak, pizzak,
hanburgesak,
ensaladak, fritoak...

Etorri eta dastatu gure
berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219



Albaitaritza

www.albaitaritza.com

Tlfno.: 948 580 980

Materiala

Botika

Hazia

Osagarri mineralak

Bildots eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak



Zaldi eta zaldi-zaleentzako
produktuak

Albaitack

www.albaitack.com

Tlfno.: 948 506 169



ALBAIKIDE



Tfnoa.: 902 169 169

www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua

Ongi pasa bestak!

Autxitxia Gasmategia

- ▶ Bertan egindako ardi gasna
- ▶ Gaztanbera eta zenderena enkarguz
- ▶ Behi eta ahuntz gasnak
- ▶ Dastatzea eta bisitak

Ramón Agirre Altzela
Jaime Urrutia, 32 • 31700 Elizondo
657 576 142

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
 - Zerbitzu fiskalak
 - Lan-aholkularitza
 - Aholkularitza juridikoa
 - Herentzia eta Testamentuak
 - Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
 - Datuen babesa
 - Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
- www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395



ELIZONDO

Santiago, 47
t. 948 580 859

DONEZTEBE

Zazpigurutze, 4
t. 948 451 332

LEITZA

Landabekoa, 2
t. 948 610 612

LESAKA

Plaza Zaharra, 17
t. 948 637 294

BERA

Kanttonberri, 3
t. 948 630 381

*Besta onak opa
dizkizuegu!*

Suteia-Zaldain

instalazioak IGOGAILUAK



PROFESIONALAK | KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA | MANTENTZE LANAK

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1

KANPOKO IGOGAILUAK


Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2

BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokitua.



3

IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

egitaraua

Elizondoko bestak 2019



Uztailak 26, ortziralea Haur eta gazteen eguna

09:30ean dianak Beartzunen. **11:00etan** erraldoi eta buruhandien konpartsa (Francisco Joaquín Iriarte adinekoren egoitza, Santiago Karrika, Opoka, Mendiñueta, Benito Menni Zentroa, Merkatzuzelai, Legate, Xalbador, Txokoto, Santiago, Maria Azpilkueta eta Lanbide Eskola). **11:00etan eta 16:00etan** ludoteka Iriarte pilotalekuan (barredora, pista amerikar puzgarria, txirrista puzgarria, 3 eta 6 urte artekoentzat ludoteka, futbolin puzgarria, egurrezko 8 joko, 2 futbolin, 2 kupula mahai eta 2 haize mahai). **14:00etan** kuadrillen bazkaria kuarteleko zelaian. **18:00etan** poteoa Burrunba elektrotxarangarekin, elkarte elkarte parketik abiatuta. **19:00etan** Menditararak plazan. **20:30ean** mutil-dantzak eta dantza herrikoia. **23:30etatik aitzinera** Odolaren mintzoa, Tremenda jauria eta Tirri&Tery taldeak plazan.



ONGI PASA BESTAKI

Belzunegui

DESDE 1901

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

ONGI PASA BESTAKI

LABAYEN

OSTATUA

Etxeko janari goxoa
Zatozte! eta on egin!

Santiago • ELIZONDO
948 580 338

esarte

ONGI PASA BESTAKI

Santiago 83 B bajo • 31700 Elizondo • T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

LA BAZTANESA S.A

ELIZONDO
Tel/Faxa: 948 580 129

IRUÑEA
Tel: 948 222 223
autobuses@labaztanesa.com

ferretería

Quevedo

burdindegia

Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel.: 948 580 234
info@ferreteriaquevedo.com
www.ferreteriaquevedo.com

ANTXITONEA
Trinketea

23 logela bainuarekin • Aparkalekua • Aire girotua eta telebista gela guztietan
Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

Herri erdi erdian, Baztan errekaaren ondoan

Ongi pasa bestak!!!

Braulio Iriarte, 16 • ELIZONDO • 948 581 8070 • hostel@antxitonea.com • www.antxitonea.com

ONGI PASA BESTAK

baztanoil

ELIZONDO | www.baztanoil.com

GASOLIOA ETXERA

T. 948 452 309 · M 677 310 009

REPSOL

24
ORDUTAN
ETXEAN

**ESKISAROI
JATETXEA**

ongi pasa bestak!

T. 948 580 013
Jaime Urrutia · ELIZONDO

erran.
eus

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Baztan Berri plaza, 2

Tfno: 948 580 304
info@jbiturria.com · www.jbiturria.com

**BB BLOK BAT
TALLERES**

Ongi pasa bestak!!

Husqvarna

Talleres BLOK BAT, SL · Santiago, 85 · ELIZONDO · Tel. (0034) 948 580 898

GENERALI
Asegurak

**MAÑONEA
AGENTZIA**

ONGI PASA BESTAK!

Mañonea Agentzia S.L.

GENERALI
Asegurak

AGENTE ESKLUSIBOA. Registro Zkia.: C0072B71193304

www.manoneasegursi.seguros.generalis.es

ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA

T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | manoneasegur@generalimediadores.es

**KONTABLE, ZERGA, LAN
eta JURIDIKO AHOLKULARITZA**

www.manoneaagentzia.com

T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
manonea@manoneaagentzia.com

**KARRIKA
OSTATUA**

ongi pasa bestak!

Jaime Urrutia, 11 · ELIZONDO
948 581 275

EROSKI city **ELIZONDO**

Foru plaza, 3
ELIZONDO
T. 948 580 005

Astelehenetik larunbatera 09:00-21:00

BEAARRAINDEGIA **esarte**

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA



egitaraua

Elizondoko bestak 2019

Uztailak 27, larunbata

Adinekoen eguna

09:30ean dianak. **11:00etan** erraldoi eta buruhaundiekin ibilaldia Kataluniako Bisbalet d'igualadako erraldoi konpartsarekin (Lanbide Eskola, Akullegi, Santiago, Datuzelai, Santiago, Sakaitz plaza, Santiago, Berekotxea Gotzaina, Paularena, Herriko Plaza, Pedro Axular, Giltxaurdi, Galartza eta Adinekoen egoitza). **11:30ean** Izarne Zelaia eta Aitor Larreta bertsotan, Francisco Joaquin Iriarte adinekoen egoitza. **Ondotik**, Joxe Angel akordeoilaria. **11:00etatik 14:00etara** igerilekuko sarrera libre. Haurrendako uretako puzgarriak izanen dira. **12:00etan** Recreo de Elizondo musika bandaren emanaldia plazan. **16:30ean** Elizondoko IX. Mus Txapelketa Xalbador karrikan Falfarak elkarteak antolatuta. **17:00etan** pilota partidak Baztan pilotalekuan. **Ondotik**, I. Frontenis Txapelketa mistoko finala. **18:30ean** txokolate jana Iriarte pilotalekuan. **19:00etan** bizikleta ikuskizuna Iriarte pilotalekuan. **19:00etan** dantza emanaldia Duguna taldearen eskutik plazan. **20:30ean** mutil-dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **00:00etan** dantzaldia Oharkabe taldearekin plazan.



Uztailak 28, igandea

Herriaren eguna

09:30ean dianak. **11:00etan** erraldoi eta buruhaundien ibilaldia (Herriko Etxea, Jaime Urrutia, Opoka, Erlategi, Baztan Berri, Maurixio eta Felix plaza, Abartan, Xalbador karrika, Giltxaurdi eta adinekoen egoitza). **11:00etan** Munduko XXII. Kanika Txapelketa Merkatu zelaian. **14:00etan** zikero jatea Iriarte pilotalekuan. **17:30ean** Pox haurrendako ipuin-kontalaria plazan. **21:00ean** mutil-dantzak eta dantza herrikoiak plazan. **00:00etan** Gizajoa ni eta karrika-buelta plazaatik abiatuta. **02:00ean** DJ Reimy plazan.

Ongi pasa bestak!

Instalazio
elektrikoak

Konponketak

ANGEL TRANTXE
ELEKTRIZISTA

T. 948 452 246 | M. 679 454 113 | ELIZONDO

Ongi pasa bestak!

**Maite
Petrirrena**

Aseguru agentzia

Allianz

Saskaitz plaza · ELIZONDO
Tel. 948 452 394
teresa.petrirrena@allianzmed.es

JOSEPHINE'S ENGLISH

Bertako irakaslea

MATRIKULAZIOA IREKITA:
2019-2020 Ikasturteko klase partikularrak

Ongi pasa bestak!

Christina Irigoyen
T. 948 453 453 · M. 637 176 572 · Santiago, 38 Elizondo



**LABORRA
ARKITEKTOAK**
- Gabriel & Ines -

www.laborra.com

gabriel@laborra.com
Santiago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122



arteka
arkitektura arquitectura

Tel. 948580610 Plaza. Dr. Balda 1.- 1. A
info@artekabaztan.com 31700. Elizondo Baztan

www.artekabaztan.com

ONGI PASA BESTAK!

Malkorra

Txokolatea urrakin egina
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO
www.malkorra.com

LABIAGA
eraikuntzak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

IMANOL 608 117 634
XATUR 608 117 635

Ongi pasa bestak!

BERA | ELIZONDO

Gureaut
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea, ibilgailuen salerosketa

ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia industrialdea | 31730 Irurita
Tel.: 948 580 225 - M. 619 328 145
gureauto2@gmail.com

Bidegain AZOKA

Jaime urrutia, 1 ELIZONDO

EGIN EROSKETA TELEFONUZ ETA
ETXERAINO ERAMANGO DIZUGU

*Etorri eta ikusi!
Goi mailako produktuak ditugu!*

- NAFARROAKO KONTSERBAK
Piperrak | Esparragoak | Barazkiak | Lekaleak
- GOI MAILAKO LEKALEAK PISURA
- BAZTANGO ETA NAFARROAKO
BARAZKI FREKKOAK
- BAZTANGO HARAGIA
- BAZTANGO ETA BIDASOKO GAZTAK
- ETXEAN EGINDAKO:
Albondigak | Eskalopeak | Kroketak (gazta, magra...)
- ARRAULTZA EKOLOGIKOAK
- ERRIOXAKO HESTEBETE NATURALAK
KONTSERBANTERIK GABE:
Txorixoa | Saltxitxoia | Magra
- KANTAUARI ITSASOKO
ARRAI FRESKORIK ONENA
Legatza | Antxoak | Itsas sapoak...
- MARISKO FRESCO ZEIN KONGELATUAN
AUKERA ZABALA

T. 681 284 090

T. 948 452 486

T. 948 580 496






«Pena bada ere guztiz galduta daude gure haur denborako jolasak»

Agustin OLABE OSKARITZ
Kanika txapelketako antolatzailea

Memorian iltzatuak gelditzen omen dira haur denborako oroitzapenak, batez ere goxoak badira. Oroitzapen horiei tiraka hasi ziren antolatzen Elizondon Munduko Kanika Txapelketa. Hala azaldu digu Agustin Olabek, txapelketaren antolatzailea: «lagun-talde baten afera izan zen, kargudunak ginela, herriko bestetan gure haur denborako jostaketak gogora ekarri eta erakusteko asmoa izan genuen».

1998an lehenengoz

Idea izatetik gauzatzera, «erraza» suertatu omen zen bidea, «txapelketa antolatzeko eta gauzatzeko beharrezkoa zena guti baitzen». Lehendabiziko urtean, 1998an, kaniketan aritzeaz gain, txapetan eta boneta jaurtiketan ere aritu ziren, baina, «kaniketako arrakastatsuen eta dibertigarriena suertatu izan denez horrekin segitzen dugu».



XXII. edizioa beteko du aurten txapelketak eta parte-hartzea irekia izan da beti: «denera 40 edo 50 lagunek parte hartu izan dute urte hauetan guztietan. Urtero goiti-beheiti 20 bat biltzen gara». Denak haurrak zirela kaniketan ibilitakoak dira eta «txantxa giroa nagusi zela, 30 urtetik goitikoa izatea aipatzen genuen baldintza gisa, eta egia erran gehienetan bete da» gaineratu du irrika. Azken urtetan jolasen aritu soilik ez, hamaiketakoak ere antolatu dute «lagun giroan pintxo eta trago batzuk hartzeko».

Araukak

Lur gordinean aritzen dira, eta kaniketan jolasteko hainbat modu badira ere lau zuloetan aritzen dira, buruz buru: «lau zuloetatik bat adostu eta abiapuntutik bi jokalariek kanika horretara bota egiten dute, gehien hurbiltzen denak hasiera ematen dio partidari. Metro eta erdiko distantziara dauden lau zuloak sartu ondok arra bateko abantaila irabazten da eta arerioaren kanika jo egin behar da hiru aldiz, kanika batetik bertara gutierrez eta hurrenez hurren lau behatz, arra eta oin bateko aldean lortuz». Hori guztia egin ondotik, irabazteko «arerioaren kanika-kolpea hartu baino lehen, kanika berriz lau zuloetan sartu behar da».

Saria

Txapelketa irabazten duenak ez du nolanahiko saria izaten: «munduko kanika txapelduna izatea da saria, eta urtetik urtera, eskuz esku garai-kurra pasatzen da. Giltxaurdiko errekarri batean egindako huts-kanika agertzen duen garaikurra da eta oinean txapeldunen zerrenda du».

Helburua bete gabe

Txapelketa antolatzen hasi zirenean, plazetan berriro ere garai bateko jokoak ikustearekin egiten zuten amets: «hel-

burua ez dugu bete. Gaur egun guztiz galduta daude gisa horretako jokoak: kanikak, txapak, makilak kinkinean lurrean sartzea...». Baina inoiz ez da berandu eta horregatik: «haurrak kanika txapelketa ikustera animatu nahi nituzke, bere adinean gu zertan jostatzen ginen ikus dezaten». Nork daki norbaiti interesa piztuko ote zaion.

Egunero zerbait

Kaniketan jostatzeko aukera soilik ez, hamaika proposamen biltzen ditu bestetako egitarauak: «egunero bada zerbait egitekoa. Bezperan suziria eta salbea, Santio Egunean karrikako lagun-giroaz disfrutatu, pilota-eguna, kuadrillen egunean otordua, zikiro jatea, eta tartean gau-giroa».

Gustukoen duen egunaz galdetuta, «freskotasunez hartzen den bezpera» aipatu du, «txupinazoa eta aperitifak, lagun arteko bazkaria elkartean, salbea, eta ondokoa». Azaldu duenez, salbea da berretzat ekitaldirik berezienetako bat: «ez elizkoia naizelako, Elizondoko Abesbatzak bertakoendako bereziak diren eta indar handikoak diren bi kanta eskaintzen

dizkigulako. Bertetik, karrikatik barna txaranga-soinua izugarri gustatzen zait».

Aldaketak

Egitaraua ikusita bestak ez direla sobera aldatu uste du: «jendetsuagoak bai orain, eta akaso

ordutegia ere aldatu egin da, nonbait gaurko gauak luzeagoak dira. Aldaketa handiena txupinazoan ikusten dut, gure garaian lau katu hurbiltzen ginen, gaur gazte guztiak eta ez hain gazteak bertan daude, erraldoi eta buruhandi aunitzez gehiago ere badaude, eta hori ikuskizun arrakastatsuena da haurrendako». Bere esku balego, berriz, «duela urte batzuk izan zen gisara fanfarre-ikuskizun modukoren bat eta ahal den neurrian karrikako musika indartzea gustatuko litzaidake».

ANZABAL
inmobiliaria



Ongi pasa
bestak!

- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

BC BALLARENA
ERAIKUNTZAK

LAN GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA:
zaharberritzeak, elektrizitatea,
kalefakzioa, pladur lanak,
iturgintza, etab.



Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat itxuraldatzen ditugu aitzinako etxebizitzaren tradizioa mantenduz



ELEKTRIZITATEA
Instalazio berriak | Berritzeak
Argindar fakturan aurreztu nahi?



delegatuak gara

Abartan, 22 behea ELIZONDO
T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982
www.ballarenaconstrucciones.com



BAZTAN
Ferreteria

Pintura | Kristalak | Tresneria | Opariak
Aroztegiko gauzak | Brikolajea

Santiago, 79 · Industrialdea
ELIZONDO · T. 948 580 423

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 5
Tfnoa: 948 580 337
ELIZONDO

SAIOA
OSTATUA

Ongi pasa bestak!



Santiago, 68 - ELIZONDO | T. 948 580 194

A. ETXEBERRIA
PINTURAK

fatxadak barnealdeak
etxebititzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo
Tel (0034) 607 587 196
etxebeandoni@hotmail.com



ONGI PASA BESTAK!



ARKUPE
Txokolateak

1984

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

«Arrakasta duten ekitaldiak mantendu eta bertzeak hobetzen saiatzen gara»

Haize ARRIETA Besta batzordeko kidea

Proposatu, eragin eta egin. Halaxe laburbil daiteke Haize Arrieta besta batzordeko kide izatearen arrazoia: «duela hiru urte kargodun bati erran nion ea hurrengo urtean posible izanen zen kalejira bat egitea eta erran zidan besta batzordeko bilerara agertzeko. Hala egin nuen eta geroztik batzordeko kidea naiz». Hamabi pertsona inguru biltzen dira, «otsail aldean hasten gara elkartzan eta bi astez behin izaten ditugu bilerak».



Mantendu, hobetu, gehitu

Egitaraua, baina, ez dute orri zuriaren gainean osatzen, «urtetik urtera saiatzen gara arrakasta duten ekitaldiak mantendu eta bertzeak hobetzen, zaila izan arren». Berrikuntzaren bat edo bertze ere izaten da: «aurten estreinakoz frontenis txapelketa mistoa eta bizikleta erakustaldia izanen ditugu eta dantza herrikoiak mutil-dantzekin batera egingen dira plazan. Orain arte, dantza herrikoiak Ziga plazan eta mutil-dantzak segidan plazan dantza-tzen zituzten».

Sosak agintzen du

Kontu aunitz lotu behar izaten dituzte: «ekitaldiak, edariak, kontzertuak...». Eta horien guztien artean musikari lotutako kontuek eragiten diete buruhauste gehien: «gaur egun arras zaila da prezio ekonomiko batean izena duen talde bat lortzea. Jendeak taldea ospetsua izatea nahi du, baina sosak agintzen du». Gero, gainera, taldea ospetsua izateak ez omen du «deus ere» ziurtatzen, «ohartu izan gara musikalki edo giro hoberena paratzen duten taldeak aunitzetan ez direla ezagunenak edo ospetsuenak». Horren adibidea da iazko kasua: «pasa den urtean Ni yuta ni tuya eta Ezinke izan ziren giro hoberena paratu zutenak».

Egitaraua itxita, eginbeharrekoen erdiak osatuak dituzte: «bestak ailegatzen direnean, egun bakoitzeko arduradun batzuk izendatuta ditugu. Arduradunak arazoak konpondu, ekitaldiak bere orduan egiten direla ziurtatu... behar du». Dena den, azpimarratu nahi izan du ez direla bakarrik aritzen: «herriko jendeak ere laguntzen du aunitz».

Denetarako tartea

Lanaz gain bestarako tartea ere hartzen du Haizek eta «kuadrillen eguneko bazkaria eta poteoa» omen dira gustukoaren dituenak, «giroa ezin hobea delako». Dena den, ez du bai edo bai joan beharreko ekitaldirik: «maite duzun zerbait galtzen baduzu erran nahi baitu zerbait hobea ari zarela egiten». Eta nabari da maite dituela bestak, egunik politenaz galdetuta, instatean erantzun baitu: «ortziralea, astelehena oraindik urrun da-goelako». Aholkua ere eman die bisitariei: «Foralak badira izkina guztietan, beraz, badakizue: ez hartu kotxea mozkorturik. Hartu autobusa, kastaña!».


Bestak akitzean zer egingen duen ere galdetu diogu eta argi du: «bestak ez dira sekula ere akitzen. Herrikoak

akitzean, beti badira gehiago». Momentuz, antolatatu, egin eta gozatu. Atsedean hartzeko asmorik ez du oraindik.

«Estreinakoz frontenis txapelketa mistoa eta bizikleta erakustaldia izanen ditugu eta dantza herrikoiak mutil-dantzekin batera egingen dira plazan»

Eskualdeko jendea Lanbiden ere artatuko dute

Euskal Enplegu Zerbitzuko Irungo bulegoan artatuko dituzte Bortzirietakoak, Lasarten Goizueta-Aranokoak eta Tolosan Leitza-Aresokoak



Lanbideko Lasarteko bulegora jo dezakete Goizuetatik eta Aranotik. TTPI-TTAPA

TTPI-TTAPA

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Orokorrek, alde biek, adostu dute Lanbideko bulegoetan bertan artatuko dituztela Nafarroako hainbat udalerritako lan-eskatzailleak; hain zuzen ere, Goizueta, Arano, Areso, Leitza, Bera, Lesaka, Arantza, Etxalar eta Igantzikoak.

Lasarteko bulegoan, Goizueta eta Aranoko bizilagunak artatuko dituzte; Tolosako bulegoan, Areso eta Leitzako bizilagunak eta Irungo bulegoan, Bera, Lesaka, Arantza, Etxalar eta Igantziko bizilagunak.

Zerbitzuak baliatu ahal izateko, bertako bizilagunek ez dute Lanbiden bertan izena eman edo alta egoeran egon behar, ez eta EAEn erroldatuta ere; baizik eta beraien lan-eskaera Nafarroako Enplegu Zerbitzuan mantendu behar dute.

Aldez aurretiko hitzordua Donezteben

Bertze aldetik, ekainaren 20tik aitzinera Nafar Lansarek, aldez aurretiko hitzorduaren bidez ematen du arreta Agoitz, Altsasu, Lizarra, Lodosa zein Doneztebeko agentzietan. Enpleguko informazio eta aholkularitza zerbitzuak jasotzeko interesa duten pertsonak *empleocitaprevia.navarra.es*-en edo bulegora deituz, eguna eta ordua erreserba dezakete.

eta
hau ere?

bai

Etxea Automobila Istripuak Bizitza Ehorzketa

Aseguruen inguruko premiak
dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

CAJA RURAL
SEGUROS RGA
Professional Cycling Team

DENA
SEGUROAGOA DA
HURBIL BAZAUDE

RURAL KUTXA
ejerzandienavara.com

Bizitza-asegurua RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen da; IFK A-78.229.663 eta DGSFPko gakoa C-595. Etxe, Istripu, Ehorzketa eta Merkataritza aseguruak RGA Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatzen dira; IFK A-78.524.683 eta DGSFPko gakoa C-616. Automobil aseguruak honako hauekin kontratatzen dira: Liberty Seguros compañía de Seguros y Reaseguros S.A. (IFK A-48037642 eta DGSFPko gakoa C-0467); Reale Seguros (IFK A78520293 eta DGSFPko gakoa C-0613); Mapfre España (IFK A-28141905 eta DGSFPko gakoa C-0058). Aseguruak RGA Mediación, Operador de Banca Seguros Vinculada, S.A. ren bidez merkaturatzen dira (IFK A79490264). Madrilgo herribidea (C/Basuri, 14) eta DGSFPren bilakuraren enregistrazioa inbertituta dago OV-0006 gisa. baita Madrilgo Merkataritza Enregistrazioa ere, 8205. liburukian, 89. folioan, 8. sekzioan, M10188 orrian. Rural Kutxa RGA Mediación OBSV, S.A. ren bidez sarrak kide da. Hurbide honetan kontsultatu dezakezu zer aseguru etxerik dituen RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratuak: www.segurosrga.es/Entidades_contrato_RGA_Mediacion.pdf

Gogoz eta ilusioz martxan zuzendaritza batzordea

Datozen lau urtetarako ardurak banatu ditu zuzendaritza batzordeak

PABLO IRASTORTZA

Lau urte pasa ondotik, eta legeak batzordea berritzea agintzen duenez gero, ekainaren 17ko ezohiko bileraren ondotik batzorde berria eratu zuten. Horrela antolatua gelditu zen batzorde berria, datozen lau urtetarako: Jose Luis Legarra Iriarte izanen da presidentea, Rosa Maria Bertizz Iriarte presidenteordea, Pablo Irastorza Ugaldebere idazkaria, Juan Isaac Alzugarai Martiarena idazkariordea, Gema Gamio Larraburu diruzaina. Komisioen antolaketari dagokionez,

honela erabaki zuen batzordeak: ekonomia arloan Jose Luis Legarra, Gema Gamio eta Pakita Mikelarena ariko dira; bidaletan Juan Isaac Alzugarai, Pakita Mikelarena, Rosa Mendiburu, Gema Gamio, Rosa Bertiz eta Pablo Irastorza (koordinatzailea); ikastaro eta hitzaldietan Lourdes Erviti, Rosa Mendiburu, Rosa Bertiz, eta Maritxu Telletxea (koordinatzailea); eta laguntzaile orokorra Fermin Azpiroz izanen da. Lerro hauen bidez, zorte on batzordeari eta lan oparoa egin dezatela.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elkarteko 97 kide Galizian izan dira

Ekainaren 21etik 28ra Galiziara antolatutako bidaian izan dira elkarteko 97 kide. Paisaiak eta eguraldiak egonaldia ederra izaten lagundu zuen. Irteerak, itsaski jatea, gaiteroen emanaldia... izan zituzten gozamenerako. Herritarren aldetik babesa jaso zuten. Ez dute bidaia aise ahantziko!



52 lagun bildu ziren Berastegin egindako mendi-itzulian. ARTXIBOKOA

Berastegin egin dute ekaineko mendi-itzulia eta Txamantxoiara doaz uztaillean

TTIPI-TTAPA

Eguraldi ezin hobea izan dute ekaineko mendi-irteeran. Berastegi aldean ibili ziren, hilaren 18an. 52 mendizale izan ziren goizeko 08:00tan zangoak lanean jarri zituztenak, eta San Lorentzo mendi eta ermita, Gorosmendi, Behibatari, Iturzabal, Ipuliño, Matxiñeborda, Okolloko auzoan egin zuten (Luis Erasoren zur-lan harrigarriak ikusteko zoriona izan zuten mendizaleek eta hori eskertu nahi izan dute). Bortz ordu eta erdiko itzulia herrian amaitu zuten.

Lontxo Eraso buru

Bertako antolatzaileek egindako lanari esker (Lontxo Eraso izan zen buru) ederki aski ibili ziren. Areago, ibilbide xarmantaz gozatzeko aukera izan zuten eta beroa saihesteko 08:00etarako abiatzea

erabaki zuten. Legeak agintzen duenez, Ategi jatetxean bikain bazkaldu zuten, Lontxori lana eskertu ondotik eta Tomas eta Juanen musika alaiari esker, giroa borobildu ondotik, kontent itzuli zen jendea etxeruntz.

Hurrengoa Txamantxoiara uztailaren 23an

Mendi taldearen hurrengo hitzordua uztailaren 23an, heldu den asteartean, izanen da. Aldi horretan, mendizaleak Pirinioetako ia bi mila metroko altuera duen Txamantxoi mendira joanen dira. Bidaia autobusez egingen dute, Donostebetik 05:30ean abiatuta. Mendira goititu eta jaitsita-koan, bertako kanpinean bazkalduko dute. Bazkal ondotik etxerako bidea hartuko dute. Ea eguraldia lagun izaten duten... Parte hartzaile guztiei animo eta egun ederra igaro!

Abuztuaren 31n erromesek Arantzazuko Santutegian dute hitzordua

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, abuztu hondarrean Arantzazuko Santutegira joanen dira. Hilaren 31n dute hitzordua. Goizean goiz abiatuko dira eta 10:30ean ailegatuko dira. 12:00etako elizkizunaren akabailan, ohi bezala, Urnietako Oianume

jatetxean izanen dute bazkari goxoa. Bazkalondoa, musikarekin gorputza mugituz, nahi duenak, digestioa behar bezala egiteko aukera izanen du. Uztailaren 15ean, 16an eta 17an eman daiteke izena (42 euro), herri bakoitzeko ordezkariarekin harremanetan jarritz.

Lau egunez festa giroa nagusituko da santioetan

Festak Santio Egunarekin hasiko badira ere, uztailaren 21ean pala txapelketako finalak jokatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Haur, gazte eta helduek, denek izanen dute ate joka diren santioetan gozatzeko aukera. Egun handiarekin hasiko dira festak, Santio Egunean, eta hortik aurrera lau egunez ez dute aspertzeko tarterik izanen herritarrek. Hala ere, festak uztailaren 25ean hasiagatik aurreko igandean, hilak 21, pala txapelketako finalak jokatuko dituzte. 11:00etan hasiko dira partidak.

UZTAILAK 25, SANTIO EGUNA

Festei hasiera emanen dien txupinazoa 12:00etan botako dute udaletxetik. Ondotik, 12:30ean, aranoarren eta goizuetarren arteko pilota partida jokatuko dute: Aranoko taldean Huizi eta Lizeaga ariko dira eta Goizuetakoan Apeztexea eta Apeztexea.

Arratsaldean, kirol hitzorduek segida izanen dute. 18:00etan aizkora apustua jokatuko dute Xabier Orbegozo Arria V.ak eta Joseba Izetak eta Jon Irazu eta Haritz Esnalek. 18:30ean Goizuetako Umorre Ona dantza taldeak emanaldia eskainiko du eta 19:30ean bertso-saioa hasiko da. Beste urte batez, izen handiko bertsolariak gonbidatu dituzte: Maialen Lujanbio, Joanes Illarregi, Julio Soto eta Sebastian Lizaso. Maider Ansa herritarra ariko da gai-jartzailer lanetan.

UZTAILAK 26, OSTIRALA HAURREN EGUNA

Haurrak izanen dira festetako bigarren eguneko protagonistak nagusiak. 17:00etan hurrek pilota partida jokatuko dute

eta 18:00etan txokolatea jateko aukera izanen dute. 18:30ean Arno ganadutegiaren eskutik animalien ikuskizuna izanen da. Gauez, 22:30ean, San Roke elkarteak antolatuta, mus txapelketa jokatu dute elkarrean.

UZTAILAK 27, LARUNBATA HERRI GURASOEN OMENALDIA

Jubilatuek egingen dute larunbateko aurreneko hitzordua, 11:30ean Kontsejun hamaitketakoa egiteko elkartuko baitira. 14:30ean, berriz, urteroko ohiturari eutsiz, arku-me jatea egingen dute. Bazkalondoan, Errebal musika taldea arduratuko da herri ingurua alaitzeaz.

UZTAILAK 28, IGANDEA ZIZTANGILEEN EGUNA

Igandearekin bukatuko dira festak. Goizetik eguerdira feria antolatu dute eta horrez gain, tortilla lehiaketa ere egingen dute. Arratsaldean, 17:00etan, apar festa egingen dute eta 20:00etan Araitx eta Maddirekin musika emanaldia izanen dute. 21:00etan afari herrikoia antolatu dute eta festak borobiltzeko bingo musikatua egingen dute.

ARKUME JATEA

Larunbarekin egingen den arkume jaterako txartelak hartzeko azken eguna uztailaren 24a izanen da. Bitartean, joateko asmoa dutenek Kontsejun, Goizuetako Amaia kafetegian, Hernaniko Deportibon eta Urnietako Kantoi tabernan erosi ahal izanen dituzte txartelak, 30 eurotan.



Giro ederra espero dute aurten ere Aranon. OHIANA KALPARSORO ETA KRONIKA



Karmen bezperan herri-afaria egingen dute

Umore Onak, Udalaren laguntzaz, sagardoa, ardoa eta freskagarriak jarriko ditu

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 15a, datorren astelehena, Karmengo Amabir-jin bezpera da eta, hori aitzakiatzat hartuz, bederatzigarren herri-afaria egingen dute goizuetarrek plazan. 20:30ean zehaztu dute hitzordua. 21:30ean, garai bateko ohitura galdu gabe, suak piztuko dituzte.

Bigarren aldiz Umore Onak hartu du antolaketaren ardurara eta sagardoa, ardoa, freskagarriak jarriko ditu, Udalaren finantziazioarekin. Joan den urtean berrartu zuten ohiturari jarraiki, tortilla lehiaketa egingen dute. Aurten ere, etxean edo elkarteetan prestatutako tortillak eraman daitezke. 20:00etarako plazara eraman behar da sei bat lagunentzako tortilla eta gero epaimahaiak



Tortilla lehiaketa egingen dute.

erabakiko du zein den irabazlea.

Garai batean baserri ataritan pizten zen sua berreskuratu nahi da, eta berreskuratzen ari da ospakizun honekin. Alorretan egiten zen arbia bildu, hurrengo urteko sasoirako hazia kendu eta gelditzen ziren zuztarrak Karmen bezperan erretzen ziren.



FELIX LOIARTE

Suaren bueltan afari goxoa

San Juan bezperako ohiturari eutsiz, goizuetarrek afari autogestionatua egin zuten ekainaren 23an herrian. Afalondoan, berriz, saltoka ibili ziren, urteko desioak eskatuz. Haur, gazte zein helduek bat eginez herri-giro ederra izan zuten.

Abuztuan tailerra eta mendi-irteera izanen dituzte

Karmen bezperako afariaren ondotik, abuztua arte lasaitasuna izanen dute herrian. Goizuetako Udalak, kultur taldeak eta euskara zerbitzuak antolatuta, abuztuaren 3an familia-tailerra izanen dute, 11:00etan. Haurrei eta gurasoei bideraturikoa da eta interesa dutenek Amaia kafetegian eman beharko dute izena. Uztailaren 28a izanen da apuntatzeko azken eguna eta plaza mugatuak izanen dira. Hilaren 8an, berriz, euskal selekzioaren aldeko mendi-martxa izanen dute.



FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatza Hernanin

Ekainaren 22an, Goizuetako Umore abesbatza Hernaniko San Juan festetan izan zen. Azken urteotako ohiturari eutsiz, kalez kale aurorak kantatu zituzten, Ereñotzuko Ozenki abesbatza eta Hernaniko Kantuzekin batera.

Hainbat berrikuntza izango dira aurtengo pestetako egitarauan

75 urtetik gorako emakumeei egin diete txupinazoa botatzeko proposamena eta I. Lore lehiaketa ere antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Pestak ailegatzeko hilabete eskas falta denean, egitaraua itxia du pesta batzordeak. Abuztuaren 14an, asteazkenean, hasiko dira pestak eta 18an, igandean, bukatuko dira herritarren egunarekin. Tar-tean, hainbat ekitaldi izango dira eta berrikuntzak ere bai.



Lore ederrenak sarituko dituzte.

Txupinazoa indartzeko asmoa
75 urtetik gorako emakumeei eskaini nahi izan diete txupinazoa botatzeko aukera. Batzordeko kideek azaldu dutenez, «urtetan ez dute festetaz askorik gozatzeko aukerarik izan, zaintzan, otorduak prestatzen... aritu behar izan dutelako. Ongi merezitako omenaldia egin nahi izan diegu. Ea animatzen zaizkigun». Herritarrei ere zapi urdina lepoan jantzi eta txupinazora agertuta, pestaz aurreneko momentutik gozatzeko gonbidapena egin diete.

I. Lore Lehiaketa

Hau ez da izango aurtengo berrikuntza bakarra, estreinakoz, Lore Lehiaketa egingo

baita. Txapelketan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Uztailaren 19ra arte izango da horretako aukera udaletxean.

Abuztuaren 18an egingo da bozketak. Orduan jarriko dituzte argazki guztiak ikusgai plazan eta goizean zehar herritarrek aukera izango dute gustukoaren etxe atari edo balkoiaren aldeko bozka emateko. Bozka gehien lortzen dituen argazkiak saria izango du, beraz, anima zaitezte!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederra izan da sanpedroetan

Mimoz prestatu zuten Lagunartekoek bi eguneko egitaraua eta herritarren erantzuna ere halakoa izan zen. Lagunartekoek eskea, haurren mural margoketa, antzerki saioa, sagardo dastaketa, herri-afaria... denetarik izan zuten. Haurrak, gazteak eta helduak giro paregabean ibili ziren.

Leire Baraibar txapeldun Zumaiaiko Trailean

Ekainaren 23an jokatu zuten Zumaiaiko Flysch lasterketaren XI. edizioa. Mendi maratoi erdian, herritarra izan zen lehenbiziko emakumea bi ordutan osatuaz 21,6 kilometroko ibilbidea.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolan eginbeharreko lanek atzerapena izango dute

TTIPI-TTAPA

Aurreko aldizkarietan eman izan dugu eskolan eta eskolotxean egin beharreko lanen berri. Ikasturtea bukatuta, uda partean egitekoak zituzten lanak, baina badirudi aurreikuspenak ez direla beteko. Adostutako baldintzetan lanak

bere gain hartuko dituen enpresarik ez da agertu oraindik. Udala irtenbide bila ari da, baina dagoeneko esan liteke ia segurua dela aurreikusitako epeak ez direla beteko eta zaila izango dela irailerako lehio berriak jarri eta eskolako etxebizitzan birmoldaketa egitea.



ES 025



BEROPEL
egurrezko pelletak
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com



Jokoak, bazkaria, txapelketak, zozketak... izanen dituzte. ARTXIBOKOA

Iñaki Perurenak botako du pestetako txupinazoa

Bertso eskola eta Aurrera futbol taldeko kideak atzetik gelditu dira, hurrenez hurren

TTIPI-TTAPA

Santiburtzio pestetako txupinazoa nork bota erabaki dute herritarrek sagardo egunean, hilaren 21eko feria garaian eta San Juan bezperan egindako bozketan. Iñaki Perurena izan da bozkatuena, bertso eskolako kideen eta Aurrerako futbol taldearen aurretik. Bere

hautagaitza aurkeztu zutenek herri kirol munduan egindako ibilbidea eta kultur mailan egindako lana goraipatu zituzten: «eskultura, herri-kirola, pintura, bertsolaritza, euskara eta herria bera ere mundu zabalera ezagutarazteko ahalegina egiten duen enbaxadorea da».



UTZITAKO ARGAZKIA

Ekainaren 23a plaza giroan

Udako solstizioa herritarrek plazan biltzeko aitzakia izan zen beste urte batez. Arratsaldean gazteek ingurutxoak dantzatu zuten eta ondoren opilak dastatu. Iluntzean herriko kuadrillak afaltzeko bildu ziren. 23:00etatik aurrera suak piztu eta jauzian ibiltzeko aukera izan zuen nahi zuenak.

Patziku Perurena bere azken lanaz ariko da solasean uztail bukaeran

TTIPI-TTAPA

Bordarien sorrera eta bilakara Leitzan eta Areson (1427-1925) saiakera-liburua kale-ratu berri du Patziku Perurenak. Bertan bildutakoen inguruan ariko da solasean uztail bukaeran, 19:00etan igerilekuko kanpoaldean egingen duten saio berezian.

Bost mendetako ikerketa, 1427 eta 1925 urteen artekoa, egin du Patzikuk eta hainbat datu interesgarri bildu. Esaterako, 1726ko etxe erroldan 69 bordari ageri dira, nor bere bordan bizi dena familian.



Patziku Perurena.

Horiek eta beste hamaika kontu aditzeko aukera izanen dute. Haur, gazte zein helduak animatu nahi dituzte, herriari buruz gehiago ikasteko aukera polita da eta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gorritzaranen urteroko bilkura

Ekainaren 30ean Usategietako gainean pesta giroa izan zen nagusi beste behin. Basakabi aurrean bilduta auzotarrak eta kanpotik joandakoak elkartu eta haur jokoak, bazkaria, dantza txapelketa... izan zituzten. Txintxurrin txapelketa ere egin zuten eta Xabi Otermin izan zen irabazle.

Abuztuaren 14rako antolatu dute pestetako Gazte Eguna

TTIPI-TTAPA

Herriko pesten baitan, abuztuaren 14rako lotu dute Gazte Eguna. Ekaineko azkeneko asteburuan eman zuten egitarauaren berri eta egun osoan denetarik izanen da: poteo berezia, brindisa, gazte bazkaria, bingo musikatua eta

mojitoak eta arratsalde, iluntze zein gauean hainbat kontzertu. Bazkarirako txartelak dagoeneko eskura daitezke, Peritza eta Torrea tabernetan, 10 euroren truke. Dena ongi ateratzeko txandak ere egingen dituzte. Lanean zein pestan parte hartzeko deia egin dute.

Mobilizazioak hasi dituzte udal haur-eskolako langileek

0-3 Plataformak egindako eskaerekin bat egin eta ratioen jaitziera, sare bakarra sortzea eta soldata duina nahi dituzte

TTIPI-TTAPA

Itzaire haur-eskolako langileek Nafarroako 0-3 plataformak martxan jarri dituen mobilizazioekin bat egitea erabaki dute «egungo egoerak alda-keta» behar duela iritzita. Haurren heziketan adin-tarte hori funtsezkoa dela argudiatuta, Nafarroako Gobernuari dagozkion neurriak hartzeko eskaera egin diote: «gaur egun zehaztuak dauden ratioak ez dira haurren beharretara egokitzen. 0 eta 1 urtekoen gelan 8 haurren ardura du hezitzaile batek, 1 eta 2 urte artekoen gelan 12 haurrena eta 2 eta 3 urteko gelan 16 haurrena. Europatik ematen dituzten gomendioetan haur kopurua erdira jaistea gomendatzen dute» azaldu du Maixux Sukunzak, Itzaire haur-eskolako zuzendariak.

Ekumenak

Eskaera ez da horretara mugatzen: «Gure lanpostuaren ardurarekin bat datorren soldata, zikloa kudeatuko duen sare bakarra eta Nafarroa mailako hitzarmena behar

ditugu. Gaur egun Udalen esku daude hainbat haur-eskola, baina, oinarriak gero, adibidez ratioak, Nafarroako Gobernuak erabakitzen ditu». Horixe da Leitzako egoera, Itzaire haur-eskola, udal haur-eskola da eta udal-langileak dira bertan ari diren hezitzaileak. Azaldu dute horrek hainbat arazo dakartzala: «Nafarroako Gobernuak ikasle eta hezitzaile kopurua kontuan hartuta dirulaguntza ematen dio Udalari, baina edozein ustekabeko gastu dagoenean Udalak ordaindu behar izaten du».

Lan-baldintzak

Lan-baldintzetan ere ba omen da zer hobetua: «lau gela ditugu eta lau hezitzaile. Ezin ailegatuz ibiltzen gara askotan pardelak aldatu, jaten eman... behar zaienean. Gelaz gela neronek ibili behar izaten dut». Udalarekin negoziatzen ari dira eta «ahal duten neurrian laguntzeko borondatea» erakutsi omen dute. Mobilizazioetan familien eta udalen elkartasuna, laguntza eta babes eskatu dute.



AGUXTIN ARANBURU

Zaharberritutako Iberora bisita

Ekainaren 29an Ibero dorrean irekiera ekitaldia egin zuten luntxa eta zuzeneko musikarekin. Leitza eta Goizuetako herritar ugari hurbildu ziren eraikina barrendik ezagutzeko gogoz. Zaharberritutako Ibero defentsa dorrea, zubi goikoa eta inguruak ezagutzeko aukera bikaina izan zen.

Amazabal eskolako paretak margotu dituzte

Atekabeltz herrigunean egin bezala, Amazabal eskolako paretak kolorez jantzi ditu Liam artistak. Ekaineko azken astean aritu zen lanean eta emaitza benetan ikusgarria lortu zuen, ez da hala?



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko baratzeetan barna ibilaldia egin dute Jakoba Errekondoren eskutik

JM BARRIOLA

Ekainaren 21ean, Karrapetik abiatuta herri-baratzeetara bisita egin zuten hainbat herritarrek. Gonbidatu berezia izan zuten bidelagun, Jakoba Errekondo bertan izan baitzen. *Herri baratzeak, herri ondarea* izena eman zioten Leitzako

Udalak, LeitzEko eta Bertatik Bertarak antolatutako ekimenari eta bertaratu zirenek, argi ikusi omen zuten eskura duten ondarea.

Hainbat aholku eman zizkien adituak, garaian garaiko produktuen sustapenez eta praktika onen inguruan.



Hainbat azalpen eman zituen Errekondok. LEITZAKO UDALA



Castillo, Otondo, Gorrotxategi eta Arrula, aurkezpenean. JUAN MARI ONDIKOL

Miren Gorrotxategik irabazi du 2019ko (H)ilbeltza beka

'Vianako bihotza' egitasmoarekin 3.000 euro eskuratuko ditu orai eta bertze horrenbertze lana akitzerakoan

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta (H)ilbeltza elkarteak Txalaparta argitaletxearen laguntzarekin, euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko asmoz 2019ko (H)ilbeltza bekaren irabazlea zein den jakinarazi zuen ekainaren 28an egindako prentsaurrekoan. Miren Gorrotxategi Azkune (Azpeitia, 1981) izanen da hirugarren edizio honetako bekaduna, *Vianako bihotza* egitasmoarekin. Hamar lan aurkeztu dituzte lehiaketara.

Aurten, sorkuntza sarituko du bekak, iaz, aldiz, nazioarteko euskal literatura euskaratzeko beka izan zen eta hori Josu Barambones Zubiriak irabazi zuen. Balleko Etxean egindako agerraldian, epaimahakide izan diren Joseba Otondo alkatea, Castillo Suarez (H)ilbeltza elkarteko kidea eta Garazi Arrula Txalaparta argitaletxeko ordezkaria izan ziren, Miren Gorrotxategi irabazlearekin batera.

Joseba Otondok eskualdeak literatura beltzarekin duen harremana nabarmendu zuen

Jose Antonio Loidiren *Hama-bost egun Urgainen* edota Mariano Izetaren *Dirua galgarri* lanak gogora ekarriz. Euskal Nobela Beltzaren astearen harira sortu zen beka, «erran dezakegu Baztan euskarazko nobela beltzaren erreferentziazko eskualdea dela».

Lehenbiziko edizioa sormen beka izan zen, Miel Angel Elustondok irabazi zuen eta *Kezko bola baten itoak birikak* eleberria argitaratu zuen 2019 urte hasieran. Iazko deialdia itzulpenari egokitu zitzaion eta Patricia Highsmith estatubatuarren *The Blunderer* nobela euskaratzen ari da Josu Barambones sariduna. Urte akaberan karrikaratuko dute euskaraz.

Miren Gorrotxategiri 3.000 euro emanen dizkiote orain eta bertze horrenbertze lana akitzerakoan. 2020ko abenduan argitaratuko du lana Txalaparta argitaletxeak. Castillo Suarez, epaimahaiaren izenean azpimarratu zuenez, «literatura beltza izanagatik ere, proposamenak ohiko polizia eta detektibe istorioetatik ihes egiten du».



UTZITAKO ARGAZKIA

Piraguarekin zientzialariak gurean

Piragua (Pirineos-Agua) egitasmoaren baitan antolatutako jardunaldietan, Pirinioetako bi aldetako zientzialariek klima-aldaketa, ura eta Pirinioak izan zituzten hizpide ekainaren 17tik 20ra Arizkunenean egindako topaketan. Bidasoko arroa aztertu zuten, Amaiurretik Doneztebera.



Anizko eta Aniztik kanpoko aniztarrek herria bisitatzen. MAITANE MARITORENA

Aniz abizena dutenak eta aniztarrek elkartu dira hogeita bosgarren aldiz

MAITANE MARITORENA ANIZ

Benidormen, Madrilén, Logroñon, Kanpezun eta Iruñean bizi diren Aniz abizena dutenak hogeita bosgarren urtez etorri ziren ekainaren 29an Anizerat. Goizean Elizondon barna bisita gidatua izan zuten eta ondotik aniztarrekin bazkaltzerat joan ziren. Bazkalondoan Anizerat joan ziren eta gastanategia bisitatu zuten, elizarat joan... eta akitzeko, honen guztiaren antolatzaile eta bulkatzaile izan zenari eta denari, Prospero Anizi, Anizko herriak esker onez euskal makila erregalatu zion.

Ospakizuna 1994an hasi zen, Aniz abizena zuen pertsona bat aniztarrekin harremanetan paratu, eta ordutik urteroko hitzordua bihurtu da. Lehenbiziko topaketa hura Anizen egin zen eta Aniz abizena zuten Arabako familiak eman zion hasmenta. 1995ean, Ziraikin elkartu ziren, han Miren de Aniz izena duen ermita bat baita, eta garai batean Aniz izeneko herria ba omen zen. Ordutik goiti bertze herri eta lekuak bisitatu dituzte: Aralar, Kanpezu, Gares, Uxue, Ororbia, Gasteiz... Aurten sei garrenez etorri dira Anizera.



Ikastetxeko ikasle ohiak eta pilotariak, Segundo Anaiaren irudia gibelean.



Manuel eta Petra erraldioen artean, Oronozko konpartsa. FERNANDO ANBUSTEGI

Zaharberritutako frontoia eta erraldoi berriak Oronozen

San Martin ikastetxeko ikasle ohien bilkurarekin batera estreinatu zituzten ekainaren 29an

TTIPI-TTAPA ORONOZ-MUGAIRI

San Martin ikastetxeko ikasle ohiek urteroko anaitasun bes-ta ospatu zuten ekainaren 29an. Ekitaldia aprobe txatu zuen Oronoz-Mugairiko herriak garai bateko ikastetxeko pilotaleku zaharberritua inauguratzeko eta herriko bi erraldoi berriak plazaratzeko.

Meza eman zuten Oronozko elizan Ramon Apezetxea apezak (garai batean ikastetxeko zuzendari ere izan zen) eta Alfonso Garziandiak. Juan Cruz Ripollek jo zuen organoa eta Mari Carmen Torroba sopranoak kantatu zuen. Ondotik,

Ornoz-Mugairiko herriak antolatutako jaialdia hasi zen, aitatxi eta amatxi erraldioen bedeinkapenarekin. Hain zuzen, Petra (Petra Erice, Catalan etxekoa, 102 urterekin hil zen) eta Manuel (Manuel Arretxea jauregikoa, 103 urterekin hil zen) izenak eman dizkiote erraldoiei, herrian ehun urte betetzera ailegatu ziren lehen emakumea eta gizasemea izaki. Florentino Goñik, erraldoiak egin ahal izateko laguntza eman duten pertsona guztiak eskertu ondotik, aipatu zuenez, «hainbertze lan egiten duten eta hain esker on guti jasotzen

du ten herriko aitatxi-amatxi guziendako omenaldia izan nahi dute». Oronoz-Mugairiko konpartsa jendetsuak jotako doinuekin dantzatu zuten lehen aldiz erraldoiek.

Zapia Irribarriari

San Martin Ikastetxeko Segundo Anaia frontoia zaharberritu dute, Nafarroako Gobernuako Kirol eta Gaztediaren Institutuak eta Balleko Etxeak sinatutako hitzarmen baten bidez. Barneko eta kanpoko hormak garbitu, zuloak eta artekak estali eta margoketa lanak egin dituzte, 17.182 euroko aurrekontuarekin.

Inaugurazio-ekitaldian, ikastetxeko ikasle ohien izenean, Javier Altzugurennek Segundo Anaia gorai patu zuen, ikastetxearen, herriaren eta pilotaren alde egin zuen lana azpimarratuz. Urtetan Pilotaren Eguna antolatu zuen Segundo Gangoitiak eta Garcia Ariño, Gallastegi, Arriaran, Ogueta, Bergara edo Pierola bezalako

garaian garaiko pilotari handiak ekarri zituen. Joseba Otondo Baztango alkateak frontoia zaharberritzeko egindako lana eskertu zien oronoztarrei. Bittor Elizagoinen bertsolariak bertsotan adierazi zuenez, Iñaki Otxandorena eta Mikel Goñi pilotariak frontoi horretan ikasi zuten pilotan. Oronoztarrek oroigarri bana eman zioten jaialdian aritu ziren pilotariak eta jaialdia antolatu zuen Florencio Lasagari eta Ruth Peñak, Oronozko alkateak, zapia jarri zion buruz buruko txapelketa irabazi duen Iker Irribarriari.

Inaugurazio ekitaldia boro-biltzeko, pilota partida jokatu zuten eta Irribarria eta Zabaletak 22-14 irabazi zieten Ezkurdia eta Mariezkurrenari. Segundo Anaiaren irudiaren aitzinean familia-argazkia atera ondotik, Urgain jatetxean bazkaldu zuten bai ikasle ohiek, baita oronoztarrek ere, egun bikainari eta ospakizun hirukoitzari akabaila emanez.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

BORDALARRIA

Gure Haragia
 Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
 Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
 T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Oharriz Auzoa z/g • LEKAROZ
 T. 948 452 143 • 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
 TALLER DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Nekazaritza Politika Bateratuari buruzko udako ikastaroa

Baztango Udalak EHurekin eta Etxalde mugimenduaren elkarlanean antolatu duen ikastaroa irailaren 27an egingen da

TTIPI-TTAPA

Nekazaritza Politika Bateria-tuaren (NPB) eredu berriak landa eremu bizia sortzen laguntzen al du? 2021-27 NPB berriaren aukerak elikadura sistema osasuntsuak eta landa eremu biziak lortzeko. Izen-buru hori duen udako ikastaroa antolatu du Baztango Udalak EHurekin eta Etxalde mugimenduarekin elkarlanean. Ikastaroa irailaren 27an izanen da, Arizkunenean, baina dagoeneko zabalik dago izena emateko epea.

Landa eremua eta nekazaritza sektorea Euskal Herriko gizarte eta ekonomiarentzako «esparru estrategikoak» direla iritzita eta horra zuzendutako gaur egungo politikak «nagusiki NPBren eskutik» datozela ikusita, eztabaida piztu nahi dute orain definitzen ari diren 2021-27 aldirako NPB berriaren inguruan. Gizartearen gehiengoarentzat «politika arrotza» dela uste dute antolatzaileek eta «gure gizartean ez dela eztabaida nahikorik izan». Horri irtenbidea eman nahi diote.

Egitaraua

09:00etatik 09:15era dokumentazio banaketa eta harre-ra. 09:15etik 10:00etara irekiera ekitaldia. Mirene Begiristain EHUKo Finantza Ekonomia II Saileko irakasleak, Joseba Otondo Baztango alkateak eta Jean Pierre Saint Marie Etxalde-Nekazaritza Iraunkorreko kideak parte hartuko dute. 10:00etatik 11:00etara Nekazaritza Politika Bateria aztergai izanen dute. *NPBren izaera eta edukia: lehen zuta-*

beko dirulaguntzak hizpide izanen ditu Eduardo Malagon EHUKo Ekonomia Aplikatua V Saileko irakasleak. 11:00etatik 12:00etara *NPBren dirulaguntzen aplikazioa Europan: Frantziako eta Espainiako kasuak* aipatuko ditu Efren Areskurrinaga EHUKo Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasleak. Atsedendian kafea eta produktu agroekologikoak dastatzeko aukera izanen dute. 12:30etik 14:00etara mahai-ingurua egingen dute. *Nola eragiten digu NPBk Euskal Herrian?* gaiaz ariko dira Imanol Ibero EHNEko Nafarroako koordinatzailea, Juan Manuel Intxaurrendieta INTIAko zuzendaria, Mikel Iribarren Euskal Herriko Laborarien Batasuneko zuzendaritzako kidea eta Alazne Intxauspe Etxalde nekazaritza iraunkorreko zuzendaritzako kidea. Mirene Begiristain EHUKo irakaslea izanen da moderatzailea. Bazkalondoan, 15:30etik 16:30era mintzaldia: *Elikadura Politika bateratu baterantz Europako Batasunean*, IPES-FOODEko Francesco Ajenaren eskutik. 16:30etik 18:00etarat mahai-ingurua egingen dute: *Esperientzia tailerra: elikadura estrategien aplikazio eraikitzaileak gure udalerrri eta eskualdetan* gaia izanen dute hizpide Joseba Otondo Baztango alkateak, Marijo Imaz Urduñako Udaleko Landa Garapeneko dinamizatzaileak eta Imanol Esnaola Gai-degiako zuzendariak, Mirene Begiristain, EHUKo irakasleak gidatua. 18:00etatik 18:30era amaiera instituzionala egingen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bozateko bestak giro ederrean

Bi urtetik behin egiten duten hitzorduari hutsik egin gabe, bestak ospatu dituzte Bozaten. Ekainaren 29an mus txapelketa, bazkaria, jokoak, dantzaldia eta su-artifizialak izan zituzten. Giro ederrean pasatu zuten eguna eta gehiago luzatu nahi izan zutenek Erratzun segitu zuten bestan.



JUAN MARI ONDIKOL

Arizkungo sanjuanak ere ederki

Ohiturari eutsiz, txupinazoarekin eta txopo goratzearekin hasi ziren Arizkungo San Juan bestak. Aitzinetik, dianak ere izan zituzten (argazkian). Ekainaren 21ean, gazte-bazkariak eta mutil-dantzaz gain, Arizkun Rock jaialdia izan zuten, Nafarroa 1512, En Tol Sarmiento eta DJ Tirri&Teryrekin.

Miguel Cañazaren margo erakusketa Arizkunenean

Miquel Cazaña Llagostera artistaren (Bartzelona, 1980) margo erakusketa zabaldu zuten ekainaren 28an Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Erakusketa zabalik egonen da uztailaren 21era arte, egunero 11:30etik 20:30era.

Billy&Bloomfish eta Pottoka larunbatean Itzalargikobordan

Euskal Herrian egiten ari diren itzuliaren baitan, Erratzun eta Iruritan eskainitako emanaldien ondoren, Billy&Bloomfish bikoteak eta Pottokak kontzertua eskainiko dute uztailaren 13an, larunbatean 19:00etan Elizondoko Itzalar-giko borda jatetxean.



Baztandarren biltzarrako kideak, aurtengo besta aurkezten. UTZITAKO ARGAZKIA

Bidelagunek irekiko du Baztandarren Biltzarrako desfilea

Euskal Herriko musikari eta dantzariekin batera, atzerriko euskal etxeetakoak ere espero dituzte uztailaren 21ean

TTIPI-TTAPA

Landa eremuan gizarte bolutariotza garatzeko xedez sortu zen Bidelagun elkarteak hogeitau urte bete ditu aurtan. *Bertzelako mundua posible da* lelotzat hartuta, gaixoak, adinekoak, ahalmen urritasuna dutenak edota egoera txarrean dagoen edozein talderi laguntza eskaintzen die. Baztanen egindako lanaren aitortza gisa, uztailaren 21eko Baztandarren Biltzarrako orgen desfilea irekitzeko ohorea izanen dute elkarteko kideek.

Aurtan ere, orgen desfilea Euskal Herri osoko musikari eta dantzariak gonbidatzeko ahalegin berezia egin dute. Berritasun modura, atzeritiko etorritako talde bat ikusteko parada izanen da aurtan. San Francisco Basque Culture Center, Chino Basque Club, Kern County Basque Club

(Bakersfield), Iparreko Ibarra Basque Club (Rocklin) eta Fresno Basque Club euskal etxeetako 50 musikariz eta dantzariz osatutako talde batek hartuko baitu parte desfilean. Horiekin batera, bidaian etortzekoak dira beren senideak ere. Orotara, 160 lagun inguru etorriko dira; horietako anitzek jatorri baztandarra dute, gainera.

Aurtan, Karmele Gomez artistarena izan da Baztandarren Biltzarra iragartzeko kartela egiteko ardura. Aitzineko kartelekin alderatuta, proposamen urratzaileagoa egin du Gomezek. Irrintzi baztandar bat irudi bilakatu du, sinestesia deituriko zentzumenaren bidez. Kartel hori oinarritzat hartuta kamisetak egin dira, eta Mendi ostatuan erosi daitezke. Bertzela, larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara eta bes-

ta aitzineko astean arratsaldero, elkartearen egoitzan izanen dira eskuragarri.

Elizondoko Merkatu plazan egingen den bazkariari dagokionean, Baztandarren biltzarrak bertako nekazari eta abeltzainek ekoiztutako produktuen aldeko apustua egiten jarraitzen du. Iaz bezala, bazkari txartelak 23 euroan salduko dira. Uztailaren 17an izanen da aurrez-aurreko salmenta, 10:00etatik goiti, Baztandarren Biltzarraren elkartearen egoitzan. Txartelen batesoratu gero, bestaren egunean, uztailaren 21ean eskuratu ahal izanen dira, goizez, Elizondoko plazan paratuko den txosna ondoko mahaian.

Bertzalde, bestan sortzen diren hondakinak murrizteko lanean jarraitzen du elkartea. Bertze urte batez, edalontzi berrerabilgarrien erabilera sustatuko du. Berrikuntza modura, ohiko komun kimo-koez gain, egun dauden alternatibak Baztandarren Biltzarrak bezalako besta handi batean egingarriak diren ala ez jakin nahi du elkartea. Hala, belar bola bat erabiliko da pixa-toiki modura. Alternatiba horrek funtzionatuz gero, litekeena da apurka-apurka komunaren eredia aldatzen joatea.

Denendako besta

Baztandarren Biltzarra denendako besta izatea nahi du Baztandarren Biltzarra elkartea. Horregatik, ez du mutil-dantza baztertzailearik babes-tuko. Are gehiago, orgen desfilearen ondotik, Elizondoko plazan neskek zein mutilek dantzatzeko aukera izaten duten mutil-dantzan parte hartzeko deia egiten du. Izan ere, «denek, gizon ala emakume den inporta gabe, bestaz gozatzeko aukera izatea» ezinbertzekotzat jo du. Berdintasuna lan ildo bat izaki, elkartea argi utzi du sexu erasoen salaketan aitzinean, eraso sexisten aurkako protokoloa martxan paratuko duela.

Saharako umeak gurera ekartzeko otorduen zozketako zenbaki saridunak

TTIPI-TTAPA

2019ko udan Saharako haurrak Baztan-Bidasoaldera ekartzeko laguntza moduan, aurtan ere bi pertsonentzako afariak edo bazkariak zozketatu ditu Saharaztan, Baztan-Bidasoko Saharar herriaren aldeko elkartasun taldeak. 31 jatetxe bat egin dute Saharaztanen ekimenarekin.

31 jatetxetan otorduak zozketatuak

Bidaia eta egonaldiaren gastuetan laguntzeko zozketa egin du Saharaztanek, urtero egin ohi duen moduan. Zenbaki saritu bakoitzak bi pertsonentzako otordua izanen du 31 jatetxetan. Joan baino lehen deitu egin behar da eta saritutako txartela otordua egin baino lehen erakutsi beharko dute. Hauek dira jatetxeak eta bakoitzari dagokion zenbaki sariduna.

ZENBAKI SARIDUNAK	
BEOLA (ALMANDOZ)	3345
ATERPE (ARANTZA)	0846
PABLOENEA (ARANTZA)	3632
ORDOKI ERRETEGIA (ARIZKUN)	3278
BIXTA-EDER (ARIZKUN)	0822
BEINTZAKO OSTATUA (BEINTZA)	1092
ERREKALDE (BERA)	0666
XUGA (BERA)	1783
ZALAIN (BERA)	2644
BELARRA (DONEZTEBE)	1604
ELBETOKO POSADA (ELBETE)	1521
HILARION (ELGORRIAGA)	0466
GALARZA (ELIZONDO)	0817
ESKISAROI (ELIZONDO)	0196
ITZALARGIKOBORDA (ELIZONDO)	2264
KASTONEA (ERRATZU)	2777
ELUTSA (ETXALAR)	2929
HERRIKO OSTATUA (ETXALAR)	2452
FRANSENE (GARTZAIN)	3447
OLARI (IRURITA)	3530
ALTUXUEA ERRETEGIA (ITUREN)	2080
HERRIKO OSTATUA (ITUREN)	0698
ABARUN ATERPEA (AURTITZ)	3086
KATTALIN (LEGASA)	2743
LARRALDEA SAG. (LEKAROZ)	1566
ETXEBERTZKOBORDA (LEKAROZ)	0915
LINDDURRENBORDA SAG. (LESABA)	1200
URGAIN (ORONOZ-MUGAIRI)	1883
ARIZTIGAIN KANPINA (SUNBILLA)	1607
HERRIKO OSTATUA (ZUBIETA)	0544
GRAXIANA (ZUGARRAMURDI)	2534



Kultur Hilabetea giro ederrean ospatu dute Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxean. UTZITAKO ARGAZKIAK

IDEAK 60.000 euro ordaindu beharko dizkio Udalari

Iruñeko Auzien Epaitegiak Udalaren alde egin du, bere garaian Nafarroako Administrazio Auzitegiak (NAA) egin zuen bezala

TTIPI-TTAPA

Duela hamar urtetik honat Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Zahar-Etxea kudeatzen duen Innovación y Desarrollo Asistencial (IDEA) enpresak 60.000 euro ordaindu beharko dizkio Balleko Etxeari. Kopuru hori, enpresak 2013, 2014

eta 2015 urteetan izan zituen irabazien portzentajeari dagokio, kontratuaren arabera, urtez urteko datuei erreparatuz ordaindu behar duena.

Gisa honetara, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien hirugarren Epaitegiak ez du ontzat hartu Ideak berak Na-

farroako Administrazio Auzitegiak (NAA) 2018ko otsailaren 27an hartu zuen erabakiaren kontra aurkeztutako errekurtsua. Orduan ere NAAk ez zuen ontzat hartu Zahar Etxeko patronatuko presidentearen erabakiaren kontra enpresak jarri zuen errekurtsua. Hain zuzen, Zahar-Etxeko patronatuko presidenteak onartu zuen hiru urte horietako kontuak eta 30 eguneko epea eman zion enpresari 2013an (14.734,16 euro), 2014an (19.434,90 euro) eta 2015ean (27.966,44 euro) zor zuena bere borondatez ordaintzeko.

Orain ere, azken erabaki honen kontrako errekurtsua jar dezake IDEA enpresak.

58 haurrek parte hartuko dute Elizondoko Udako Jostaldietan

TTIPI-TTAPA

Baztango 58 haurrek parte hartuko dute Euskara Batzordeak antolatuta abuztuaren 5etik 30era Elizondoko eginen diren udako jostaldietan. Hala ere, berrikuntza batekin datoz aurtengo udako jostaldiek. Izan ere, normalean Erratzun ere udako jostaldiek antolatu izan dituzte eta Amaiur eta Erratzuko haurrek parte hartu izan dute hor. Baina urtetik urtera jostaldietan parte hartu izan duten haurren kopuruak beheiti egin duela ikusita, aurtengo Erratzun ez antolatzea erabaki dute. Euskara Batzordetik adierazi dutenez, «udako jostaldien helburua euskara sustatzea da eta Elizondoko dugu hutsunerik handiena». Hala, «aurtengo apustua Elizondokoa indartzea» izan dela nabarmendu dute, «bertako haurren euskararen erabilera eragin ahal izateko».

Haur kopurua urtetik urtera

Erratzuko jostaldiek indarra galdu duten bezala, goiti egin dute azken urteotan Elizondokoek. 2014an 41 haur apuntatu ziren Erratzun eta 15 Elizondoko. Euskara Zerbitzuak borts begirale hartu zituen haurrez arduratzeko. 2015ean Erratzun 42 haurrek eman zuten izena eta 34k Elizondoko. Lau begirale aritu ziren. 2016an lau begiralerekin 24 haur ibili ziren udako jostaldietan Erratzun eta 33 Elizondoko; 2017an, begirale kopurua mantenduz, 20 haur bildu ziren Erratzun eta 37 Elizondoko; 2018an 17 haurrek eman zuten Erratzuko udako jostaldietan izena eta 55k Elizondoko. Zazpi begirale hartu zituzten. Aurtengo berriz, zazpi begirale arduratuko dira Elizondoko udako jostaldietara apuntatu diren 58 haurrez.

Kultur Hilabetea bikain joan da

Francisco Joaquín Iriarte Zahar-Etxean Kultur Hilabetea bikaina ospatu dute: solasaldiak, kontzertuak, dantza-emanaldiak... Ekainaren 20an Elizondoko bama ateraldia egin zuten Bidelaguneko boluntarioekin eta gero aperitiboa.

Familiaren Eguna

Kultur Hilabetea borobiltzeko, ekaineko azken asteburuan

Familiaren Eguna ospatu zuten Zahar-Etxean eta familiakide aunitz hurbildu ziren goiza pasatzera. Ideako zuzendaria den Rafael Sanchez Ostizek elkartasunari buruzko aipamen berezi bat egin zuen, baita belaunaldien arteko harremanetan sakondu ere, aitzineko egunetan Zahar-Etxean kanpaldian egondako haur taldea bertan zegoela. Esker modu-

ra, parte hartzeagatik diploma bat eman zieten, eskulan tailerran egindako koaderno bat eta taldearen argazkia. Aurtengo kanpaldian ekinga berezi bezala musikoterapia tailerra izan dute, egunero, eta ekainaren 29an ere aitzineko egunetan prestatzen aritu ziren kantuak abestu zituzten, giro polita sortuz. Eta nola ez, hori dena luntx batekin borobildu zuten.

Xaretako landareen ikerketaren harira aurkezpena

Herritarrei informazioa eskatuko diete eta hori biltzeko laguntza eskertuko dute

MARIFA ETA KORO

Ekainaren 28an proiektu polit bat aurkeztu zigiten museoan: Xaretako landarediaren herri ezagutza jasoko duen proiektua. Gure lau herrietan lortzen diren belar, zuhaitz, lore eta edozein landarearekin zerikusia duen zernahi bildu nahi dute:

izan dadila jateko, sendabela-rrerarako, jostatzeko, lan-tresnetarako, kantutarako... Lan hori NUPEk, ETNIKERen laguntzakin, emana da martxan, eta arduradunak Amaiur Unzueta eta Naira Ardanaz dira. Uda guztian lanean arituko dira.

Abuztuan apez aldaketa izanen dute herrian

Jabier Aldabe apezak herria utziko du, Sakana alderat joanen delako. Ekainaren 30ean apez izendatu berria den Jose Angel Zubiaurrek abuztuan hartuko du ardura. Bitxikeria gisa, aipatzekoa da San Pedro eguneko meza Poloniako apez batek eman zuela.

'Ilargi betea, sorginen larrea' abuztuaren 2an

Abuztuaren 2an *Ilargi betea, sorginen larrea* bisita anteztua izanen dute herrian. Eskola aitzineko plazatxotik abiatuko dira 19:30ean. Sarre-rak Sorginen Museoan salduko dituzte (10 euro helduek, 6 haurrek) eta gehienez 60 lagun bildu ahal izanen dira.




UTZITAKO ARGAZKIA

Antzerki emanaldi berezia

Sorgin haizea antzerki-taldeak emanaldi berezia eskaini zuen ekainaren 30ean. Alde batetik, eguerdian eskaini zutelako (usaian gauzez egiten dute); eta bertze aldetik, Larungo kaskoan egin zutelako izan zen berezia. Larungo puntan garai batean akelarreak egiten zirela zioten.

San Juan suen bueltan, gozamina nagusi

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Zugarramurdin ere San Juan suak piztu zituzten. Gaztetxoak zein helduak suaren bueltan saltoka ibili ziren, txarrak kanporatzea eta onak barneratzea eskatuz.



Arburuatarrek euren ospakizuna egin dute

Bertze behin, ekainaren 29an, hondarreko larunbatean, arburuatarrek beraien besta-bilkura egin zuten. Argazkian ageri diren gaur, gazte eta helduek bat egin zuten. Guztira 70 lagun inguru bildu ziren eta Azketa jatetxean egin zuten ospakizun-besta. Mahaiaren bueltan, bazkaldu bidenabar, solasaldi ederrak izan zituzten. Argazkiak islatzen duenez, arras ongi pasa zuten eta berriz biltzeko prest daude.



UTZITAKO ARGAZKIA



Jende ainitz ibili da bestetan izan diren ekitaldietan. PIERRE BASTRES ETA FRANCK DOLOSOR

Giro ederrean iragan dira herriko bestak

Bisitariak ongi erantzun diete ekitaldiei eta antolatzaileak kontent agertu dira emaitzarekin

PIERRE BASTRES

Ereiaroaren 27tik uztailaren 2rat, bortz egun iraun zuten herriko bestak, eta antolatzaileen erranetan «arras ongi iragan dira».

Mintzaldia eta zikiro jatea jendetsuak

Hasteko, besten bezperan, Xabier Elosegik eskaini *Senpereko (eta Lapurdiko) Euskara XVIII. mendean* mintzaldirat 65 behatzaile hurbildu ziren. Ortziraleko zikiro jateak, usaian bezala, berant arte iraun zuen, baina aurten, «jendar-meak etorri dira bestaren burutzeko, eta legezko oreña gaitzatu genuelakoan...», gaztigatu du Romain Guilcou komiteko lehendakariak.

Kantaldi arrakastatsuak

Larunbateko eta igandeko ekitaldiak ere arrakastatsuak

izan ziren. Larregiko Patrick kantaldian zen, eta ororen buru onetsi zuen Eneko Lamothe eta Julien Borthairen lehenbiziko kantaldia: «polita zuan, alabaina. Beraiek idatzitako kantuak ematen dituzte. Azken kantua eskaini ondok, behatzaileek esku-zartak jo zituzten bertze kantu

bat eman zezaten, baina bertze kanturik ez zuten, denak kantatuak zituztelako!».

Elkarteen xokoa

Asteleheneko egun-pasaren ondok, asteartean mundu bat bildu zen pilota-plazan, elkarrekin antolatutako xokoa: xutik edo jarririk, jateko eta edateko onaz gozatu zuten herriarrek. Lehen aldia zen elkarrekin beren gain hartzen zutela besta egun hori. Etxolak ezarri eta animazioa paratu zuten eta entsegua izigarri ongi erdietsi zuten.

Hala bada, Jondoni Petri bestak nola iragan diren ikusita kontent gelditu dira bai antolatzaileak baita bestazeleak ere.



Gauargik gozatzeko bide emanen du.

Gauargi munduko haurren dantza topaketa hilaren 17an Larrekon

P. BASTRES

Munduko hainbat txokotako haur dantzariak biltzen dituen Gauargi jaialdiaz gozatzeko aukera izanen da uztailaren 17an. Badira hogeitau urte baino gehiago Gauargi elkarrekin Munduko Haurrak eta Dantzak jaialdia antolatzen duela eta urte guztiz topaketa aiantzezinak antolatu izan ditu, hiru urte bat haur dantzari errezibituz. Aldi honetan, Euskal Herriko, Argentinako eta Txetxeniako haurrak gonbidatu dituzte.

Ikusgarria asteazkenean, hilak 17, eskainiko dute Larreko kultur-gunean, 20:30ean. Sartzea 11 euro ordaindu beharko da eta sei euro 15 urtez azpikoek. Hiru urtetik behekoek urrikan izanen dute.

BERA (administraritzita) 31780 Bera	DANTXARINEA 31712 Urdax
IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Iruñ
LUZAIDE 31660 Luzaide	

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25º eta urtarrilaren 1º izan ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

Pottoka lehiaketarako izen-ematea zabalik da

Uztailaren 27an egingen da pottoka arrazako behoka eta behorren lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko Pottoka Elkar-tea urteroko hitzordua pres-tatzen hasia da. Aldi honetan, uztailaren 27an egingen da pottoka arrazako behoka eta behorren lehiaketa.

Lehiaketara bi eta hiru urte-ko behokak aurkeztzen ahalko dira, baita 18 urte bitarteko behorrek ere, kumearekin edo gabe. Beti ere pottoka arraza-koak izan beharko dute; puruak baldin badira A izendapena hartzen dute eta nahasketa baldin badira B izendapena.



150 bat pottoka espero dituzte.

behorrek osatuko dute laugarren kategoria eta honetan hiru sari banatuko dituzte: 4 eta 18 urteko mendiko, soroko eta B mailako pottokei dagozkienak.

Lau kategoria

Lau kategoriatan banatuko dute lehiaketa: alde batetik, bi urtekoen kategorian, mendiko pottokak, sorokoak eta B izendapena dutenak sarituko dituzte; gauza bera egingen dute 3 urteko behoka pottoken kasuan. Hirugarren kategorian, kumea duten behorrek sartuko dira eta sei sari banatuko dituzte: lau eta zazpi urte artean dituzten soroko, mendiko edo B mailako pottokak eta zortzi eta 18 urte artean dituztenekin gauza bera. Kumeak dituzten

Izen-ematea

Izen-ematea aitzinetik egin beharko da. Frantziako Zaldi eta Ekitazio Institutuaren barne daudenek uztailaren 19a baino lehen eman beharko dute izena eta ez daudenek uztailaren 16a aitzin. Xehetasun gehiago www.anpottoka.fr atarian eskura daitezke.

Antolatzaileek iragarri dute-nez, 150 bat pottoka espero dituzte (kumeak kontatu gabe) eta egun horretan, lehiaketaz gain, behoka eta behorren erakustaldia antolatuko dute.

Antzinako gauzen merkatua uztailaren 19an eta 20an egingen da

TTIPI-TTAPA

Hitzorduari hutsik egin gabe, bertze urte batez, antigoaleko gauzen merkatua edo Kukuxu Besta antolatu du Sarl Orfo-Pub elkarteak. Uztailaren 19an eta 20an izanen da eta bi egunez, goizez eta arratsalde, ehun erakusmahai baino gehiago

paratuko dituzte herrian barne. Horieta hainbat produktu ikusi eta erosteko aukera izanen da: arte bildumak, liburuak, bitxiak, arropak, al-tzariak... 2013an egin zuten lehenbizikoz Kukuxu Besta eta geroztik, aldi oroz ehunka bi-sitari bildu ditu.



MIXEL GERENDIAIN

201 mendizale Sara Oinez ibilaldian

Aurtengo Sara Oinez mendi ibilaldiak izan duen erantzuna ikusita kontent gelditu da Sar Hitzela elkarteak. Aroa lagun, 201 ibiltarik parte hartu zuten: 80 bat herritar, 20 bat senpenter, beratarak, etxalartarrak... Hala, Har Hitzak 2020an berriz ibilbidea antolatuko duela adierazi du, Larun zeharkatuz.

Andeetako musika aditzeko aukera izanen da uztailaren 24an

TTIPI-TTAPA

Sarako Biltzarrak Kirkintxo musika taldea gomiatu du eta Andeetako musikaz gozatzeko aukera izanen da uztailaren 24an, asteazkenean, elizan. Gisa honetara, inken herrialdean hain ohikoak diren hainbat musika-tresna zuzenean aditzeko aukera izanen da: txarangoa (hari-instrumentua), kena, zanpoina, bonboa... Kontzertua 21:00etan hasiko da. Sartzea bortz euro ordaindu beharko da, baina 15 urtez beheetikoek urririk sartzeko aukera izanen dute.



Kirkintxo musika taldea.

Ez da egun hauetan musikari lotuta egingen den hitzordu bakarra izanen. Uztailaren 18an, Lokarri abesbatzak kantaldia eskainiko du elizan. 21:00etan hasiko da.

Margolan eta eskultura erakusketa

Usaian bezala, Larrungo Kolorak elkarteak lagunak margolan eta eskultura erakusketa antolatu dute uda honetan. Lanak uztailaren 23tik abuztuaren 8ra Lur Berri gelan egonen dira ikusgai, 10:00etatik 12:30era eta 15:30etik 19:00etara.

23. Saguzarren Gaua ospatuko dute lezeetan

Aurten 23. aldiz, Saguzarren Gaua antolatu dute lezeetan. Uztailaren 25ean egingen dute eta egun horretan, 20:00etatik aitzinera saguzarrak ikusi eta beraie buruz gehiago ikasteko aukera izanen da. Ekintza horretan parte hartzeko ez da fitsik ordaindu beharko.



Nerea Sorondo txapeldun, Astondoa eta Ariztegirekin, Mungiako podiumean.

Euskal Herriko txapeldun izan da Nerea Sorondo

Ekainaren 30ean Mungian jokaturako aizkora txapelketan, Irati Astondoa eta Maika Ariztegi nagusitu zitzaion

TTIPI-TTAPA BERA

Emakumezkoen Euskal Herriko harri-jasotze eta aizkora txapelketak jokatu zituzten

ekainaren 30ean Mungian (Bizkaia). Harri-jasotzen ez zen eskualdeko kirolaririk aritu, baina aizkoran, Maika

Ariztegi iturendarra eta Nerea Sorondo beratarra aritu ziren, Irati Astondoa bizkaitarrarekin batera. Iazko lehen edizioan bezala, Nerea Sorondo beratarra suertatu zen txapeldun.

36 ontzako bi enbor, 45 ontzako bi enbor eta 54 ontzako enbor bat 17 minutu eta 3 segundotan moztu zituen Sorondok txapela janzteko. 36 segundo gehiago behar izan zituen Irati Astondoa (17.39) eta hirugarren izan zen Maika Ariztegi (19.40).

Harri-jasotze txapelketan Julia Martinez eta Karmele Gisolaren arteko lehia izan zen. 87,5 kiloko harri zilindrikoarekin, 75 kiloko kubikoa-ekin eta 62,5 kiloko bolarekin aritu ziren, hiruna minutuko txandatan eta Karmele Gisolak suertatu da txapeldun. Denera 44 jasoaldi eman zituzten (12 jasoaldi zilindroari, 7 kubikoari eta 25 bolari), 3.137,5 kilo denera. Martinezek 33 jasoaldi egin ditu (9 zilindroari, 7 kubikoari eta 17 bolari), 2.375 kilo denera.

Miguel Indurain Fundazioko bekak eskualdeko kirolarientzat ere

TTIPI-TTAPA

Miguel Indurain Fundazioak Nafarroako 152 kirolariri eman dizkie aurten bekak, 2018an lorturiko emaitzak direla eta.

Eskualdeko kirolariei dagokienez, programa olinpikoaren baitan eta emaitzen arabera, Aresoko Adur Etxezarreta eskiatzaileak 3.761,6 euro jasoko ditu eta Sunbillako Ane Petrarena atletak 2.821,2 euro. Etxezarreta lehenbizikoa da gizonezkoen jautsierako estatuko ranking-ean eta Petrarena laugarren izan zen 100 metroko Espainiako txapelketa absolutuan eta bosgarren 4x100 metrokoan.

Euskal pilota programan, Oian Canabal igantziarrak 300 euro jasoko ditu, trinketearen eskuz binaka GRAVNI txapelketa irabazi zuelako; Jon Olaiola lesakarrak 300 euro, eskuz banaka federazio arteko txapelketa irabazi zuelako eta Iker Salaberria goizuetarrak 300 euro, eskuz binaka federazio arteko txapelketa irabazi zuelako.

Herri Kirol programan, Beti Gazte sokatira taldeko kideak izan dira beka gehien jaso dituztenak. Honela, Zazpi Herrialdeen Arteko sokatira txapelketa irabazteagatik 300na euro jaso zituzte, Carmelo Mitxelena, Mikel Apeztegia, Aitziber Goienetxe, Beñat Ordoki, Beñardo Iantzi, Amaia Leiza, Arritxu Muxika, Ane Gurrutxaga eta Gerardo Telletxeak; eta Nafarroako eta Euskadiko txapelketa irabazteagatik 250na euro Jose Angel Mitxelena, Eneko Saldias, Alejandro Sarobe, Pascual Taberna, Iñigo Alzugarai, Unai Gurrutxaga eta Julen Palenzuelak. Aresoko Itxaso Onsalok 200 euro jasoko ditu Nafarroako eta Euskadiko arpana txapelketa mistoa irabazteagatik.

Nafarroako hainbat txapel erabakitzen hasi dira Iruñean

Ohikoa denez, Iruñeko sanferminetako eguerdietan, Foruen Plazan herri-kiroleko Nafarroako hainbat txapel jokatzeko ari dira.

Uztailaren 8an, Nafarroako gizasemeen lehen mailako arpana txapelketa eta emakumezkoen arpana txapelketa jokatu dituzte.

Uztailaren 9an, gizonezkoen Nafarroako lasto-altxatze txapelketa eta gizonezkoen nahiz emakumezkoen ingude-altxatze txapelketak.

Uztailaren 10ean, kadete mailako Nafarroako arpana txapelketaz gain, Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatzeko dute. Maila hone-tako finala abuztuaren 17an jokatu dute Burlatan.

Uztailaren 11n, emakumezkoen eta gizonezkoen

txinga-eramate txapelketak jokatu dituzte. Gizonezkoetan Dani Saldias arraioztarra izan da eskualdeko ordezkaria eta emakumezkoetan Xanta Sousa lesakarra.

Uztailaren 12an, emakumeen aizkora erakustaldiaz gain (Maika Ariztegi eta Itsaso Onsalo ariko dira, bertzeak bertze), San Fermin 4x4 sokatira torneo mistoan parte hartuko du Beti Gaztek.

Uztailaren 13an, Nafarroako harrijasotze txapelketa jokatu dute (Josetxo Urrutia leitzarra eta Xabier Ariztegi *Santxin* etxalartarra dira eskualdeko ordezkariak).

Uztailaren 14an, azkenik, Nafarroako orga joko txapelketa (Xabier Urrutia arraioztarra ariko da) eta bikotekako aizkora txapelketa: Iker Vicen-

te eta Juan Jose Lopez, Jon Rekondo leitzarra eta Oier Kañamares eta Ruben Saralegi leitzarra eta Zigako Joxean Etxeberría izan dira bikoteak. Bikote bakoitzak sei kanaerdiko eta sei 60 ontzako enbor moztu beharko ditu.

Eskualdean gehiago

Nafarroako bertze txapelketa batzuk eskualdean erabakiko dira udan. **Uztailaren 25ean**, emakumezkoen koxkor-biltze txapelketa jokatu dute Elizondon (18:00) eta **abuztuaren 15ean**, gizonezkoena Etxalarren (18:30). Nafarroako arpana txapelketa mistoa **irailaren 28an edo 29an** jokatu dute Igantzin, arratsaldean.

Nafarroako herri herri txapelketa, aldiz, aurten ez da jokatu, talde faltagatik.



Ekainaren 22ko proban parte hartu zutenak, Otsondoko kaskoan.

Beso bakar bat erabiliz Otsondo igo du Eyheraberryk

Nafar Erresumako Kronoeskaladen baitan, hurrengo igoera Izpegin egingen dute uztailaren 28an

TTIPI-TTAPA BAZTAN

Ohi baino jende guttiago hurbildu zen ekainaren 22an Nafar Erresumako Kronoeskaladen baitan egindako Otsondoko igoerara. Horretarako arrazoiak aunitz izan daitezke (San Juanak, Quebrantahuesos... asteburu berean) baina beraien arteko giroa ona izan

zen eta jende berria hurbildu zen, eta ez edonor: Jean-Marc Eyheraberry elbarrituak Handbike batekin lortu zuen Otsondoko lepoa igotzea, beso bakar bat erabiliz.

Aldi berean, parte-hartzaile bakoitzari abisatua zitzaion egun horretakoa ez zela konpetitiboa izanen, baina hale-

re bakoitzak bere onena eman zuen eta antolatzaileen aplikazioari esker jakin zuten nor izan ziren bizkorrenak. Hori horrela izanik, berriro ere Adèle Kerbaol-ek irabazi zuen Joana I.aren koroa eta mutiletan Lilian Sallaberryk jantzi zuen jantzi Antxo (Nagusia) III.aren koroa. Gauzak horrela, Adèle Kerbaou bera da lehen sailkatua txapelketan, Lilian Sallaberrykek segitzen du 12 punturekin, eta hirugarrena 10 punturekin bertze emakume bat da, Margaux Cabantous. Didier Zagok barkamenak bidali zituen ez etortzeagatik baina hegazkin bat zeukan hartzeko nazioarteko txapelketa batean parte hartzeko. Kasu horretan punturik gabe gelditu da eta hurrengo hitzordutan puntuak errekupe-ratu beharko ditu txapelketa-ko errege nagusia izateko.

Uztailaren 28an Izpegin

Hurrengo hitzordua Izpegin izanen dute uztailaren 28an igandez, eta jakinda Baionako festetan dela, baztandarren presentzia ezinbertzekoa izanen da, egun horretan zaila ikusten baitute Iparraldeko jendea motibatzea txirrindulan ibiltzeko.

Alkaia Trail lasterketak hamargarren edizioa beteko du

TTIPI-TTAPA ALKAIAGA

Alkaia gako besten komiteak eta Manttale Mendi Lasterketa taldeak antolatuta X. Alkaia Traila uztailaren 20an egingen da 18:00etatik aitzinerat. Beti bezala, lasterketa auzoko inguruetatik igaroko da eta hiru korrikalarik osatuko dute taldea, guttienez emakume batekin.

Taldeek, erreleboka auzo ingurutik egin beharko dute ibilbidea Baldrun-Sorotik. Korrikalari batek lehenengo itzuli motza egingen du (2 km eta 75 metroko desnibela), bigarrenak luzexagoa (3 km eta 105 metroko desnibela) eta azkenak 4 km eta 155 metroko desnibela. Korrikalari bakoitzak artaburu bat eramane du lekuko gisa.

Antolatzaileek gomendatzen dute partaideen izen abizenak mailez bidaltzea alkaiagatrail@hotmail.com helbidera. Helduentzako lasterketa baino lehen, haurrentzako lasterketak egingen dira 17:30ean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñaki Mihura bigarren Camille Extremen

Camille Extreme egin zuten ekainaren 23an Izaban. 31,6 kmko proban bigarren izan zen Iñaki Mihura arraioztarra eta zortzigarren Iñigo Lasaga doneztebarra. Cannelle Trail proba laburragoan (13 km) hirugarren eta zazpigarren izan ziren Beñat Saralegi eta Juan Mari Indakoetxea lesakarrak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Uxuri Portu Espainiako txapeldun trialen

Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketak irabazi ondotik, sei urterekin Espainiako trial txapelketa ere irabazi du Uxuri Portu lesakarrak ekainaren 23an Cartagenan. Nesketan, promesen kategorian, bere gibeletik sailkatu ziren Naia Téllez eta Carla Molina.

UZTAILAK 11 - 25

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKUSKIZUNAK

OIEREGI

Bisita gidatu antzeztuak

Bertiz Natur Parkean, uztailaren 13an.

GOIZUETA

'Dantza' filma ikusgai

Goizuetako plazan, uztailaren 12an, 22:00etan.

BERA

Haurrentzako zinema-emanaldia

Herriko Etxeko Plazan, uztailaren 20an, 22:00etan.

ZUGARRAMURDI

'Ilargi betea, sorginen larrea' bisita antzeztua

Eskola aitzineko plazatxotik, abuztuaren 2an, 19:30ean.
Sarrerak: 10 euro helduek eta 6 hurrek.

TAILERRAK

DONEZTEBE

EGA eta C1 tituluak ateratzeko ikastaroa

IKA euskaltegian, abuztuaren 5etik 30era. Izen-ematea: 948 45 15 55.

Igeriketa ikastaroa

Igerilekuan, uztailaren 15etik 26ra bitarte.

ARESO

Udaleku irekiak

Uztailaren 15etik abuztuaren 9ra, 11:00etatik 13:00etara.

ZUBIETA

Udalekuak

Abuztuaren 2a arte, goizez.

GOIZUETA

Buruarinak familia-tailerra

Ganbaran, abuztuaren 3an, 11:00etan.



ARTXIBOKOA

ELIZONDO Baztandarren Biltzarra

Orgen desfilea, bazkaria, dantzaldia...
Uztailaren 21ean.

KIROLA

ARANO

Pala txapelketako finalak

Uztailaren 22an, 11:00etan.

ERRATZU

Nafarroako kronoeskalada

Izpegin, uztailaren 28an.

BERA

Gavarnie eta Taillonera

Uztailaren 13an.

LESAKA

X. Alkaiaga Trail

Uztailaren 20an, 18:00etan.

GOIZUETA

Mendi-irteera

Abuztuaren 8an.

KONTZERTUA

ZUGARRAMURDI

Hutsun Taldea

Lezean, uztailaren 11n, 18:00etan.

SENPERE

Batterie taldea

Elizako plazan, uztailaren 11n, 21:00etan.

ZUBIETA

Billy & Bloomfish taldearen kontzertua

Aurretik afaria izanen dute, atarian.
Errandonea ostatuan, uztailaren 12an, 23:00etan.

SARA

Lokarri abesbatza

Elizan, uztailaren 18an, 21:00etan. Sartzea: helduek 10 euro, 14 urtetik beheitikoek urririk.

Kirkintxo taldearen kontzertua

Elizan, uztailaren 24an, 21:00etan (5 euro, 15 urtetik beheitikoek urririk).

GOIZUETA

Keu Agirretxea

Labaderoan, uztailaren 26an, 22:30ean.

LEHIAKETAK

GOIZUETA

'Udakolore' balkoi-lehiaketa

Uztailaren 13an.

SARA

Pottoka lehiaketa

Plazan, uztailaren 27an, 09:00etatik aitzinera.

ERAKUSKETAK

OIEREGI

'Dantza' filmeko argazkiak

Bertiz Natur Parkean, uztailaren 4tik abuztuaren 25era, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

SARA

Larrungo koloreak elkarteko kideen margolan eta eskultura erakusketa

Lur Berri gelan, uztailaren 23tik abuztuaren 4ra, 10:00etatik 12:30era eta 15:30etik 19:00etara. Sartzea urririk.

AZOKAK

SARA

Ekoizleen merkatua

Bertako ekoizleen produktuak ikusi eta erosteko aukera izanen da.
Plazan, ortzegunero, 08:00etatik 13:00etara.

Artisauen merkatua

Plazan, astelehenero, 08:00etatik aitzinera.

Antzinako gauzen merkatua

Uztailaren 19an eta 20an.

SENPERE

Eskulangileen azoka

Postetxeko plazan, uztaila eta abuztuko asteartetan, 09:00etatik 14:00etara.



UTZITAKOA

ARANTZA Emakumearen Memoriaren Baratzearen urteurren besta
Musikariak, bertsolariak, dantzariak...
Frontoi gibelean, uztailaren 20an, 12:00etan hasita.

Ekoizleen azoka
Elizako plazan, larunbatetan,
08:00etatik aitzinera.

URROZ
Artisauen azoka
Leurtzan, uztailaren 13an,
10:30etik 15:00etara.

ERRATZU
Artisauen azoka
Uztailaren 20an, 11:00etatik
15:00etara plazan.

OSPAKIZUNAK

GOIZUETA
Karmen bezperako herri-afaria
Umore Onak antolatuta.
Uztailaren 15ean, 20:30ean.

SENPERE
Munduko haurrak eta dantzak jaialdia
Gauargi elkartearen eskutik,
dantzak eta aunitzez gehiago.
Larreko kulturgunean, uztailaren
17an, 20:30ean.

ARANTZA
Emakumearen Memoriaren Baratzearen urteurren besta
Frontoi gibelean, uztailaren
20an, 12:00etan.

ELIZONDO
Baztandarren Biltzarra
Uztailaren 21ean, 11:00etatik
aitzinera.

Herriko bestak
Uztailaren 24tik 28ra.

ITUREN
Herriko bestak
Uztailaren 18tik 21era.

ARANO
Herriko bestak
Uztailaren 25etik 28ra.

ELGORRIAGA
Herriko bestak
Uztailaren 25etik 28ra.

SARA
Saguzarren gaua
Lezean, uztailaren 25ean,
20:00etan.

Nire aukera

«Herri ttikietako bestetan lehengo giro hura galdu egin da»

IRUNE BAZTERRIKA ETXENIKE ITURENGO GAZTEA

Amezti auzoko Zubialdea baserrian sortu eta Egur-etxean bizi den «33 urteko gazte alaia» da Iruñe Bazterrika. «Harat-honatean ibiltzea» du gustuko eta halaxe pasatu ohi du eguna: «lanetik ateratzen naizenean, seme-alaben bila joaten naiz. Eskolaz kanpoko jarduerak direla eta ez direla, arratsaldean haiekin bueltara ibiltzen naiz». Goizez, berriz, «Donezteben, osasun etxean» lan egiten du: «hitzorduak emateaz eta tramiteez arduratzen naiz». Azken urteetan lan horri jangelako laguntzailearen eginkizunak gehitu dizkio: «orain dela bi urte Iturengo eskolan ordezkapen bat egin nuen eta ondotik Donezteben aritu naiz». Egiten



duena «arrunt gustuko» duen arren, oporrak ez daude inoiz sobran eta horiei begira hasia da dagoeneko: «normalean abuztuan hartzen ditut eta eskertzekoa da. Haurrak etxean daude eta familiarekin lasai egoteko denbora izaten dut». Lehenagotik, herriko bestez gozatzeko, «egun batzuk eskatzen saiatzen naiz». Egun

horiek ekitaldien arabera antolatzen ditu, eta jarduerak aukeratzeko haurrak izaten ditu gidari. Ama izan denetik, bestak bizitzeko modua aldatu zaio, izan ere, «lasaiago» ibiltzen da, «lehengo libertate hori gabe baina niretzako tarteren bat hartuz». Gauéz «gutti» ateratzen den arren, momenturen batean txirrinta sortuz gero, arazorik gabe egin dezakeela gaineratu du; «seme-alabak senarrarekin edo gurasoekin gelditzen dira eta horretarako laguntza handia izaten dut». Edozein egun da «bikaina» parranda egin eta herrikoekin egoteko, baina aukeran, «bezpera» hartuko luke: «dantzariak, txupinazoa, afaria... giro bikaina izaten dugu». Halere, orokorrean, «lehengo giro hura» galduz joan dela erranen luke: «herri ttikietako bestetara joateko joera galtzen ari da». Eusteko herritarrek beraien ekarpena egiten dute eta, segur aski, guztien artean lortuko dute. Besten ondotik, lanera itzuliko da, baina txoko berria izanen du. Izan ere, eraiki berri duten osasun etxera jo beharko du. Alde batetik, pozik dago, «nire tokia mantentzen dudalako»; eta bertetik, aldaketa «haundia» izanen dela iruditzen zaio. Bien bitartean, aurtun noranzkoa galdu gabe ibili beharko du, «egokitzen behar bezala egiteko».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda salgai, bere lurra-
rekin. ☎661 12 15 40.

LESAKA. Herri erdian apartamentua
saltzeko edo errentan emateko.
Lehenengo bizitza, logela 1, sabaia,
eta garajea marrarekin. Mobleztatua.
☎675 71 43 60/ 639 50 91 48.

BERA. Kanttonberri karrikan pisua
salgai, 2 logela, komun bat, egon-
gela, sukaldea eta berogailua. Bizi-
tzera joateko prest. ☎627 89 39 62.

ERRENTAN EMATEKO



OROPESA DEL MAR. 5 lagunen-
tzako apartamentua errentan ema-
teko. Hondartzatik 50 metrotara.
☎677 08 90 46.

ERRENTAN HARTZEKO

BAZTANGOIZA. Ardi borda bat bere
lur eremuarekin errentan hartu nahi
dute. ☎663 59 17 76.

BERAN edo LESAKAN 2 edo 3 lo-
gelako pisua errentan hartu nahi
dugu. 500 euro arte ordaintzeko
prest. Interesatuak bidali Whatsap-
pa zenbaki honetara. ☎ 635 91 10
50.

LESAKA. Logela bateko edo biko
etxebizitza errentan hartzeko prest.
Hilabetearen gehienez 450 euro or-
daintzeko prest. ☎ 642 46 44 05.

ELIZONDON edo INGURUAN pisua
errentan hartu nahi dute. ☎619 08
46 03.

ETXALAR. Baserrria errentan ema-
teko, bere lurra-ekin. ☎661 12 15
40.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. Lur eremua salgai. ☎628 31
60 81.

LANA

ESKAINTZAK

LESAKA. Atxaspi hotelean garbiki-
tan, harreran eta gosaria prestatzen
aritzeko pertsona bat behar dute.
☎673 33 99 20.

BERA. Ostatu batean sukaldari la-
guntzailea behar dute astelehene-
tik larunbatera. ☎ 617 72 34 75.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

DONEZTEBE. Muebles Telletxean,
sukaldean atalean lanean aritzeko
saltzailea behar dute. Esperientzia
izatea nahitaezkoa da. Interesatuak
curriculuma helbide honetara bidali:
alfredo@mueblestelletea.com.

Udako denboraldian Elizondon den-
da batean eta Baztan-Bidasoan bi-
sita-gidatuak egiteko langile bila.
Historia ezaguera izatea eta hizkun-
tzak jakitea kontuan hartuko da.
☎628 01 98 93 / baztantours@gmail.com.

Mendi Mendian bentan **sukaldean**
lan egiteko jendea behar dute. Inte-
resatuak bidali curriculuma: mendi-mendian@hotmail.com.

ESKARIAK

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean, udan,
astearen egun batzuk edo astelehene-
tik ostiralera, haurrak zaintzeko prest,

ordu batzuek, goizez edo arratsaldez.
☎636 18 15 46.

MALERREKA - BAZTAN ALDEAN
esperientziadun neska gazte bat
haurrak zaintzen eta etxeko lanak
egiten ariko litzateke. Udan, goizez
eta arratsaldez prest. ☎671 30 44
07 / 630 28 10 63.

LEITZALDEA. Adinekoak zaintzen,
paseatzen eta osasun zentzora era-
maten edo etxeak garbitzen lan
egiteko lan bila. ☎695 71 68 94 /
948 51 06 65.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BORTZIRIETAN udako hilabeteetan
zehar ingelesa edota bertze arlo
batzuetako klase partikularrak ema-
teko prest nago. ☎678 96 84 95.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,17
- 1.koa 4,04
- 2.koa 3,90

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,28
- 1.koa 3,14
- 2.koa 4,00

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-
lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 170,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,80/7,40
- 8-10 kilokoak: 5,70/6,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 67 €

Zerri gizona 1,451 €

Zerramak 0,710€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(ekainaren 21etik 28ra bitarteko
prezioak)

IKASTAROK

ARTEAREN OPORRAK BAZTANEN.

Goizez eta arratsaldez Baztanen
margotzeko ikastaroak. Aukeratu
ikastaroa: uztailearen 27tik 30era,
abuztuaren 17tik 20ra, irailaren 7tik
10era eta urriaren 19tik 22ra. Sei
partaide gehienez. Informazio gehia-
go: 659 94 89 26, [dianainiesta@](mailto:dianainiesta@hotmail.com)
www.dianainiesta.com edo [www.dianainiesta](http://www.dianainiesta.com)
[benedicto.es](http://www.dianainiesta.com).

ZURGINDEGIAK


ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe


Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakumeak opari. Etxe bila nabil.
Ama ehiztaria dut eta hagitx gusta-
tzen zait jolastea eta mimoak jaso-
tzea. Zure etxera eraman nahi? ☎652
75 08 17.



Kollie eta euskal txakurraren arteko
nahasketa duten **txakurkumeak**
oparitzeko. Etxe eta zaintzaile on
baten bila. ☎948 58 11 36 / 636 18
15 46.

ITUREN. Katakumeak oparitzeko.
Ama ehiztari bikaina. ☎650 77 57
36.

SALGAI

2 urteko **ahari mutur gorria** salgai.
Adarrik gabe. ☎ 606 01 93 37.



744 484 361

ttipi-ttapa

MOTORRAK

SALGAI



Toyota Land Cruiser 3.0, D4D vxl autoa salgai. 204 zaldi, 2005. urtekoa. 227.300 kilometro. Estra ugariarekin: larruzko eserlekuak, eserlekuak berotzeko sistema, GPSa... 17.000 euro. ☎647 525 516.

DENETARIK

OPARITZEKO

190x90 cm-ko **ohea** eta **bere mahaia** oparitzeko. ☎610 32 66 93.



SALEROSKETAK

Segadora erosi nahi da. ☎646 16 27 70.

GALDU-AURKITUAK



Sunbيلاتik Mendaurreako bidean, Trinitate Egunean, **giltza sorta** bat galdu dute. ☎639 86 93 12.

URTEBETETZEAK



Arantzako **Aroa, Ekaitz** eta attatto **Iñakik** 6, 4 eta 39 urte beteko dituzte uztailaren 19, 20 eta 26an. Aunitz urtez Arantzako eta Sunbillako familia guziaren partetik. Ongi pasatu eta muso haundi bana!!!



Zorionak Irurita eta Lekarozko **Uxue Bikondo** eta **Julen Sarratea**! Ekainaren 29an 5 eta 12 bete zenituzten! Muxu handi bat familia guziaren partetik eta bereziki Oinatz eta Arizten partetik!



Zorionak **June!** Uztailaren 12an 6 urte beteko dituzu. Muxu eta besarkada potoloak zureta. Legasako familia.



Zorionak **Arai!** Uztailaren 23an 6 urte beteko dituzu. Muxu eta besarkada potoloak zureta. Legasako familia.

AVIA

E.S. SANTESTEBAN

Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

www.doneztebe.com

KOTXE GARBITEGIA

ShineTecs®

"KONPONTZE EFEKTUA"
duen pintura babeslearekin

- > "Acrylic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.
- > Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
- > Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

FURGONETA GARBITEGIA!

2,60 m

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!



Aiala Ziluaga Iturriak uztailaren 5ean 7 urte bete zituen. Aunitz urtez gure neska jator eta polittari!!!



Aunitz urtez **Saioa!** Gure txistulariak uztailaren 20an urteak beteko dituelako, muxu haundi bat eta ongi-ongi pasa eguna!

Logotipoak
Txartelak
Oroigarriak
Argitalpenak
Egutegiak
Boletoa

948 635 458
kulturkari.com

Marica Maribategi sariak 2019

NAIARRAZO / LABURRA / PUERTO / KENDRA / KONTXILLOA

SORTZEAK

- **Jon Arretxea Sepulbeda**, Sunbillakoa, ekainaren 17an.
- **Alaia Madariaga Beizama**, Arantzakoa, ekainaren 21ean.

EZKONTZAK

- **Jabier Arrosamena Sanzberro** eta **Marcia Cassimiro**, Etxalarkoa eta Brasilgoa, ekainaren 29an Etxalarren.

HERIOTZAK

- **Bittori Saharrea Martiarena**,
Lekarozkoa, ekainaren 19an, 99 urte zituela.
- **Joxe Zabaleta Olaskoaga**,
Leitzakoa, ekainaren 19an, 86 urte zituela.
- **Karmen Larretxea Taberna**,
Arantzakoa, ekainaren 19an, 89 urte zituela.
- **Maria Pilar Sagaseta Ariztegi**,
Iturengoa, ekainaren 21ean, 75 urte zituela.
- **Joxe Miguel Ezkurra Otxandorena**,
Leitzakoa, ekainaren 22an, 81 urte zituela.
- **Juan Maia Ariztia**,
Elizondokoa, ekainaren 25en, 92 urte zituela.
- **Alejandro Otxoteko Martiarena**,
Lesakakoa, ekainaren 25ean, 85 urte zituela.
- **Felipe Mendegia Maritxalar**,
Lesakakoa ekainaren 26an, 93 urte zituela.
- **Maria Luisa Sagastibeltza Sukuntza**,
Leitzakoa, ekainaren 28an, 97 urte zituela.
- **Juana Bengoetxea Urroz**,
Beintza-Labaiengoa, ekainaren 28an, 89 urte zituela.
- **Martin Juanena Iribarren**,
Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 28an, 80 urte zituela.
- **Beatriz Mitxelena Urrutia**,
Lesakakoa, ekainaren 29an, 84 urte zituela.
- **Iñaxi Etxeberria Telletxea**,
Igantzakoa, ekainaren 29an, 103 urte zituela.
- **Esteban Alzuguren Matxikote**,
Berakoa, uztailaren 1ean, 65 urte zituela.
- **Antonio Sansiñena Irisarri**,
Etxalarkoa, uztailaren 1ean, 82 urte zituela.
- **Victor Escagues Esparza**,
Berakoa, uztailaren 2an, 92 urte zituela.
- **Angeles Ganboa Ibarra**,
Sunbillakoa, uztailaren 3an, 88 urte zituela.
- **Jose Larrainzar Alkasena**,
Elbetekoa, uztailaren 3an, 84 urte zituela.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOKAN
AQUÍ, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

OROIGARRIA



Jose GARCIA SACRISTAN

Ez gara zutaz ahaztuko.

BERAKO UDALEKO LANKIDEAK

URTEURRENA

Gurutze IPARRAGIRRE OSKOZ

Arantzan, 2014ko uztailaren 15ean

Enbor beretik sortuak, zuhaitz desberdinetatik lotuak, zein zoriontsu ginen denak junto, urte bat berandugo destinuak egin zigun bizitza zapuztu, 2014ko udako egunik argitsuenean zinen zu bidearekin abiatu, barrutik jakin bagenekien arren ezin izango zintugula berriz ere bueltan sumatu, 5 urte jada ezin dugula zure irrifarra begiratu, baina lehenengo egunean bezala dizut nik maitatu.

GOIZANE LEHENGUSINA





BAZTAN BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDON Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

KONTATU KONTUAK



Karateko erakustaldia. Joan den ekainaren 20an, ikasturte osoan karate eskolan ikasitakoa jende aitzinean erakutsi zuen argazkiko kuadrilla honek. Lesakako eskolako gimnasioan eskaini zuten erakustaldia eta bildutako jendearen gozamenerako aski saio polita eskaini zuten. Ikasleak Arantza, Bera, Igantzi eta Lesakakoak dira eta Iker Ordoki lesakarra irakasle dutela karate ikasten pasatu dute ikasturtea.



Lesakako Pepitaenea. Osasun Etxetik hurbil dago Lesakako Pepitaenea, XX. mende hasieran Rafael Albisturren aginduz eraikitako etxea. Andoni Esparzak dioen bezala, «arrosaz eta zuriz margotua, postal bateko irudia dirudi». Rafaelen familia Lesakan ezaguna zela dio Esparzak, Jose Joakin Albistur Lesakako alkate izan zenaren eta azken horren anaia zen Manuel foru diputatu izanaren familiakoa baitzen. Rafaellek nekazaritzako peritu ikasketak egin zituen eta Esparzak kontatu duenez, «Maria Larunbek *El academicismo y la arquitectura del siglo XIX en Navarra* liburuan dioenez, 1900. urtean Iruñeko Udaleko lorategi eta parkeen zuzendaria izan zen». Hala, Takonerako parkean egindako jarduera batzuk bereak omen dira.

Etxea bera ederra izateaz gainera, lorategia ere halakoxea du. Txilen eta Argentinan ikusten diren araukariak daude lorategian, baita bertze hainbat zuhaitz eta landare mota ere: magnoliak, palmondo gazteak, burdin hesian glizina... Etxe aitzinean urmael ttiki bat ere badu harriekin apaindua. Rafaelen biloba Carmen Olaetxea Albistur Lesakan bizi da eta berekin eta bere alaba Martarekin solas egin ondotik ikasi du Esparzak Rafael laster alargun gelditu zela, alaba ttiki batekin, eta segur aski neska hobeki zaintzeko eta senideekin egoteko Lesakara itzuli zela. Orduan eraikiarazi zuen etxea eta hildako emaztea gogoan bere izena paratu zion, Pepitaenea. Iruñeko Udalean izan zuen lanpostuaren eragina Lesakan diseinatu zuen lorategian nabari da. «Baina bere zaletasunaz aparte, ondoko belaunaldiak esker ere mantendu da txoko ttiki eta xarmant hau».



Sarna fuera, txarrak kanpora eta onak barrenera. Herriz herri hainbat tokitan piztu zuten sua ekainaren 23an, eta suaren aitzakian besta giroa sortu zen han eta hemen. Elgorriagan, adibidez –hangoa da argazkia–, merienda-afaria egin zuten eta ondotik, su gainean saltoka ibili ziren.



Pauso eta Salto! Topaketa giro ezin hobean. Ekain akabailan UEMAK antolatutako Pauso eta Salto! Udalekuak giro paregabean atera ziren. Usurbildik abiatu eta Oiartzundik pasatu ondotik, ekainaren 27an Berara ailegatu ziren eta biharamun goizean Arantzara. Jolasak, Arnasguneen tailerra, antzerkiak, Putzubeltzera ibilaldia... eginez ederki gozatu zuten. Denek promesa bera egin zuten: «hurrengo urtean berriz!».

PLAZAN BAZAN



Hemen zenbatuta ikusten dituzun elementu aunitz irudi nagusian ere badaude, eta bertze batzuk, aldiz, ez. Bereiz itzazu.

BAI

~~EZ~~

- | | | | |
|--------------------------|------------------------|---------------------------|--------------------------|
| 1. Erlea | 10. Eulia | 19. Paperezko itsasontzia | 28. Eltzea |
| 2. Ontzia | 11. Hegazkina | 20. Aterkia | 29. Flotagailua |
| 3. Marrubizko izozkia | 12. Ohola | 21. Sugea | 30. Hegazkin txikia |
| 4. Giltza ingelesa | 13. Peluxea | 22. Itsas barakuilua | 31. Dinosaurioa |
| 5. Pala | 14. Azenarioa | 23. Betaurrekoak | 32. Txankleta laranja |
| 6. Kaioa | 15. Eguzkitarako krema | 24. Guardasola | 33. Kaka |
| 7. Txantxangorri kakatia | 16. Piraña | 25. Erromes-maskorra | 34. Txokolatzeko izozkia |
| 8. Itsas izarra | 17. Espazio-ontzia | 26. Baloi hori-laranja | 35. Arnasteko hodia |
| 9. Baloi zuri-berdea | 18. Botila | 27. Txankleta urdina | |



Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Uharte galduetan uste baino gauza gehiago aurki daiteke.



Ttapi Txartela

arekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTAPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTAPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttapi.eus | erran.eus

www.ttapitxartela.info

737

aleko
irabazleak



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera

Jon Mikel Aragon Ibarra | ZUBIETA

Astizko lezeak - 2 sarrera

Jose Antonio Garro Lanz | LESAKA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Gregorio Iturriria Etxenike | AZPILKUETA

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Anelis Perotxena Fagoaga | ARRAIOZ

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Jabier Madariaga Larretxea | URROZ

La Rhune - 2 sarrera

Sebastian Mutuberria Huizi | LEITZA

Wow Park - 2 sarrera

Arantxa Mendiburu Iturbide | URDAZUBI

Baga Biga - CD bat

Xabier Nieto Baranda | ARESO

Baga Biga - CD bat

Patri Arburua Etxeberria | IGANTZI

2 sarrera

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com

2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera

DONOSTIAKO AQUARIUM
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

2 sarrera helduentzat

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Jaiaberrientzako kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu

2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA

Wow PARK
Votre Parc Aventure
2 sarrera
<http://wowpark.fr>

LIBURUAK

• Tigrearen emaztea
• Hemen du atseden
Nevaresek

erein
www.erein.eus

LA GUNTZAI LEAK

txalaparta
www.txalaparta.eus

BAZTAN AVENTURA PARK
www.navarraaventura.com